



Ekialdetik
iritsi zen
Enara

Xabier
Etxaniz
Rojo

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

XABIER ETXANIZ ROJO

Ekialdetik iritisi zen Enara

Nazioarteko adopzio baten istorioa

Enara Fuhan-i eta Garaziri.

Aintzirari

Laida Ju-ri

Xiao Maren-i

Garari

Feng Fu Han-en ama biologikoari,

zauden tokian zaudela,

eskerrik asko eta zorte on.

Eskerrak eman nahi dizkizuet liburu hau hobetzen lagundu didazuen
guztiori,

Erre eta Itsasori,

Puru eta Marisari,

Mikel Urdangarini,

eta Koldo Biguriri.

Eta, nola ez, Larraitzi.

Zuen iruzkin guzti-guztiek zer pentsaturik eman didate.

Mila esker zuen laguntzarengatik.

SARRERA

Istorio bat idazten hasten naizenean nire lehenengo buruhaustea protagonistaren izena asmatzea izan ohi da. Izenak sinesgarria izan behar du. Izenak protagonistaren izaerarekin bat etorri behar du. Izenek maparen puntu zehatz batera garamatzate, denbora zehatz batera eta tentuz ibili beharra dago aukeratzeko garaian. Jakina da, esate baterako, Espainiako gerra zibiletik ihesi Errusiara joan ziren haur euskaldunen artean ez zegoela Nahia edota June izeneko neskatarik. Eta jakina da, halaber, nekez aurkituko dugula Teofilo edo Apolonia bezalako izenik gure seme-alaben ikastolako lagunen artean. Garai bakoitzak bere izenak ditu eta nago horretan idazleak ezin duela hutsik egin. Harkaitz gaztea gure herriko futbol taldearen goleatzailea izan daiteke hala nahi izatera. Harkaitzek gol piloa sar dezake partida batean eta harmailetan bere aitona egon daiteke. Harkaitzen aitona harro egon daiteke bilobaren joko azkar eta bikainaz. Eta Harkaitzen aitona, -benetan kontatu nahi dugun istorioa aitonarena baita- birgogora ditzake ezker hegaletik korrika egiten zitueneko urruneko urteak eta bere bizitzako pasarterik gogoangarrienak ekarriko ditu liburura. Baina Harkaitzen aitonaren izena ezin Harkaitz izan, inola ere ez, inortxok ere ez bailuke sinetsiko.

Idazle bakoitzak bere zoroak bizi ditu, bai, eta nire lehenengo buruhaustea horixe izaten da, izenarena. Gero beste buruhauste gehiago etorriko dira, beste korapilo batzuk, askatu beharrekoak narrazioak aurrera egingo badu. Haatik, idazten hasi naizen istorio honetan ez dut horrelako arazorik izango, inoiz baino errazagoa gertatu baitzait izenen kontua erabakitzea. Protagonista nagusiaren izena, liburu honen azalean irakurri ahal izan duzun bezala, Enara da, Enara Fuhan. Beste protagonisten izenak ere erraz asko aurkitu ditut, gehiegi ere bilatu gabe. Xabi, Larraitz eta Garazi. Gure familia liburuan daude hiruak, eta bi mila eta bosteko urriaren hogeita lauaz geroztik Enara Fuhan ere agertzen da bertan aurrekoekin batera.

Enara Fuhan Yantze ibaiaren ertzean dagoen Fengdu hirian jaio zen 2005eko urtarrilaren 21ean. “Fengdu hirian jaio zen” idatzi dut nahiz eta badakidan ez dugula inoiz jakingo egia ala gezurra ote den. Behin baino gehiagotan entzun izan dut Txinako emakume askok bidaia luzeak egiten

dituztela haurra abandonatu aurretik, haurra euren jaioterritik urrun aurki dezaten, baina hau ere ezin esan dezaket egia ala gezurra ote den. Ez dakigu China Center of Adoption Affairs izeneko erakundeak esandakoa besterik, Enara Fengdu hiriko umezurtz-etxera eramán zutela 2005eko urtarrilaren 28an eta, euren kalkuluen arabera, astebete lehenago jaio zela. Jertse koloredun bat omen zeraman jantzita eta eraikitzen ari diren presaren inguruetan aurkitu omen zuten. Feng Fu Han izena jarri zioten jaioberriari: “Feng” abizena, hiriko umezurtz etxeko haur guztien abizena da, “Fu” hitzak zortea esan nahi du besteak beste, eta “Han” hitzak esanahi asko dituen gero, ideogramaren idazkerara jo behar izan dugu “Bustita, blai eginda” esan nahi duela jakiteko. Bai, Feng Fu Han-ek zorte handia izan zuen presa haren ondoan aurkitu zutenean...

Idazleón buruhausteen inguruan hasi naiz idazten eta hari horri helduko diot atzera. Izan ere, protagonistaren izena asmatzeari baino askoz garrantzitsuagoa irizten baitiot idatzi nahi duzuna argi eta garbi izateari, dela paper batean idatzita, dela burmuinaren txokoren batean gordeta. Ideiak argi izateak asko laguntzen du orri edo pantaila zuriari ekiteko orduan. Hainbat idazlek diote ez direla lanean hasten bukaera zein izango den jakin arte. Beste batzuek, aldiz, kontrakoa diote, idazteari ekin ohi diotela bukaera zehatzik izan gabe, istorioak berak gidatuko dituelako itxaropenaz. Batzuek eskemak egiten dituzte, atal bakoitzean kontatuko dutena zehatz-mehatz jakite aldera eta beste batzuk ideien kaosaren barnean murgiltzen dira handik nahi dutena aterako dutelakoan. Ez dago esan beharrik bakoitzak bere metodologia daukala eta ez dagoela eredu txarrik. Azken batean, idazteko pare bat gauza behar baita: batetik, istorio bat kontatzeko eta, bestetik, berau idazteko gogoia. Horixe besterik ez. Aitor dut inon kokatzekotan, lehenengo idazleen artean kokatuko nukeela nire burua, bukaera jakin arte lasai geratzen ez direnen artean, alegia. Idazle eskematikoa ere banaiz -eskematoak egiten ditut nahiz eta jakin gehienetan ez diedala jaramon handirik egiten- eta idazten hasi aurretik gusturago sentitzen naiz dena kontrolpean daukadala pentsatzen badut –gehienetan ez da hala izaten, baina-. Oraingo istorio honetan, berriz, ez daukat oso argi zer idatziko dudán.

Eta hala da, neurri handi batean, nire sentimenduez eta nire bizitzaz lehen pertsonan idatzi behar dudalako. Egia da askotan idazleok gure sentimenduez eta gure bizitzaz idatzi ohi dugula baina gehienetan zeharka egiten dugu. Harkaitz jokalaria gaztearen adibidea hona ekarrita, zera esango nizueke, ni ere gaztetan futbolearen aritu nintzela eta noizbait futbola ardatz duen istorioaren bat idatzi beharko banu, lehenik eta behin oroimenaren kutxan bilatuko nuke, ez istorioaren funtsari dagokionean baizik eta xehetasunei dagokienean. Harkaitzen istorioak -edozein delarik kontakizuna- kolpe guztiak sendatzen zituen "Reflex"-aren usaina izango luke nahi eta nahi ez, bai eta Herrerako zelaian atsedendietan ematen ziguten kafearen zaporea ere. Harkaitzek nik sartutako golak sartuko lituzke, eta nola ez, nik egindako huts galantak egingo lituzke. Bai, Harkaitzek eta biok antza handia izango genuke nahiz eta bere istorioa nirea ez izan.

Liburu honetan, baina, lehen pertsona erabiliko dut, singularrean nahiz pluralean. Eta lehen pertsona erabiliko dudanez, fikziozko pertsonaiak asmatzeari uko egingo diodanez, ez daukat batere argi zer idatziko dudan. Errazagoa suertatuko litzaidake kontakizun hau pertsonaiaren baten atzean ezkutatzea, istorioa mozorrotzea, horixe baita gehienetan egiten dudana, baina, tira, ezin korrituko dugu beti biderik xamur eta motzena.

Ez dut gogoan nori irakurri nion idazleok gure ipuin eta nobeletan biluzten garelako kontu ospetsu hura gezurra dela eta ni bat nator esaldi horrekin. Idazleok arropa janzen dugu idazten dugunean, biluzik ez agertze aldera, benetan garen bezala ez agertze aldera. Eta aipu horrekin bat natorrenez gero, biluztu nahi dudala esan beharko dut, halabeharrez, urte hauetan sentitu eta bizi izandakoa gogoratzen dudan bezala kontatzeko, galbaherik gabe.

Adopzioaren munduan esan ohi da gure seme-alabak ez direla gure sabeletik jaiotzen mundura, baina bai, ordea, gure bihotzetik. Gure bihotzaren seme-alabak direla arrapostu egiten diegu genetikari garrantzia gehiegi ematen dietenei. Erantzun ederra da, inondik ere, eta nik segida eman nahi diot liburu honetan. Beraz, irakurle estimatu hori, bihotzarekin idatziko dudala agintzen dizut nahiz eta arestian esan bezala zer idatzi oso argi ez dudan arren. Hori bai, liburu honetara nazioarteko adopzio bat burutzeko gida bat aurkituko duzulakoan hurbildu bazara,

oker zaudela esan beharko dizut. Liburu hau ez da “Adopta ezazu hamar pausotan” edo “Zu eta nazioarteko adopzioa” gisako auto-laguntzarako liburu horietako bat. Ez nuke jakingo horrelakorik egiten, eta gainera informazio mordoa falta zait. Ez naiz aditu bat, gure prozesua –eta lagun on batzuen- besterik ez dut ezagutzen, nazio bakoitzak bere legeak zein zehetasunak ditu eta Txinarako balio duenak ez du zertan balio Etiopiarako. Informazioa nahi duenak erakunde publikoetara jotzea dauka eta han jakinaraziko diote zer egin behar duen haur bat adoptatzeko. Adopzioaren munduan dabilzan elkarrekin ere behar den informazioa ematen dute, bai eta interneteko sarean barreiatu dauden adopzioari buruzko orrialdeek ere. Baina ez hemen.

Era berean, adopzioaren aldeko panfleto bat nahi duena ere oker dabil. Ezin ukatuko dut Enara Fuhan guregana iritsi –ala gu Enara Fuhanengana iritsi ginela esan beharko ote genuke?- baino askoz ere lehenagotik naizela adopzioaren aldeko militante, baina horrek ez du esan nahi etengabe nazioarteko adopzioaren apologia egin behar dudarik. Ez dago Enararekin pasean ateratzea bezalakorik jende askok begi onez ikusten gaituela ohartzeko. Eta, era berean, gaur arte inork ezer esan ez badigu ere, jakin badakigu askok ez duela ulertzen adopzioaren bidea. Askorentzat, “ez dira zuen benetako seme-alabak”. Askorentzat, “arazotan sartuko zarete eta arazoak ekarriko dizkizute”. Askorentzat, “ez duzue berdin maiteko”. Askorentzat, “arazoa konpondu beharrean areagotzen ari zarete”. Eta bada esku zuriko lapurtzat jotzen gaituenik. Zoritxarrez, informazioaren aroan bizi garen honetan inoiz baino informazio gutxiago daukagu eta, ondorioz, aurreiritziz inguraturik bizi behar dugu. Haatik, ez dut inor konbentzitu nahi. Ez dut inor konbentzitu behar. Gurasotasun biologikoaren aldeko panfleto bat bezain absurdoa litzateke adopziozko gurasotasunaren aldekoa, azken batean, inork bere bidea egin behar baitu. Guk gurea egin dugu eta horixe kontatuko dut, gure istorioa, gure esperientzia. Txinan gauzatutako adopzio baten istorioa, gure alabarengana eraman gintuen istorioa da liburu honetan aurkituko duzuna.

Bihotzaren lumaz idatzitakoa.

Sarrera labur honi bukaera eman aurretik kontu bat besterik ez. Idazleoi maiz galdetzen zaigu ea zergatik idazten dugun. “Merezi al du idaztea oso jende gutxik irakurtzen duela jakinda?” Argi dago baietz, merezi duela, bestela ez genuke ezer idatziko. Nork bere bidea aukeratzen du hala aita edo ama izateko orduan nola ondokoarekin komunikatzeko garaian eta ni ezin gusturago sentitzen naiz gertatzen zaidana orri zuriaren gainean jartzen dudanean. Badut zer kontaturik eta badut kontatzeko gogorik, beraz, ez dut ezer gehiago behar idazten hasteko.

Ez da, baina, idazteko dudan arrazoi bakarra. Zuentzat, irakurle estimatuak, idatziko dut liburu hau, bai, baina, neurri handi batean Enara Fuhanentzat ari naiz, nora goazen jakitea bezain garrantzitsua baita nondik gatozen jakitea. Gure Enara txikiak ez du sekula jakingo nondik etorri zen –ekialdetik, bai, baina datu horrek ez dio gehiegi lagunduko bere iragana sortzeko garaian-, eta hutsune horrekin bizi beharko du betiko. Bere motxila partikularra izango da, eta galderez gainezka egongo da. Zergatik abandonatu ninduten? Zergatik ni? Zergatik adoptatu ninduzuen? Nork jaso ninduen? Non? Noren sabelean egon nintzen? Zein da nire iragana? Hainbeste dira erantzunik gabeko galderak non hutsunea zabalegia eta motxila pisutsuegia izango baitira, eta Enarak laguntza beharko du aurrera egingo badu.

Orrialde hauek motxila horren zama arintzeko lagunduko balute, munduko aitarik zoriontsuena izango nintzateke.

ERABAKIA. FAMILIA BAT SORTZEKO EGITASMOA

Lehenengo mugarría

Datak garrantzitsuak dira gure gizarte honetan. Mundura jaiotzen garenetik datak biltzen hasten gara, perretxikoak balira bezala, eta horrela jarraitzen dugu mundu honetatik alde egiten dugun arte. Gure jaioteguna gurekin etorriko da bizitza osoan zehar bai eta gure seme-alaben jaiotegunak ere. Apika, ez dugu gogoan izango noiz hasi ginen eskolara joaten baina ziurrenik gogoan izango dugu beti noiz hasi ginen lanean edota zein egunetan lo egin genuen lehendabiziko aldiz hain garesti erositako etxean. Gogoan gordetzen dugu gure ezkon-egunaren data –edota izatezko bikote bilakatu gineneko eguna, edota elkarrekin bizitzen jarri gineneko eguna, edota... zorionez hainbeste dira gaur egungo familia ereduak!- eta gure senide zein lagunen urtebetetze egunak, zoriontzeko besterik ez bada ere. Bizitza osoa mugarriz beteta dago, denboraren ibilbidean jarritakoak, eta atzera begiratzen dugunean mugarrí horietara jotzen dugu egin duguna eta egin ez duguna ikuste aldera.

Paper batean idatzita daukat 2004ko otsailaren 18an jarri genuela adopzioaren bidean lehenengo mugarría, egun hartan egin baikenuen eskaera Gipuzkoako Foru Aldundiak Intxaurrendoko auzoan duen Txara eraikuntzan. Haatik, denboraren bidean jarritako mugarrí hauek beharrezkoak bezain gezurtiak dira, gauzak beti lehenago hasten baitira. Data “ofizialak” dira, nolabait esateko, paper ofizial batean idatzitakoak, zigilu ofizial bat ondoan daramatenak. Data estraofizialak, berriz, zera dio, Larraitz eta biok askoz ere lehenago hasi ginela adopzioaren bidean, askoz ere lehenago jakin genuela noizbait atzerrira joko genuela seme-alaba baten bila.

Ez dut gogoan zehazki noiz hitz egin genuen lehendabiziko aldiz aita eta ama izatearen inguruan, baina garai bat esatekotan, 2001eko udaberria izango zela esango nuke. Udaberrian izango zela diot gogoan dudalako eguzkiaren izpiak indar handiz sartzen zirela gure etxeke egongelan eta hori udaberrian eta uda partean besterik ez zen gertatzen. Donostiako alde zaharreko kale estuek horrelako gauzak dituzte eta zulo batean ez baina bai etxe ilun batean bizi ginela esan behar dut. Eta asteburua izango zen, telebista aurrean patxada ederrean geundela gogoratzen baitut. Jakin bagenekien umeak eduki, eduki nahi genituela, baina artean

gaiari behar den seriotasunez hitz egin gabeak ginen. Eta udaberriko eguerdi parte hartan, Larraitzek zera galdetu zidan: “noiz izan behar ditugu seme-alabak?”

Arestian izan bezala, noizbait gaiaren inguruan hitz egindakoak ginen. “Lasai, iritsiko dira” erantzuten genuen senide edota lagunak batek seme-alaben inguruan galdetzen zigutenean. “Ez daukagu presarik”, “oraindik gazteak gara” bezalako esaldiak botatzen genituen eta biok bat gendozen erantzuteko garaian. Zuzenean elkarri galdetu gabe, jakin bagenekien egunen batean iritsiko zela eguna baina denbora behar genuen. Eta gainera, zer demontre, 1997an elkarrekin bizitzen hasi ginenetik ondo baino hobeto bizi ginen. Lanik ez genuen faltan, diruz ere ondo geunden eta nahi genuen guztia inolako loturarik gabe egin ahal genuen. Seme-alabarik gabe primeran bizi ginen, zertarako aldatu? Zergatik aldatu ondo dabilena?...

Galdera horrentzat, baina, ez daukat erantzunik. Ez dakit zergatik eduki nahi ditugun seme-alabak, eta ez naiz gutaz ari, orokorrean baizik. Zergatik ekarri mundura seme-alabak? Argiago ikusten ditut seme-alabarik izan nahi ez dutenen argudioak dagoeneko izan ditugunonak baino. Seme-alabak mundura ekartzea erantzukizun handia da, itzela, eta bada zama hori eramateko bere burua gai ikusten ez duenik, edo besterik ezean, bere burua gai ikusi arren, erantzukizuna hartzeko prest ez dagoenik. Bada seme-alabaren beharrik sentitzen ez duenik eta bada, burutik batere sano ez dagoen mundu honen norabidea aztertu eta gero, mundura beste biztanle bat ekartzea absurdotzat jotzen duenik. Seme-alabek sufritu egingo dute munduan, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, baina denok sufritu dugu eta bada sufrimendu hori ikusteko eta are gutxiago onartzeko prest ez dagoenik. Bada seme-alabarik izanda besteren bat mundura ekartzeko prest egon bai, baina arazo ekonomikoak direla –ai, interes tipo madarikatuak!-, arazo fisikoak direla –hirurogei metro koadro dauzkagu eta etxean ez zaigu inor gehiago sartzen- edota arazo fisiologikoak direla –adin batetik aurrera haurdunaldiak arriskutsuak dira- bere nahia bete ezinik dagoenik. Eta azkenik bada besterik gabe, interesik ez duenik.

Bai, errazagoa suertatzen zait seme-alabarik izan nahi ez dutenen arrazoi eta argudioak azaltzea. Baina guk seme-alabak izatea erabaki genuen eta ez dakit “zergatik?” galderari erantzuten. “Seme-alabek zoriontasun ikaragarria ematen dizutelako” erantzungo du baten batek. “Seme-alabez gozatzeko” besteak. Bai, egia da, nago zoriontsuagoak garela Garazi eta Enara Fuhan gurekin daudenetik eta gure alabez ez ezik bizitzaz ere gehiago gozaten dugula

guraso garenetik, baina egia da, halaber, ez zarela horren jabe zure besoetan dauden arte. “Seme-alabak badituzu, zurea den zerbait utziko duzu mundu honetan, zure jarraipena izango dira nolabait esatearren” esan dezake urliak. “Animalia guztien antzera, guk ere espezieak iraun dezan nahi dugu, genetan daukagun informazioa da” esango du Sandiak. Eta bai, hori ere egia izango da, baina ez nau asebetetzen, azken batean, zer dela eta gure burua iraunarazteko gogo hori?

Bestalde, gizarteak ezartzen duen presio ospetsua dago, gero eta samurragoa dena, egia esan, gero eta gutxiago begiratzen baitiogu ondoko lagunari, baina oraindik bizirik dirauena. Badirudi adin batera iristen zarenan derrigorrez egin behar duzun gauza dela, mundura jaiotzean hartzen duzun zorra, hurrengo berrogei urteetan kitatu beharrekoa. Badirudi, seme-alabarik izan ezean norbait etorriko zaigula kontu eske, arrozaren kontu ospetsu horri tira eta tira. Lekukoa pasa behar da nonbait. Taldeko animaliak gara eta ez dago ondo ikusita taldeari ekarpenik ez egitea. Baliteke, bai, baina ez dut uste inor aita edo ama izango denik ingurukoen presioaren eraginez, eta hala balitz, ez zait oso erabaki azkarra iruditzen.

Ikusten duzuen bezala, ez naiz gai “zergatik?” galderari erantzun zehatz eta asebetetzeko moduko bat emateko. C’est la vie! Ezin izango ditugu beti erantzun guztiak eskuetan. Eta gure munduak eguzkiari bueltaka nola, hala jarraitzen du bizitzak, aurrera gelditu gabe, eta berarekin batera galderek.

“Noiz izan behar ditugu seme-alabak?” Larraitzek zuen galdetu.

Aingerutxoren erantzuna

Galdera ikurra duen oro ez da beti galdera eta berehala ohartu nintzen esaldi hark beste esanahi bat zuela, erraz imajina dezakezuena. Lehendabiziko aldia zen gaiari seriotasunez heltzen geniona eta baiezkoa eman nion. Berdin-berdin erantzun nezakeen ezetz, oraindik ez nengoela prest esanez edota arestian aipatu beste arrazoietakoa bat erabiliz. Eta balizko ezezko bat baiezkoa bezain zilegi eta zintzoa zatekeen, une hartan ezin bainuen irudika nire burua ume bat besotan nuela. Izan ere, nire barnean zerbaitek ezetz esan behar nuela xuxurlatzen zidan, oso goiz zela, gazteegiak ginela, denbora izango genuela aurrerago. Baina une hartan, marrazki

bizidunetako deabrutxoa eta aingerutxoa bezalaxe, beste zerbaitek baiezkoa eman behar nuela esaten zidan behin eta berriro. “Zergatik ez?”. Ez al zen egia nire buruari esaten niona, seme-alabak izan nahi nituela zioen kontu hura? Eta egia bazen, zertarako atzeratu erabakia?

Eta baiezkoa eman nion, seme-alaben bila hasiko ginen hala nahi izanez gero.

Zortea

Ez zen, baina, hor amaitu arratsalde hartako solasaldia. Di-da batean erabaki genuen guraso izan nahi genuela eta jarraian, atsedetik hartu gabe planak egiten hasi ginen, gurasotasunaren inguruko hura guztia munduko gauzarik errazena balitz bezala. Eta ezin uka neurri handi batean familia bat planifikatzea erraza ez denik. Gaur egun, zorionez, kontrol ikaragarria daukagu ernalkuntzari dagokionez. Gaur egun, noizean behingo ezusteak gorabehera, geuk erabakitzen dugu noiz, nola eta zenbat haur munduratu. Adina, etxea, hipoteka, lana, arazo ekonomikoak... aldagaiak dira ernalkuntzaren eragiketa honetan, oso kontutan hartu beharrekoak, baina zinez garrantzitsua dena gure gorputzaren gainean dugun erabateko kontrola da. Zorte handia dugu eta aprobetxatu behar ditugu gizarte honek eskaintzen dizkigun abantailak. Berrogei urte baino gutxiago ditugunok inoiz edo behin entzun behar izan dugu “zuek denetarik nahi duzue” edo “Zeurekoiak zarete oso, bakarrik zeuen buruengan pentsatzen duzue” bezalako esaldiak gu baino zaharragoa den jendearen ahotan. Baliteke egia izatea, eta hori dioenak arrazoi osoa izatea, baina beti galdetu izan diot nire buruari hitz horien atzean ez ote dagoen erresumin mingots baten antzeko sentimendu ezkutu bat, inbidia apur bat guk ditugun (eta izan ditugun) eta aurreko belaunaldikoek izan ez dituzten aukerengatik. Gure amonek jakin izan balute guk dakiguna, guk ditugun aukerak orain dela hirurogei urte izan balituzte, ziurrenik gutako asko eta asko ez geundeke mundu honetan. Baina tira, alferrik da ura joanda gero presa egitea, eta gaur eta hemen gaudenok gu gara. Eta sekulako pagotxa dugu gaur eta hemen bizitzeagatik.

Baten batek itsu izatea leporatuko dit. Sekulako arazoak ditugula, ez dagoela etxebizitza duin bat erosterik bizitza osorako hipotekatu gabe, hezkuntza sistemak ez duela funtzionatzen,

unibertsitatean ikasitakoa eta lan merkatuak eskatzen duena maiz ez datozela bat, gizarte ustel bat sortzen ari garela, elkartasunik gabekoa, Ameriketako Estatu Batuen isla ezin fidelagoa.

Baten batek dena kolore arrosaz margotu nahi izatea leporatuko dit, ez dudala aintzat hartzen hainbat eta hainbat arazo. Gaurko gazteak gurasoen habia goxoa –eta era berean, hertsia, hertsiegia ezer onerako- utzi ezinik dabiltzala, soldatak baxuak direla, lan duin bat aurkitzea lan nekeza dela eta euroaren kontuarekin ederki asko sartu zigutela ziria, geure barne kalkulagailuan euro bat ehun pezeta direla barneratzerainoko ziria.

Eta arazoak hor amaitzen ez direnez, baten batek errealitateari atzea ematen diodala esango dit, XXI. mendean egonik ere, oraindik emakumezkoek gizonezkoek baino diru gutxiago jasotzen dutela lan bera egiteagatik, oraindik langabeziaren putzura botatzen dituztela haurdun geratzeagatik, oraindik aitatasun zein amatasun bajak behar baino motzagoak direla, haurrak munduratzeagatik diru-laguntzak oraindik txikiak direla azken urteetako igoerak gorabehera.

Bai, “sekulako pagotxa dugu” esaldiari horrelako argudioekin erantzuten didanari esan behar diot ezen ez zaiola arrazoirik falta. Aipatu arazoak benetakoak dira, errealak bezain krudelak. Gure Europa zaharkitu honi adjektibo mordoa jar geniezaioke atzetik eta gehienak gutxiesgarriak lirateke. Gure lehen mundu zapaltzaile, ero eta basati honi nahi duguna lepora geniezaioke eta ziurrenik motz geratuko ginатеke. Haatik, zu eta biok, ene lagun estimatu hori, hemen jaio gara, lehen munduko biztanleak izatea egokitu zaigu eta zorte itzela izan genuela onartu beharra daukagu. Galdetu, bestela, erditzear egonik ere, patera edota kayuko batean sartzeko adorea duen emakume afrikarrari zer deritzon bere patuari eta zer gureari. Galdetu, bestela, engainaturik edo erdi bahiturik gure putetxeetan lan egiten diharduen Europa ekialdeko neska ilehoriari ea zenbat balio duen seme-alabak hona ekartzea. Horiek denek zorte handia dugula pentsatzen dute eta gauza bera nahi dute euren seme-alabentzat. Ez dira –ez gara- ohartzen benetako zortea gure baliabideak zein aukerak euren herrialdeetan izatea litzatekeela.

Ez nuke, baina, lar desbideratu nahi, ezta, beste liburu batzuetan bai baina honetan leku handirik ez duten eztabaidetan sartu nahi. Kontua da Larraitz eta biok geure familia planifikatzeko aukera eduki dugula eta lan horri lotu gintzaizkiola 2001eko udaberri-uda urrun

hartan. Eta lehenengo galderari erantzuna eman ostean, bigarrena iritsi zen: zenbat seme-alaba?

Bi edo hiru

Larraitzek argi zeukan ez zuela haur bakarra izan nahi, ziurrenik bere esperientzia ez errepikatzearen. Esan ohi da lagunak norberak aukeratzen dituela baina familia egokitu egiten zaizula, eta Larraitzi alaba bakarra izatea egokitu zitzaion. Niri, ordea, lau anaia-arreben hirugarrena izatea egokitu zitzaidan. Eta guk zenbat? Ba, ez lau eta ez bat, bi ia seguru, gehienez ere hiru. Hasiera hartan hirugarren bati ez genioen bidea guztiz itxi nahi izan. Artean ez genekien etxebizitzaren arazoak itxiko ziola balizko hirugarren seme-alaba bati.

Tira, ba, azkenik Larraitz eta biok heldu genion gaiari eta gai izan ginen erabakiak hartzeko. Unea iritsia zen eta gehiegi eztabaidatu gabe bagenekien zer egin nahi genuen. Horrelakoetan, hasierako nerbioak laxatzen direnean, galdera gehiago iritsi ohi dira. Nolakoa izango da? Imajinatzen al duzu zure burua haurraren gurditxoari tiraka? Zu eta gurditxoa argazki berean. Ez, ez duzu ikusten, argazki lausoa da. Zaila da, bai, horrelakorik irudikatzea, baina bestetan ez bezala, ez duzu berehalakoan ezabatu irudia, argazki lausoa ez duzu zakarrontzira bidali. Eta bi seme-alabarekin, imajinatzen al duzu zure burua bi seme-alabarekin? Irudikatu gabe jarraitzen duzu, bai, baina ezezkoa ez da bestetan bezain borobila. Galderak berberak dira eta, era berean, ezberdinak. Eta galdera horiek desirekin nahastuta datoz, elkarri eskua emanda. Osasunez etor daitezela. Nik mutila izatea nahi nuke. Niri izugarri gustatuko litzaidake neskato bat izatea. Horrelako desirak ohikoak dira aita eta ama izango zarela erabakitzen duzunean, are gehiago nahi hori gauzatu eta ama hardun geratzen denean. Hain ohikoa ez dena –nahiz eta, zorionez, jada ezer arrarorik ez izan- Larraitzen desiren zerrendan agertzen zen hurrengo atala.

- Bi seme-alaba izan behar baditugu, bietako bat adoptatua izatea gustatuko litzaidake.

Eta niri “Ah, bale” erantzutea besterik ez zitzaidan bururatu.

“Ah, bale!”

“Ah, bale”. Naturaltasun osoz. Ezjakintasunak eta axolagabekeriak ematen duen naturaltasunaz. Uste okerrek eta hausnarketa ezak bultzatutako baiezko ero eta natural-naturala. “Ah, bale”, bazkaltzeko tenorean ardo gorria beharrean beltza aukeratuko dugula esan balit bezala.

Nik egun haietan ez nekien txintik ere adopzioaren munduaz, ez nekien ezer halako erabaki batek eskatzen duen indarrak, pazientziaz eta diruaz. Ez nekien ezertxo ere, geure kaleetan gero eta neskato txinatar gehiago ikusten direla besterik. Ezjakintasuna ausarta dela diote eta guztiz egia da. Mezu eta irudi okerrak bidaltzen dizkizu, zuk ahoa zabal-zabalik amua irents dezazun. Errealitatea eraldatzen dizu latza dena eder ager dakizun, zaila dena erraz, aldapa dena lau. Nire kasuan ezjakintasunak adopzioaren mundua arrosa kolore ponpoxoz margotu zuen. Zein ederrak dira han eta hemen ikusten diren neska txinatar txikitxo horiek! Zein graziosoak! Eta ilea kizkur-kizkurra duten beltz horiek... denak maitagarriak! Zergatik ez genuen guk horrelako bat izan behar...?

Horrelakoa da ezjakintasuna eta horrela erantzun nuen nik. “Ah, bale” natural-natural batez. Agian, bidean zehar topa genitzakeen zailtasunen berri izan banu, adopzioaren munduaz gaur egun dakidana –ez gehiegi, hala ere, ez pentsa dakidana gure eta gure ingurukoen esperientziatik baino askoz haratago doanik- jakin izan banu, erantzuna bestelakoa zatekeen. Ez dakit eta ez dut inoiz jakingo.

Badakit, ordea, gaur egun dakidana jakinda, gaur egun ez nukeela zalantza izpirik ere izango eta nire “ah, bale” axolagabe hura baiezko borobil eta guztiz naturala izango litzatekeela, baiezko indartsu eta zirrikiturik gabea, jakinaren gainean dagoena eta ezagutzatik sortutakoa.

Eta bi baiezko hauek esanahi bera badute ere, alde ederra dago bien artean.

Begiradak

Internetek duen gauzarik onenetako bat berehalakotasuna da. Mundu osoa dugu esku-eskura klik gutxi batzuen buruan. Nahi dugun informazio guztia daukagu interneten, baina ozeano ikaragarri handia da sarea eta ez da erraza bertan arrantza egitea. Ez dut gogoan aita eta ama izango ginela erabaki genuen egun berean izan ote zen ala digestioa ondo burutzeko egun batzuk pasatzen utzi ote nuen, baina istorio honi dagokion hurrengo irudia ordenagailuaren aurrean ikusten dut. Ziurrenik Google-en “adopción” eta “internacional” hitzak idatziko nituen, ziurrenik ordu asko pasako nituen pantailaren aurrean, loari eta idazketari lapurtutakoak, eta ondo gogoan ez badut ere, badakit informazioa bilatzen hasiko nintzela, buru belarri hasi ere, dena berehala aurkituko nuelakoan, dena berehala aurkitu nahian, horrela jokatzeko baitut zerbait kaskezurrean sartzen zaidanean. Egun haietan lehenengo aldiz izan nuen NAEL-en berri –Nazioarteko Adopziotarako Elkarte Laguntzaileak, gazteleraz ECAI ospetsuak- bai eta egokitasun agiriaren berri ere. Hamaika web orri bisitatu nituen, hitz eta kontzeptu ezezagunez beterikoak. Artean ez nintzen ohartzen ikusten nuena izeberg handi baten punta baino ez zela. Eta horrela ibili nintzen harik eta patuak Ume Alaia elkartearen informaziora eramanez ninduen arte.

Interneten egiten diren aurkikuntza garrantzitsu ia guztien antzera, nirea ere kasualitate hutsa izan zen. Web orrialde batek hurrengo asteburuan bertan egitekoa zen Nazioarteko adopzioari buruzko hitzaldi baten berri ematen zuen. Gainera, ez zen hitzaldi solte bat, hiruzpalau baizik, Donostian bertan egin beharrekoak. Aukera ezin hobea genuen lehen eskuko informazioa jasotzeko eta joango ginela erabaki genuen.

Larunbata zen eta ni bakarrik –orain ezin gogoratu zer dela eta ez zen Larraitz etorri-hurbildu nintzen Intxaurrendora. Hitz-ordua Intxaurrendoko kultura-etxeko areto batean zen, goizeko hamaiketan, eta jada hasita zegoela iritsi nintzen. Lehenengo oroitzapena, iltzatuta geratu zitzaidan lehenengo irudia, haurtzaindegia izan zen. Haur asko zeuden han, arraza eta kolore askotarikoak, euren gurasoak hitzaldiari adi zeuden bitartean bukaera aldean jolasean ari zirenak. Ohi bezala, azken ilaran esertzea erabaki nuen eta ezin izan nuen lekuz kanpo nengoelako sentazioa ekidin, neu bainintzen bikoterik edo haurrik gabe bertaratu zen bakarra. Eta gogoan dut haur haiek nire ondotik pasatzen zirela gurasoengana joateko eta nik irribarre lelo batez begiratzen niela. Gurasoek berehala bidaltzen zituzten etorritako bidetik,

hitzaldia entzuten ari zirela eta mesedez atzera joan zitezela jolas egitera, eta bueltako bidean nik adi-adi begiratzan nien, haien begiradak hizlariaren hitzak baino interesgarriagoak balira bezala. Euren jatorri ezberdinak, besterik gabe, zerbait berezia emango balie bezala, urrun jaiotzeagatik, beste arraza batekoak izateagatik edota begi urratuak izateagatik miresmen berezia mereziko balute bezala. Orain badakit oker nengoela. Haur haiek ez ziren ez bereziak ez ezberdinak ere. Haur haiek Euskal Herrian jaiotako edozein haur bezalakoak ziren.

Neure begirada zen aldatzen hasia zena. Baina horretaz, jakina, beranduago ohartu nintzen.

Non geratu ziren irribarreak?

Lehenengo oroitzapen hura –adoptatutako haurrak jolasean- politena izanagatik ez da egun horretan iltzatuta geratu zitzaidan bakarra. Bigarren oroitzapena ere gordeta geratu zitzaidan baina lehenengoak ez bezala, bigarrenak gutxi du ederretik. Izan ere, Txarako bilera aretoan bildu ginenon asmoa bestelakoa zen eta haurrak atzeko aldean jolasean ari ziren bitartean, aurreko aldean psikologo bat adopzioaz ari zen. Psikologo hark ez zuen tramiteez hitz egiten, atxikimenduaz zein loturaz baizik, eta bete beharreko paperez hitz egin beharrean, motxila baten inguruan hitz egiten zuen, harriz zein arazoz beterikoa.

Lehenengo aldiz “abandonatu” aditza entzun nuen eta horma baten kontra talka egitea bezalakoxea izan zen. “Abandonatu”, bitxia da oso aditz horrena. Hain da nabarmena, hain mingarria non maiz ahaztu egiten baitzaigu –edota ez dugu gogoratu nahi- adopzio orenen atzetik haur bat dagoela abandonaturik. Adoptatutako haur orenen atzean sufrimendu latz baten istorioa dago, baina ez dugu ikusten, ez dugu ikusi nahi izaten, hain dira itsusiak aditz horrek gure gizartean dituen konnotazioak. Baina hor dago, gure seme-alaben irribarreek gehienetan ezkututzen badute ere.

Talka, ordea, ez zen aditz baten kontrakoa soilik izan. Psikomotrizitate arazoak, haur estresatuak eta hiper-aktiboak, burua balantzaka etengabe mugitzen duten haurrak, hortzak kirrinkatzen dituzten haurrak –bruxismoa-, tratu txarrak, maitasunik gabeko haurrak, arrazakeria... Psikologo hark nik adopzioarekin lotzen ez nituen hitz asko mahairatu zituen,

balizko arazoan zerrenda amaigabea. “Ez du zertan baina gerta daiteke eta horrelakoak gertatzen dira”. Eta arrazoi osoa zuen psikologoak, bazekien, ondo jakin ere, zertaz ari zen.

Orduan zeure buruari galdetzen diozu ea non geratu diren kaletik ikusten diren neskato txinatar eta euren irribarre zabalak, non mulato ilekizkurrak eta euren begi beltz bizi-biziak. Et,et,et... eta zuri nork agindu zizun denak horrelakoak zirela? Eta orduan psikologoa hiru eta lau urteko haurrez hitz egiten hasten da, sei, zazpi eta zortzi urteko haurrez, hamar, hamabi eta hamalau urteko gaztetxoez, umezurtz etxe batean bizitza osoa eman duten eta egunen batean kale gorrian geratuko diren neska-mutikoez, “familia” edota “maitasun” hitzen esanahia ezagutzen ez duten haurrez, gure soziologia fakultateetan familiaren desegituraketaren inguruan eskola magistralak eman ditzaketen gaztetxoez, zainketa bereziak behar dituzten haurrez, gaixotasun kronikoak dituztenez, edota besterik gabe, ezkerreko eskuan bost beharrean sei hatz izateagatik adoptatua izateko zailtasunak dituen neskatoaz.

Eta bukaeran gogotik desiratzen duzu psikologoak hitzaldiari lehen baino lehen bukaera eman diezaion eta atzean dauden haurren irribarreak itzul daitezen.

Haatik, errealitatearen hormaren kontrako talka horren mina ez da berehala desagertzen. Hor geratzen da. Psikologoak azaldu zuen hura ere, desatsegina izanik ere, adopzioa da. “Abandonatu” aditza ere adopzioa da.

Zoritxarrez, errealitateak zerikusi gutxi du ametsekin.

Errusia, India, Kolonbia

Hurrengo hilabeteak apur bat arraroak izan ziren, edo behintzat halako sentsazioa daukat. Azkenik, errealitatea ez zela uste bezain polita eta arazoak egon zitezkeela ohartu baginen ere, burua altxatu eta aurrera egitea erabaki genuen. Aita eta ama izango ginen eta bi haur izan nahi genituen, bata biologikoa –artean ez genekien gai izango ote ginenentz, zailtasun fisikorik ote genuenentz- eta bestea adoptatua izango zela. Luze gabe gure borroka partikularrari ekin genion. Alde batetik prebentzio neurriak hartzeari utzi genion eta bestetik adopzioaren bidea aztertzen hasi ginen, herrialde bakoitzak eskatzen zituen betebeharrak zeintzuk ziren jakiteko

asmoz. Bitxia bada ere, hasierako plan haietan Txina ez zegoen gure lehentasunen artean. Izan ere, sarean irakurri ahal izan genuenez, Txinan adoptatu ahal izateko baldintzetako bat hogeita hamar urte beteak izatea zen eta niri gutxi falta bazitzaidan ere -2001eko abenduan beteko nituen-, Larraitzi bi urte luze geratzen zitzaizkion. Gainera, neuk Errusiari halako sinpatia berezia nion. Horrelakoetan bihotzari jaramon egitea gomendatzen dute eta ni bihotzak Errusiarantz bultzatzen ninduen, hara joan behar genuela adoptatzera. Ziurrenik bulkada horren atzetik nire iragan sasi-boltxebikearen lorratzak zeuden, gazte garaietan paparrean atxikita neraman bost puntadun izar gorria, amerikarren aurka galdutako gerra ideologiko guztien nostalgia eta lurrean kondenatu diren langile tristen aldeko jarrera sasi-ezkertiarra. Nire sinpatia hark "baina" bakar bat zeukan, "baina" absurdu eta txatxu bat, hizkuntzaren arazoa, hain zuzen. Ez dakit zergatik baina egun haietan hizkuntza arazo bilakatu zitzaidan ohartu gabe, Hegoamerika alde batera utzita, munduko edozein lurralde aukeratuta ere arazo berbera topatuko nuela. Tira, ba, inor ez dago irrazionaltasunetik salbu...

Larraitzek ere bazituen lehentasunak. Bata India zen. Bestea Kolonbia. Ez zuen, ordea, motibo berezirik bi herrialde haiek aipatzeko unean. Indiarekiko halako miresmen bat baino ez -detalle garrantzitsua da hala ere, komeni baita zure seme-alabaren lurraldearekiko zerbait sentitzea - eta Kolonbian adopzioak ondo funtzionatzen zuelako ustea -aipa dezagun, bidenabar, uste hura ez zela ustela, adopzioari dagokionez Kolonbian gauzak mantso baina txukun egiten baitituzte-. Niri bi proposamen haiek ez zidaten ezer berezirik eragiten, ez bero eta ez hotz, baina Kolonbiak hizkuntzaren arazoa konpontzen zuen. Horrelako bidaia luze bat -hausnartzen nuen- egin behar baduzu, atzerrian denboraldi luze batez egon behar baduzu, aukeran hobe da bertako hizkuntza ezagutzea. Berriro ere, nire beldur txatxu eta logikorik gabekoa... Eta zein lurraldetan adoptatu behar genuen erabakitzeke bidaia hartan, Intxaurrendoko NAEL batera hurbildu ginen Bulgariari buruzko informazio eske oker ez banago. Haatik, nago aukera hura ez zela oso erreala izan, "bada ez bada ere" bat baino ez.

Tira, ba. India, Errusia eta Kolonbia izan ziren aukerak hastapenetan. Alde onak eta txarrak aztertzen ibili ginen, informazioa bilatzen eta gordetzen. Zeintzuk ziren bete beharreko baldintzak, zeintzuk gastuak, zeintzuk arazoak, zenbat denbora itxaron behar genuen, zenbat ziren egin beharreko bidaiak... asko ziren hausnartzeko gaiak. Bizkitartean, beste aukera, seme-alaba biologikoa izatekoa, baztertu gabe jarraitzen genuen.

Bietako bat

Seme-alaba biologikoaren fronteak zabalik jarraitzen zuen eta honek uste baino garrantzia handiagoa zuen ezen, ordurako jakin baikenekien adopzioaren bidea itxi beharko genuela Larraitz haurdun geratuz gero. Izan ere, haurdun geratuz gero paradoxa makur bat ez ezik arazo administratibo potolo bat ere izateko aukera zegoen, alegia, bigarren seme-alaba lehenengoa baino lehenago jaiotzea izana eta horrek ez dauka logika handirik.

Horrexegatik esan dut arestian hilabete arraro samarrak izan zirela haiek. Bi fronteak irekita genituen eta, era berean, bietako bat itxi beharko genuela jakin arren zalantzaz beterik genuen zeini lehenago heldu. Alde batetik, ez genuen neurririk hartzen. Bestetik, informazioa jasotzen eta erabakiak hartzen hasiak ginen nahiz eta adopzioarako lehenengo urratsa – alegia, Gipuzkoako Foru Aldundian eskaera egitea- artean ez eman. Egoera arraro hartan murgildurik iraun genuen harik eta horrela ez genuela jarraitzerik erabaki genuen arte. Zirt edo zart egin behar genuen. Aurrera edo atzera. Haur bat adoptatzeko ideia ahaztu edo ideiarri behin betiko eutsi. Neurriak hartu gabe jarraitu edo berriro pilulak hartzen hasi. Bietako bat.

Handik gutxira, 2001eko irailaren hondarreko egun batean, Larraitz eta biok Txara eraikinera hurbilduko ginen haur bat adoptatzeko eskaera betetzeko asmoz. Herrialdea idazteko unea iritsi zenean, Kolonbia idatzi genuen, batik bat biderik ziurrena iruditu zitzaigulako.

Hari gorriaren kondaira

Garai haietan ez genuen txinatarrek hari gorri bati buruz kontaktzen duten kondairaren berri. Ziur nago ezen jakin izan bagenu, kondaira horri leporatuko geniola, zalantza izpirik gabe, hurrengo egunetan gertatutakoa. Txinatarrek diote hari gorri batek lotzen dituela bizitzan zehar elkartu behar duten pertsonak. Hari gorri ikusezin hori korapilatu daiteke baina sekula ez da apurtuko eta, azkenik, elkartu behar duten pertsonak elkartu egingo dira. Batek daki. Agian kondaira hori sinetsi beharko genuke. Agian gure haria, Enararekin lotzen gintuen hari gorri ikusezina, ondo korapilatuta zegoen eta denbora gehiago behar zuen askatzeko. Kondaira

sinetsi ala ez, kontua da urrian etorri behar zuen hileroko bisitariak huts egin zuela eta bere ordeztu garbantzuko txikitxo bat utzi zigun opari, handik bederatzi hilabetera Garazi bihurtuko zena.

Bai, halaxe izan zen. Garazi lehenago jaio zen mundura. Predictor izeneko tramankulu ospetsuak jakinarazi zigun, larunbat goiz batean ohean etzanda geundela, Larraitz haurdun zegoela, eta egia esan behar badizuet, hasiera batean ez zidan grazia handirik egin. Ohean buelta eman nuen eta “ederki” esan nuen, apur bat amorratuta. Majo kostata erabaki bat hartu ondoren, gure plan guztiak ezerezean geratuko ziren. Haatik, nago amorru txiki haren atzetik halako beldur bat zegoela ezkutaturik, bat-batean halako bertigo batek harrapatu izan banindu bezala. Bat-batean, gizakiok izan ohi dugun kontraesan horietako baten erdian nengoen murgilduta. Haur bat izan nahi genuen eta bost axola zitzaigun Parisetik zuzenean etorri edo Bogotako aireportuan eskala egin ostean iritsi. Pozik egon behar nuen, bai, baina hura ez zen erabakitakoa. Eta poza iritsi bazen ere, apur bat berandutu zen. Ezin zehatz dezaket ordubetez ala egun pare batez berandutu ote zen, baina azkenik lortu nuen amorrua eta bertigoa uxatzea. Eta nago geure modura ospatu egin genuela garbantzuko txiki haren etorrera eta, berriro ere, erabakiak hartzen hasi ginela, ilusioz beteriko erabakiak, hala nola, noiz esan familiari, nori helarazi gure poza eta nola jakinarazi berria.

Gabonak iritsi arte sekretupean gordeko genuela erabaki genuen. Hartara, haurdunaldia ondo zihoala baieztatu ahal izango genuen –lehenengo asteak omen dira arriskutsuenak abortu naturala izateko- eta berria denei batera emateko aukera izango genuen. Alabaina, egon bazegoen bestelako arrazoi bat berria Gabonak iritsi arte gordetzeko. Halako batean berria emateko era original eta polit bat bururatu zitzaigun, Gabonetako opariekin zerikusia zuena.

Kontua da orain dela urte batzuk, familia gero eta handiagoa zela ikusita, gure amak –zeinek bestela!- jakinarazi zigun kokoteraino zegoela gabonetako oparien ardura bere gain hartzeaz. Dirutza ederra xahutzen zuen arren, aurrekontuak ez zuen gora egiten eta urtetik urtera opariak gero eta eskasagoak ziren jende gehiagoren artean banatzearen poderioz. Handik aurrera “lagun ikusezina” erabiliko genuela esan zuen, zerrenda eta guzti, eta guk, jakina, amen egin genuen. Emozioa galdu genuen baina gure amak lasaitu ederra hartu zuen.

Beno, bada, gabon haietan gure opari zerrendan, ohiko liburu eta diskoen artean ezkutaturik, “pixa-oihalak” hitza tartekatu genuen.

Eta gezurra badirudi ere, egon zen mezua berehala ulertu ez zuenik.

Handik gutxira, baina, iritsi ziren zorionak eta musuak, “bazen garaia, motel!” eta “kostatu zaizue, ba!” guztiak.

Garazik irakatsi zidana

Haurdunaldiaz ez du merezi gehiegi luzatzea. Dena ondo joan zen, adopzioaz ahaztu egin ginen bolada luze batez eta gure pentsamendu guztiak desiretatik beldurrerainoko tarte zabalean joaten ziren alderik alde, ziztu bizian joan ere, galderak han eta hemen utziz. Gai izango al ginen ondo zaintzeko eta hezteko? Nolakoa izango ote zen? Osasuntsu jaioko ahal da! Eta bikiak balira, zer?

Galdera mordoa egiten diozu zeure buruari haurra noiz jaioko zain zauden bitartean. Ez nekiena zen galderak sekula ez direla amaitzen eta gehienetan ez dutela erantzun zehatzik.

Baina tira, gure zalantza, nahi eta galderekin ezaxola, Garazik goxo-goxo iraun zuen amaren sabelean harik eta 2002ko uztailaren 29an bazela garaia kanpoan zer zen ikusteko erabaki zuen arte, eta horrela, egun bat geroago, goizeko ordu bi eta erdietan, Garazi jaio zen mundura.

Hortik aurrerako guztiak normaltzat jotzen direnak izan ziren. Lehenengo hamabost egunak gogorrak izan ziren oso, batez ere Larraitz leher eginda zegoelako, eta Garazik negar asko egiten zuelako. Dena berria zen eta ikasi behar izan genuen bizitza berriari aurre egiten. Ordutegiak, otorduak, loaldiak... den-dena berria zen. Eta, jakina, gure haurra maitatzen ere ikasi behar izan genuen, maitasuna ez baita ziztuan iristen den gauza bat. Poza bai, berehala iristen da, eta ikaragarria izan zen Garazi jaiotzean sentitu nuena, baina nago ez zela bat-bateko maitasun irrazional eta baldintzarik gabekoa. Edo agian, bai, bada maitasuna sentitzen nuena, baina ez ordura arte ezagutzen nuena. Sentimendu berri bat zen, arraroa eta ezezaguna. Maitasunak, orain ezagutzen dudanak, denbora apur bat gehiago behar izaten du, edo behintzat hala izan zen nire kasuan. Beti iristen bada ere, ez da berehala agertzen. Hain da sarria zure barnean duzun sentimendu basoa non zaila egiten zaio iristea. Baina azkenean iristen da, eta egun batean “maite zaitut” esan diozula ohartzen zara...

Orain, denborak ematen duen talaiatik, ezberdin ikusten ditut Garaziren jaiotza eta Enararena. Enararenganako maitasuna azkarrago iritsi zelakoan nago eta hori Garaziri zor diot hein handi batean. Izan ere, Garazik -ohartu gabe jakina- erakutsi baitzidan bidea, Garazik irakatsi baitzidan nire barneko sentimenduak bereizten.

Elefante baten haurdunaldia

2004ko udazkena-edo izango zen berriro ere familia proiektuaren hurrengo urratsa emateko garaia zela erabaki genuenean. Garazik bi urte bete berriak zituen ordurako, eta ia hiru urte lehenago hasi baina bukaeraraino ibili ez genuen bideari berrekiteko ordua zela erabaki genuen. Jakina, ez zen egun batetik besterako erabakia izan. Ez zitzaigun, ez, zeruko aingerurik agertu hura zela unerik egokiena ohartarazteko eta martxan jar gintezen, berandutu baino lehen, agintzeko. Inon egotekotan, egutegietan zegoen gure erabakiaren oinarria, izan ere, kalkuluak egiten hasi baikin.

Adopzio prozesu batek luze jo ohi du eta gehienetan ez dago zehazterik zenbat denbora emango duen. Burokrazia astuna da toki guztietan eta paper mordoak bete behar izaten da. Burokrazia bikoitza da, gainera, gure lurraldeko agintariak eskatutakoa ez ezik, haurraren jatorriko lurraldekoak ere bete baitira. Gure kalkuluek zioten gutxienik bi urtez luzatuko zela eta hortik gora. Elefante baten haurdunaldia izango zen ia. Bigarren seme-alaba etortzerako Garazik lau urte izango zituen, deskuiduan bost. Kontutan hartu behar genuen, baina, adoptatuko genuen haurra ez zela jaioberria izango. Txiki-txikia izan zitekeen, bai, baina gutxien-gutxienik sei hilabete izango zituen. Haatik, apur bat koxkortuagoa izateko aukera ere bazegoen, bi edo hiru urte izan zitzakeen, muga bakarra Garaziren jaioteguna baitzen. Eta guretzat garrantzitsua zen Garazi eta etorriko zenaren arteko aldea handiegia ez izatea. Neba-ahizpen arteko adin diferentzia txikia baldin bada, errazagoa dute elkarrekin olgetan ibiltzea eta dibertitzea. Etorkizunerako ere mesedegarri irizten genion tarte handiegirik ez egoteari. Tarte, esaterako, bospasei urtekoa baldin bada, zaharrena nerabetasunera iristen denerako gazteenak haurra izaten jarraituko du. Halaber, txikia nerabetasunera iristen denerako, zaharrena pertsona heldua izango da ia.

Baliteke oker egotea eta gurea funts gutxiko ustea izatea –aita naizenetik ikasi dut ezen, hartzen duzun erabakia hartzen duzula, beti topatuko duzula gaizki ari zarela gaztigatuko dizun psikologoa- baina neba-ahizpen arteko harremana errazagoa suertatuko zelako uste horrek lagundu zigun martxan jartzeko ordua zela erabakitzeke.

Eta ia hiru urte lehenago egin bezala, presarik gabe, bai, baina behin ere gelditu gabe, tirrikittarraka, informazio bilketari ekin genion.

Harri gorria berriro tiraka

Urteak ez dira alferrik joaten, baina. Bizitza ez da gelditzen eta munduak ez dio jiratzeari uzten. Hiru urte lehenago, 2001ean, gauzak argi genituen eta Kolonbian adoptatuko genuela uste genuen. Hiru urte beranduago, 2004an, gauzak jada ez zeuden hain argi. 2001ean Errusia eta India, guregan sortzen zuten miresmena gorabehera, alde batera utzi genituen. Errusiari buruz irakurritako istorioek ez ziguten konfiantza handirik ematen, bi bidaia egin behar ziren eta gogorregia iritzi genion haurra ezagutzera joan eta gero, han utzi behar izatea epaile batek adopzioaren ebazpena eman arte. Gainera, garrantzitsuena ez izanagatik, askoz ere garestiagoa zen.

Indiari dagokionez, ezin gogora dezaket zehazki zerk bultzatu gintuen alde batera uztera. Adopzioa ez zen erabatekoa –etxera itzultitakoan gauzatu behar zen adopzioa- baina ez dut uste hura arrazoi nahikoa izan zenik. Egongo zen besteren bat, baina ezin den-dena eta zehatz-mehatz gogoratu.

Kontua da 2001ean Kolonia aukeratu genuela, batik bat, interneten bidez irakurtzen genuenak konfiantza handia ematen zigulako. Kolonbiarrek mantso baina seriotasunez egiten zituzten gauzak. Ez zen gorabehera handirik egoten eta eman beharreko urratsak argiak ziren. Kolonbiarekiko lotura afektiborik ez bagenuen ere, alde praktikotik begiratuta, ez zegoen dudarik batere, aukera ona zen. Haatik, arestian esan bezala, denbora ez da alferrik pasatzen, eta hiru urte haietan Garazi jaiotzeaz gain bestelako gertaerak izan ziren. Haietako batek Kolonbiarekin izan zuen zerikusirik eta ez zen oso berri ona izan. Berriro ere barkatu beharko didazue zehaztasun gehiegirik ez ematea. Oraingoan ondo asko gogoratzen dut gertatutakoa,

ez da memoria txarra isiltzera behartzen nauena baizik eta diskrezioa, izan ere, gertaera hark ez zuen eragin zuzenik izan guregan, gertuko pertsona batengan baizik, eta ni zuen aurrean "biluzteko" prest egoteak ez du esan nahi inguruko sekretu zein istorioak kontatu behar ditudanik. Esan dezagun, beraz, gertaera txar batek gaiztotu zuela familiak Kolonbiari buruz zuen iritzia eta horrek aukera bertan behera uztera eraman gintuen. Esan dezagun, beraz, Kolonia baztertzeko tenorean sentimenduek praktikotasuna baino pisu handiagoa izan zutela.

Edo esan dezagun, zergatik ez, hari gorri bat, tinko eta irmo, hasi zela ekialderantz tiraka - gu ohartzeko, jakina-.

Zergatik Txina?

Kolonia utzi eta Txina aukeratzea bata bestearen atzetik etorri zen. Zergatik Txina? Zergatik hasieran ez eta bi urte pasa ostean bai?

Bada, nago hiru izan zirela arrazoiak. Lehenengoa AFAC -Asociacion de Familias Adoptantes en China- elkarteko web orrialdeko foroan izena ematea izan zen. Web orrialdea lehenagotik ezagutzen genuen, informazioa biltzen ibili ginen garaietatik hain zuzen, Txinan adoptatu nahi duenarentzat aipatu web orrialdea erreferentzia garrantzitsua baita, baina artean foroan izena eman gabe geunden. Foro honetan dagoeneko haurra ekarri duten familiek zein adoptatzeko asmotan daudenek mezuak elkartrukutzen dituzte eta bertan irakurri genituen mezuek bultzakada ederra eman ziguten. Izan ere, ia denak norabide beretik zihoazen. Denek nabarmentzen zuten prozesuaren garbia eta gardentasuna, denek esaten zuten ez zegoela gorabeherarik, ez zegoela arazorik eta, izatekotan, txinatarrak ziztu bizian saiatzen zirela konpontzen. Bidaia zoragarria izango zela, erregeen pare hartuko gintuztela, eta haurrak ondo zainduta ez ezik espero zitekeena baino osasuntsuago egoten zirela.

Gerora frogatu ahal izan dugu egun haietan irakurritako guztia egia biribila zela. Eta gerora jakin ahal izan genuen zergatik izan den eta den horrela. Baina horretaz aurrerago hitz egingo dizuet, ondo baderitzozue, bidaiaren nondik norakoak kontatzearekin batera.

Kontuz, baina, honekin ez dut esan nahi arazorik egongo ez denik ezta Txinan haur bat adoptatzea munduko gauzarik errazena denik. E-mail haien artean mezu lazgarriak irakurri ahal izan genituen. Istorio benetan latzak, arazo potolo samarrak, bizitza aldatzen dizkizuten gertakari zoritzarrekoak. Horiek ere irakurri genituen, baina mezu positiboen aldean gutxi izan ziren. Eta era berean, Txinan adopzio prozesua garbia eta gardena dela esatean, ez dut esan nahi beste herrialdetan gauza bera gertatzen ez denik. Nago mundu txiki honetan ere denetarik dagoela eta adoptatutako haur bakoitzak bere prozesua duela. Ez dago konparatzerik.

Hori bai, guri sekulako bultzakada eman zigun prozesua Txinan burutu zuten ia guztiek balorazio ezin hobea egiten zutela jakiteak.

Bigarren arrazoa –agian gehien konbentzitu gintuena, agian praktikoena- gure komunikabideetan urtean bitan agertzen den berria izan zen, alegia, Nazioarteko adopzioak gora doazela gurean eta Txinatik iristen direla ume gehienak. Datuari garrantzitsua iritzi genion, etorkizunari begira hobe zela talde handiago baten kidea izatea. Ez dakigu zer sentituko duten hamabost-hogei urte barru gure seme-alabek. Ez dakigu nola biziko duten euren iragana, ez dakigu gai izango ote diren motxila ospetsuaren zama laguntzarik gabe garraiatzeko. Eta gerta liteke arazorik ez egotea, eta adoptatua izateak, iraganean Txinako umezurtz-etxeetatik atera genituen ehunka haurretako bat izateak garrantzirik batere ez izatea, anekdotarik izan gabe anekdota balitz bezala bizi ahal izatea. Horixe nahiko genuke, alajaina!

Baina gure nahiak ezin gaitzake itsutu zeren baitakigu jakin justu kontrakoa gerta litekeela. Gerta liteke, esaterako, bere motxilaren zamari ezin aurre egitea, gure sentimenduak eta bereak bat ez etortzea, munduarekin erresuminduta bizitzea. Hori ere gerta liteke, ez baitu eraman erraza izan behar behinola zure ama biologikoak kale bazter batean utzi zintuela jakiteak, ezberdintasuna begietan idatzita daukazula sumatzeak, aurpegira begiratzen dizutenek zure iraganaz zuk bezainbeste dakitela –dena eta, era berean, ezertxo ere ez-ohartzeak. Eta horren aurrean zer egingo ote genuke hausnartzean, zera erabaki genuen, bada ez bada ere, hobe zela Enara bezalako haurrak ahalik eta gertuen edukitzea, komunitate handiago baten kide izatea.

Ez dakigu etorkizunean zalantza hauek guztiak absurdutzat joko ote ditugun baina guri baliagarria izan zitzaigun Txinaren aldeko apustua egiteko orduan.

Bada, azkenik, hirugarren arrazoi bat, nahiz eta besteen aldean azalekoa izan. Izan ere, informazio bila hasi eta AFACeko web orrialdeko foroan izena eman genuen geroztik, argazki piloa ikusteko aukera izan genuen, eta argazkiak ikustea da aita-ama izan nahi duenarentzat gauzarik arriskutsuena. Asignazio txanda bat iristen zen bakoitzean guraso berriek argazki mordoa eskegitzen zuten foroan, denak antzekoak. Neskato musu triste eta zurbilak agertzen ziren argazkiotan, ile gutxikoak eta argalak, baina denak maitagarriak. Eta argazki horiek ikusi eta beraiekin ez maitemintzea ia ezinezkoa da...

Beraz, aipatu hiru arrazoi hauek daude gure aldaketaren atzean. Zenbat eta gehiago hausnartu, orduan eta argiago genuen Txinara joango ginela gure seme edo alabaren bila, han, nonbaiten, Txina erraldoi eta urruneko bazterren batean –artean ernaldu eta jaiio gabe- zegoela gure seme-alaba izango zenaren zerbait. Alde onak baino ez genituen ikusten: prozesua itxuraz garbia zen, erraza eta ezusterik gabea, sekretu eta bitartekorik gabekoa, eta ziurrenik neskato txiki eta osasuntsu bat emango ziguten. Alde “txar” bakarra, nolabait esatearren, neskatoaren begi urratu horiek ziren, eta orain hobe dut tentuz ibiltzea eta ondo baino hobeto azaltzea, gai mingarria izan baitaiteke.

Begi urratu horiek

Alde batetik adoptatu nahi duten gurasoak daude eta bestetik –nazioarteko adopzioaz ari garelarik- haurraren jatorrizko herrialdea. Eta eragiketa honetan argi dago gurasoek herrialde bat aukeratzean arraza bat ere aukeratzen dutela. Bada haurrak beraiekiko ahalik eta antz handiena izatea nahi duen gurasorik eta horrelako kasuetan, normalena Europako ekialdean adoptatzea da. Bada herrialde zehatz batekiko halako lotura sentimentala sentitzen duen gurasorik eta, jakina, herrialde zehatz horretara joko dute. Etiopian edota Madagaskarren adoptatu nahi duenak badaki txartel guztiak dituela bere seme-alabaren azalaren kolorea ikatza bezain beltza izateko, eta era berean Ertamerikara joko duenak badaki txartel guztiak ez baina bai txartel asko dituela haurraren kolorea gure azal zuria baino ilunagoa izateko. Nork bere hautua egiten du eta denak dira zilegiak. Nork bere burua ezagutzen du ondoen, eta norberak badaki zer dagoen onartzeko prest eta zer ez. Eta hau guztia diot badakidalako gure seme-alabaren azalaren kolorea sufrimendu iturburu izan daitekeela. Elkartasunaren gizartean bizi

gara, bai, ongi izatearen paradisu –matxuratu samarra, baina paradisu, azken batean-zoragarrian. Odola ematean lehenengoak omen gara, eta transplanteetarako organoak emateko garaian ere gu txapeldunak omen. Lehen munduko biztanle zoriontsu bezain estresatuak gara, baina adi, ondo sustraituta daukagu arrazakeriaren harra eta ez du ematen akabatzeko gai izango garenik. Are gehiago, nago etorkizunak arrazen arteko –hala klase arteko esan beharko ote genuke?- talka bortitz gehiago ekarriko dituela. Eta mundu honetan hazi beharko ditugu gure seme-alaba adoptatuak.

Ezagun da haurrak gaiztoak direla euren ezjakintasunean eta ezagun da, halaber, nerabezaroa garai zaila dela oso, zailena ez bada. Haurtzaroan zein nerabezaroan min ikaragarria eragin diezaiokegu ondokoari, batzuetan ohartu gabe eta besteetan gure ekintzen jabe. Nor ez da trufatu haurtzaroan ikasgelako neska-mutilik potoloenaz, nork ez dio burla egin ikasgai guztiak zekizkienari, betaurreko potoloak zeramatzanari, ezberdina zenari? Denok izan gara haurrak, batzuk bihurriagoak besteak baino, batzuk lasaiagoak besteak baino, baina ia denok egin dugu gaiztakeriaren bat edo beste, ia denok sufriarazi dugu norbait. Egun, kasurik lazgarrienei “Bulling” esaten diogu –izena duen oro zerbait bada, aurreratu dugun seinale-baina ez da gaurko kontua. Etorkizun ez oso urrutian gure seme-alabak izango dira ikasgelako diferenteak, hortxe izango dute ahulgunea. Jolastokian gure seme-alaba adoptatuak “txinatarra”, “beltxa”, eta “beltzarana” izango dira ezinbestean. Gure lana –gurasoena zein Hezkuntza sistemarena- izen horiek positibo bihurtzea izango da.

Baina berriro diot, arrazakeriaren kontrako borrokan galtzaile izango garelakoan nago. Zer gertatuko da auzoko dendariak han-hemenka perretxikoen pare zabaltzen ari diren Txinatarren dendatan dena merkeagoa dela esanez kexu azalduko diren egunean? Zer esango dute zortetik gabekoek babes ofizialeko etxeen zozketatan etorkin hegoamerikarrek behingoagatik zortea alde izan dutela ikustean? Zer pentsatuko dute askok aldamiara igotako langileen azal beltza ikustean? Badakigu zer erantzungo duten marraztutako etorkizuna oraina baita jada. Entzunak dauzkagu erantzun horiek denak. Lehenengo etxeakoak eta gero kanpokoak. Guri lana kentzera datoz. Frantzia frantziarrentzat zioen Le Penek eta argi dago ur lohitsu horietan elikatzen direla hala faxismoa nola arrazakeria.

Eta gure seme-alaba adoptatuak erdian egongo dira, arrazakeria gaitzesten duen mundu arrazista bateko kideak izanik baina gehiengoaren arrazakideak izan gabe. Arestian ahulgune

hitza erabili dut gure seme-alaben arraza harira, ez nik ahulgunetzat hartzen dudalako, min eman nahi duenak halaxe ikusiko duelako baizik. Gure seme-alabek ahulgune hori aukera bihurtu beharko dute, kikildu beharrean harrotasunez onartu beharko dute ezberdinak direla, ezberdinak besterik gabe, adjektiborik gabe, goitizetik gabe. Gure lana bide horretan makulu izatearena izango da. Ez da lan makala, gero!

Atal honen hasieran esan dut nork bere burua ezagutzen duela ondoen eta norberak dakiela inork baino hobeto zer dagoen onartzeko prest eta zer ez. Denok nahi dugu gure seme-alabak zorientsuak izan daitezen eta horretara bideratzen ditugu gure urrats guztiak. Euren zorientasuna gurea izango da, bai. Alabaina, bizitza hau ez da sekula samurra izan, eta, gure ahalegin guztiak gorabehera, gure seme-alabek sufritu ere sufritu dute. Eta euren sufrimendua ere gurea izango da, jakina. Adoptatuei dagokienez, baina, gurasook jakin behar dugu arraza plus bat izan daitekeela, motxilan zamatu eta betiko eramango dutena. Ez dut esaten derrigorrez hala izan behar duenik, aukera dagoela baizik. Adopzioaren prozesuak aurrera egin ahala, iristen da unea non hausnartu behar baituzu, ea balizko gainkarga hori onartzeko prest zauden ala ez erabaki. Eta nork bere hautua egin behar du.

Eta erabakia hori hartzeko garaian, Txinatarren begi urratuei buruzko hausnarketa egin genuenean, aurrera egingo genuela erabaki genuen.

Bigarren lehenengo mugarrria

Eskaera luzatu aurretik, baina, handik gutxira egitekoa zen hitzaldi batera joan gintezen agindu ziguten Foru Aldundiko gizarte laguntzaileek. Hitzaldia nazio bakoitzak ezartzen dituen baldintzen ingurukoa zen, eta guk erabakia zegoeneko hartuta bagenuen ere, ez genuen huts egin hitzordura.

Aurreko guztiak bezalaxe, bilera hura ere Txaran burutu zen eta gogoan dut bikote mordoa bildu ginela. Bikote bakoitzak bere beldurrak zein desioak eraman zituen bilerara, bikote bakoitzak amets bat zeraman begirada urdurietatik iragazten zena, nork bere zalantza, nork bere galdera, nork bere istorioa. Gogoan dut bikote batzuk eskutik helduta sartu zirela aretora eta hala jarraitu zutela bilerak iraun zuen bitartean. Gogoan dut galdera gehienak emakumeek

egiten zituztela, auskalo zergatik, amaren papera azkarrago hartzen delako-edo. Eta gogoan dut jakin-minez begiratzen niela han zeuden bikoteei. Bizitzak han elkartu gintuen, bai, haur bat adoptatzeko bilera batean, baina azken enkontrua izango ote zen ala lehenengoa? Bikote haien artean zeintzuk izango ziren gure bidaia-lagunak? Norengana bultzatuko gintuen abentura hark? Han ote zeuden gurekin Txinara joango zirenak? Horrelako pentsamenduak zebilzkidan burutik bileran eta nago hala lurraldea alde zurretik erabakita edukitzeak nola idazlea izateak bultzatu nindutela besteei erreparatzera eta haien galderen atzetik zeuden istorioak asmatzen saiatzera.

Apika, zalantzaz beterik joan izan bagina, jaramon handiagoa egingo niekeen gizarte laguntzailearen azalpenei eta orain gogoratuko nituzke han esan zizkigutenak. Haatik, naizen bezalakoa naiz eta nik horixe dut gogoan. Handik gutxira, 2004ko otsailaren 18an Txarara hurbildu ginen eta Txinan haur bat adoptatzeko eskaera luzatu genion Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gure adopzio prozesuaren lehenengo pausoa izan zen, ofizialtzat hartzeko moduko lehenengo mugarria.

Lehenengoa bai, baina orriotan irakurri ahal izan duzuen bezala, lehenengoa izateak ez du beti bidaiaren hasiera markatzen.

EGITEN EZ DEN GALDERAZ

Zergatik?

Behin puntu honetara iritsita, eta prozesuaren hariari tiraka jarraitu aurretik, eten bat egin nahi dut. Aurrerago denbora izango dugu egokitasun agiriaz hitz egiteko, asignazioaz, Txinara egin genuen bidaia ahantzezinaz jarduteko eta Enararen musua lehenengoz ikusi genueneko uneaz mintzatzeko. Orain eten bat egin behar dugu. Izan ere, badira kontakizun kronologikoari atxikirik ez dauden hainbat kontu, kontu garrantzitsuak, gure hausnarketa merezi dutenak.

Kontu horiek galderak dira, maiz gure inguruko pentsamenduetatik pasatzen direnak eta gehienetan -dela lotsarengatik, dela konfiantza ezagatik, dela kuxkuxero moduan ez geratzeagatik- egiten ez direnak. Nolatan haur txinatar bat? Zenbat kostatu zaizue? Zenbat denbora eman zenuten? Zaila izan al da?... Galdera hauek guztiak egin dizkigute jada eta ziur gaude etorkizunean ere egingo dizkigutela. Eta galdera hauek guztiak bakar batean laburbildu daitezke.

Zergatik?

Uy, eta nolatan?

Egokitasun agiria 2004ko urrian eman ziguten. Azterketa gaindituta genuen, beraz, eta ordura arte gure arteko sekretua izan zenak bazuen argira ateratzeko garaia. Berrito ere Gabonak iritsi arte itxaron genuen berria familiari helarazteko eta Gabonetako oparien zerrendatan bigarrenaz agertu zen "pixa-oihalak" hitza. Enararen amonetako bat, Garaziren etorreraren iragarpena berehala harrapatu ez zuena, bizkorrago ibili zen bigarrenean. Haurdun al zaude? galde egin zion Larraitzi irribarre zabal batez. Hura aurpegia jarri zuena ezetz erantzun genionean! Ez zuen piperrik ulertzen! Orduan? Eta guk, barreari eutsi ezinik, alde aurretik prestatutako erantzuna luzatu genion: ez gaude haurdun baina aitona-amonak izango zarete

berriro. Amonak guztiz harriturik jarraitzen zuen, ulertu nahi eta ezinean, harik eta lehenengo aldiz adopzio hitza ahoskatu genuen arte.

– Uy, eta nolatan?

“Uy, eta nolatan?” egin zigun galde. Garazi mundura jaioko zelako berria jakin zuenean ez bezala, Enararen berriaren kasuan zorionik ez. Ez “Hau poza!”, ez “Zorionak”. Ez musurik ezta besarkadarik ere. Ez genuen txartzat hartu, jakina, hori ere aurreikusita baikeuen. Gerta zitekeen eta gertatu zen, besterik gabe. Azken batean, gure gizarteak oraindik ez baitu automatismorik sortu horrelako berri bat ematen dizutenerako. Oraindik ez gaude ohituta. Entzuna eta irakurria genuen aitona-amona guztiek ez dutela berria ondo hartzen eta horretarako ere prest geunden. Zer egingo ote genukeen gure alaba onartzeko prest egon izan ez balira? Nola jokatu genukeen gure gurasoek “hori ez da nire biloba izango” edota hori bezalako astakeriaren bat aurpegiratu izan baligute? Astakeria irudituko zaizue baina horrelakoak behin baino gehiagotan gertatu dira. Gertatzen dira eta gertatuko dira. Eta guri ere gerta zekigukeen nahiz eta gure gurasoak ezagututa ia ezinezkotzat jotzen genuen.

Gerta zitekeen, bai, baina zorionez ez zen gertatu. Guri harrera hotzarena gertatu zitzaigun, eta gaur egun anekdota hutsa baino ez da, minik eragiten ez duen arantza balitz bezala.

Denboraren poderioz ohitu egin ginen, ohitu egiten zara. Haur bat adoptatzeko prozesuan baldin bazaude, haurdun zaudela sentituko duzu, bai, baina sentimendua bakardadean eraman beharko duzu. Haurdun zaude, baina emakumearen sabela ez da handitzen eta hori da jendeak ikusten duena. Beldurra sentituko duzu. Edo emozioa. Edo larritasun puntu bat urdailean. Nekea, urduritasuna, kezka, ilusioa... Haurdunaldi biologiko batek sor ditzakeen aldaketa guztiak sentituko dituzu, baina zure sabela ez da handituko. Jendeak zu ikustean ez du emakume haurdun bat ikusten, eta, ondorioz, oso jende gutxik zorionduko zaitu. Eta arraro suertatzen da. Eta ezer esaten ez dizun pertsona hori zenbat eta gertuagokoa izan, orduan eta arraroago sentitzen zara.

Bai, arraro sentitzearena izan daiteke sentimenduetako bat baina ez da inolaz ere bakarra. Imajina ezazue urteak daramatzazula haurdun geratu nahi eta ezinean. Imajina ezazue orain lauzpabost aldiz egin dizutela ernalketa artifiziala eta, hala ere, ez zarela haurdun geratu. Imajina

ezazue abortu natural bat baino gehiago izan dituzula. Imajina ezazue aipatu egoera horietako bat jasan duen bikotea. Zer sentitu dute urte horietan guztietan? Nola sentitu dira emakumearen gorputzak ernaldutako obulua kanporatzean? Nola neurtzen da estres emozionala? Nola auto-estimaren zapalkuntza? Eta orain imajina ezazue nola sentituko zinatekete zuek baldin eta senide edota lagunak batek, zure bizitzako berririk garrantzitsuenak helaraztean, “uy, eta nolatan?” galdetuko balizu. Nago gutxi erabiliko zenuketela “arraro” hitza.

Ez, jendeak ez zaitu zoriontzat haur bat adoptatzekotan zabiltzala esaten diozunean eta horretarako prest egon behar duzu. Batzuetan ondo eramango duzu eta beste batzuetan ez hain ondo. Horrelako uneetan pentsa ezazu zorion hitzak ez jasotzea ez dela jaso dezakezun erantzunik okerrera.

Bai, badira okerragoak. Askoz okerragoak dira bestelako erantzun batzuk, bat-batekotasunaren desenkusa izan arren, gaitzespenik erabatekoena bezain mingarriak izan daitezkeenak.

Imajina ezazue honako eszena hau:

- Kaixo, aspaldiko! Zer moduz?
- Ondo, oso ondo. Eta zuek?
- Gu oso pozik. Izan ere, haur bat adoptatuko dugu Txinan!
- Ah, oso ondo iruditzen zait!

Imajina ezazue orain eszena bera baina “haur bat adoptatuko dugu” esaldia ezabatu eta bere ordez jar ezazue “Haurdun nago”. Gure solaskidearen erantzuna absurdua da, ezta? Inori ez litzaioke burutik pasatuko ondo iruditzen zaiola esatea. Haurdunaldi baten berri ematen digutenean ez dugu haurduna juzgatu, ez diogu esaten ondo iruditzen zaigula hartutako erabakia, ez gara nor iritziak ematen hasteko.

Adopzioaren munduari dagokionez, ordea, mundu guztiak dauka iritzi bat eta horixe bera botatzen du, bitan pentsatu gabe. Jendea ez da ohartzen haur bat adoptatuko duzulako berria ematean ez duzula informazio soil bat ematen, telebista berri bat erosiko duzulako berria edota Arzaken jatetxera afaltzera joango zarela ematen den bezala, baizik eta zure alaitasunaren berri eman nahi diozula, zurekin batera poztu dadin.

Atzera begira

Orain dela hamar-hamabost urte nazioarteko adopzioa gauza marjinala zen –marjinala adopzioak oso urriak ziren neurrian esan nahi baita-, ez zen ia existitzen. Eta familia eredu bakarra zegoen garaietatik zetorren iritzi kolektibo baten ondorioz, adopzioa gehiegi aireratu behar ez zen kontua zen. Gogoan dut gaztetan jakin nuela ikaskide bat adoptatua zela. Eta gogoan dut neska hark ez zuela adoptatua zelako berria batere ondo hartu. Ezkutuan gorde zuten adopzioa eta nerabe zelarik esan zioten, “ulertuko zuelakoan”. Beste garaiak ziren eta adopzioak familiako sekretupean gordetzen ziren. Berria jakitean –dena jakiten baita- jendeak errukiz begiratzen zien hala gurasoei nola haurrari. “Gizajoez ezin izan zuten haurrik izan”, “Ze pena!”. Eta jakina, inori ez zaio gustatzen pena ematea.

Batzuek, familia bakarreko eredu jarraituta, ez zioten ondo irizten, azken batean Jaungoikoak haurrik ematen ez bazizun, zerbaitengatik izango zen. Beste batzuek, kutsu elizkoi berak bultzaturik, karitatea aipatzen zuten –aurrerago esango ditut bi hitz karitateaz-. “Egin duzuen karitate ekintza polit bat da”, “Oso ondo deritzot egin duzuenari, zoragarriak zarete”. Hara nondik datorren iritzia ematearen kontua!

Zorionez, baina, garaiak aldatu dira. Lehen marjinala zena marjinala izateari utzi dio. Enararen bila joan gineneko urtean, esaterako, haur adoptatuak bost iragarki kanpainatan agertzen ziren, zuzenean edota zeharka. Duela pare bat urte, prime time-ko telebista arrakastatsu batean, bikote homosexual batek haur bat adoptatzeko saiakera egin zuen, eta adopzioa modu arin samar batean aurkeztu bazuten ere, hantxe agertu zen, audientzia handiko saio baten ardatz. Zorionez, orain nazioarteko adopzioa onartuta dago. Orain adopzioak “saltzen du”.

Gaur egun onartzen dugu lehen onartzen ez genuena eta esan liteke aldaketa nahikoa erraz egin dugula. Euskal herrian bizi gara eta gure herria txikia da oso. Hain da txikia non ia denok ezagutzen dugun elkar. Gurean ez dago distantziarik eta ehun kilometroren bueltan hiri handi edota txikiren bat aurkituko dugu. Eta Euskal Herri txiki honetako biztanleok gero eta kosmopolitagoak gara, gero eta anitzagoak eta gero eta errazago moldatzen gara egoera berrietara. Bai, guretzat errazagoa da.

Baina errazagoa izanik ere, oraindik geratzen dira iraganeko zantzuak. Bada gure erabakia ulertzen ez duenik eta bada adoptatzeagatik arazotan sartzen ari garela uste duenik. Oraindik bada, gure herri aurreratu eta zibilizatu honetan, genetikari garrantzi handiegia ematen dionik, eta bada, Larraitz eta bion aukera are gutxiago ulertzen duenik, guk ez baitaukagu ezintasunik haurrak munduratzeko. Zertarako bilatu kanpoan dagoeneko etxean duzuna galdetzen diete euren buruei. Eta bada, jakina, kanpoko etxekoa baino gutxiago maitatuko dugula uste duenik. Gero eta gutxiago dira, baina benetakoak dira eta edozein unetan egin dezakezu topo horrelako batekin. Eta bada “Zergatik?” galdetu nahi dizunik.

Zergatik? Sarri pentsatu arren gutxitan egiten den galdera.

Hiru aditz

Nork bere erantzuna izango du, noski. Gureak hiru aditzetan zuen oinarria:

- Nahi dugu: maitasuna daukagu soberan eta maitasun hori eman egin nahi dugu.
- Ahal dugu: gaitasun emozionala eta ekonomikoa dugu haur bat hezteko.
- Behar dute: milaka haur dago munduan maitasun apur bat behar duena. Batzuk ondo zainduta egongo dira umezurtz etxeetan. Beste batzuk ez hain ondo. Asko eta asko, ezta hori ere, miseria gorrian. Eta hori ez da aldatuko.

Nahi dugu, ahal dugu eta behar dute. Horiek izan dira gure arazoak eta ez alferrik aldatu dut pluraleko lehenengo pertsona behar aditza idaztean. Nahi dugu eta ahal dugu, bai, baina gure nahiak eta ahalmenak hutsalak dira haur hauen beharren aldean. Haiek behar dute eta horixe da garrantzitsuena. Badakigu, jakin, urtetan seme-alaba baten bila ibili direnek ere esan dezaketela “Behar dugu”, eta zilegi bada ere, oker geundeke hori garrantzitsuena dela pentsatuko bagenu. Azken batean, adopzioak ezin bilatuko du haur bat guraso zehatz batzuentzat, ezpada guraso batzuk haur zehatz batentzat. Eta hau ulertzen ez duenak okerreko atetik sartuko da adopzioaren munduan.

Karitateaz bi hitz

Nahi dugu, ahal dugu, eta behar dute, bai... baina kontuz! Ez dezagun gure burua engaina. Gizarteak gero eta normalago ikusten du adopzioa, gero eta onartuago dagoen zerbait da, arestian esan bezala, "saltzen duen" zerbait da egun. Baina beldur naiz ez ote den mito bihurtzen ari. Gizarteak zera pentsatzen du askotan, haur bat adoptatu dugunok meritu handia daukagula, oso esku zabalak garela edota okerragoa dena, karitateak mugiarazten gaituela. Batzuentzat Gobernu Kanpoko Erakunde ibiltariak gara. Eta hori ere ez da egia.

Pertsona normalak gara. Ez gara inor baino hobekak eta gure eskuak zein bihotzak ez dira adoptatzeko inolako asmorik ezta interesik ez dutenenak baino zabalagoak. Adoptatu dugunok ere gure miseriak dauzkagu, gure arazoak, gure haserreak eta gure hipoteka maileguak. Batzuek bizitza eginga izango dute, beste batzuk eguneroko zereginei heldu ezinik ibiliko dira. Guk ere, besteek bezalaxe, nahi dugunari ematen dizkiogu gure sosa, nahi edota ahal dugunean, eta adopzioaz, karitateaz eta elkartasunaz hitz egiten didatenean nire buruari zera galdetzen diot, ea ez ote den kontrakoa, ea ez ote den norberekeria. Ezen azken batean, haur bakarra adoptatu baitugu. Gai ginateke bi adoptatzeko. Edo hiru. Edo lau. Edo bost. Gai ginateke eta badakigu milaka direla gure beharra dutenak. Baina, guk ere ondo bizi nahi dugu. Ondo bizi ginen, ondo bizi gara eta halaxe jarraitu nahi dugu. Etxetik kanpo afaltzen jarraitu nahi dugu. Auto hobekak nahi ditugu, etxe handiagoak nahi ditugu, oporretara joan eta hondartzan eguzkiaren epelean etzanda egon nahi dugu. Dena nahi dugu, gizarte honetako gehienek bezalaxe, hobeto bizi nahi dugu. Eta, bai, gehienek bezalaxe, guk ere aitona-amonak esplotatzen ditugu haurrak jasotzera joan daitezten ikastolara, gu dirua irabazten lanpeturik gaudelako.

Karitatea? ez dakit zer den, baina nago ez daukala zerikusirik adopzioarekin.

Pragmatismoa

Gogoan dut gaztetan mundua aldatu nahi nuela. Ez nintzen bakarra, zorionez, eta ni bezalakoak asko ginenez, lortuko genuelakoan geunden. Guk mundua aldatu munduak gu aldatu baino lehen pentsatzen genuen. Jakina, gu ez ginen izan lehenengoak horrelakoak pentsatzen baina -

ai ene, zer den gaztea izatea-, ziur geunden gu izango ginela lehenengoak lortzen. Gaztetasunak dena edertzeaz gain dena errazten du. Gure porrot nabarmenak, ordea, pragmatikoagoak egin gaitu. Egun ez dut mundua aldatu nahi –beno, hau ere ez da guztiz egia, mundu ezberdin bat nahi nuke baina orain badakit ez dudala inoiz ikusiko-, eta konformatu egiten naiz pertsona bakar bat aldatzearekin. Eta badakit, Enararen bizitza aldatu egin dugula.

Kontuz, baina, nik azpimarratu nahi dudana aldaketak ez dauka zerikusirik ekonomiarekin. Enara Europa zahar honetara ekarri izana aldaketa handia da beretzat, horretan ez dago dudarik, baina ez da nik preseski azpimarratu nahi dudana. Maitasunik eta laztanik gabeko haurtzaro batetik maitasunezko haurtzaro batera pasatzean datza aldaketa. Txinako umezurtz-etxeetako estatistiken artean zenbaki huts bat izatetik maitatuko duen familia bat izatera da aldaketa. Eta egokitu zaion familiaren kalitatea bermaturik ez badago ere –esana dut ez garela ez hobeak, ez perfektuak, ez beste munduko ezer, ezpada normalak baino normalagoak- gaude aldaketa Enarari gerta zekioken gauzarik onena zela.

Zergatik ez?

Nahi dugu, ahal dugu eta behar dute. Derrigorrez egin beharreko galdera eta “Zergatik?” galderaren aldean askoz ere gutxiagotan egiten dena honako hau izan beharko luke:

Zergatik ez?

ADOPZIOA

Ez da erraza, ez.

Etena egin ostean, badugu hari kronologikoari atzera heltzeko garaia. Esan bezala, eskaera 2004ko otsailaren 18an eraman genuen Txara eraikinera. Egun hartatik 2005eko urriaren 21era seiehun eta hamar egun igaro ziren, hogeit hamar hilabete pasatxo. Asko? Gutxi? Nondik begiratzen den.

Bagenekien gure haurdunaldiak luze joko zuela eta uste dut epeei dagokienez bete-betean asmatu genuela. Badira askoz ere lehenago gauzatu diren adopzioak eta badira hiruzpalau urtez luzatu direnak, eta zerbait argi izan behar badu adoptatu behar duenak hauxe da, adopzioa ez dela abiadura lasterketa bat, ezpada fondo lasterketa. Herrialde bakoitzak iragazki ezberdinak jartzen ditu, eta burokrazia toki guztietan astuna izanik ere, toki batzuetan lehenago askatzen dute korapiloa eta besteetan gehixeago kostatzen zaie. Batz bestekoa atera beharko bagenu, ziurrenik hogeita lau hilabeteren bueltan ibiliko ginatke, beraz, gu hortxe-hortxe egon ginen. Asko ala gutxi den, ezin esan. Esan daitekeena da egunak mantso doazela zain dagoenarentzat.

Ez da erraza, ez, lasai egotea. Ez da erraza gogoa goian mantentzea. Sarri askotan, zain dagoen aita edo amaren gogoa zein bihotza, biak eskutik helduta, errusiar mendi bateko bagoi batera igotzen dira, eta hantxe geratzen dira, bagoitik jaitsi ezinik. Orain gora eta gero behera, ziztu bizian. Aurrerapauso bakoitza adrenalina dosi bat da, helmuga gertuago dagoen seinale. Baina bihotz taupadak lasaitzen direnean, hurrengo pausoa urrun ikusten da eta gogoa erortzen hasten da ibaia ur jauzian nola, eta sekula ez zarela helmugara iritsiko iruditzen zaizu. Guk bi helduleku erabili genituen jaitsierak zein igoerak samurragoak gerta zekizkigun. Alde batetik, "iritsiko da" esaldiari heldu genion, ahal bezain tinko heldu ere. Jendeak prozesuaz galdetzen zigunean, ea noizko izango zen edota ea urduri ote geunden galdetzen zigunean, guk gure makuluari heltzen genion eta "ez dakigu baina iritsi, iritsiko da" erantzuten genuen beti. Eta egia esatera, makulua lasaigarri izan zen harik eta gezur bilakatu zen arte. Izan ere, "iritsiko da" "iristear dago" bilakatu zenean, oso gertu geundela ohartu eta hurrengo gure txanda iritsiko zela sumatzen hasi ginenean, orduantxe hasi ginen urduri jartzen. Baina une hura iritsi bitartean, "iritsiko da" horrek bere funtzioa bete zuen. Hori, alde batetik. Bestetik Garazi

genuen, gure bi urte eta erdiko aingerutxo. Nahikoa lan bagenuen Garazirekin eta ezin genuen denbora xahutu iritsiko zen baina artean iritsi gabea zen laguntxo horrekin. “Orain gure lehentasuna Garazi da, aurrerago gure denbora bi alaben artean partitu beharko dugu-eta” pentsatzen genuen eta ondo pentsatuta egongo da ziurrenik. Baina bitxia da oso, ezen, orain, Enarak gurekin bi urte pasa eta gero, behinola lan handitzat jotzen genuena –alegia, alaba bakar baten heziketa- hutsaren hurrengotzat jotzen baitugu egun. Maiz esaten da bigarren seme-alabak ez duela lana bikoizten, baizik eta hirukoizten duela eta guztiz egia da. Gertatzen dena da ez zarela horretaz ohartzen tokatzen zaizun arte.

Arestian esan bezala, guk bi helduleku erabili genituen itxaronaldia samurragoa izan zedin, eta eskerrak horri. Izan ere, zain zauden bitartean, mundua ez baita gelditzen. Lan egiten jarraitu behar duzu, etxea garbitzen, otorduak prestatzen. Adopzioari dagokionez, egokitasun agiria eskuratu behar duzu, paperak bete behar dituzu, paper horiek bidali, bidaia prestatu, informazioa bildu... Batzuei eramangaitza gertatuko zaie zain egotea, besteei burokraziaren kontrako borroka jasanezina irudituko zaie, baina gauza bat argi dago: aurrerapauso bakoitzak estres puntutxo bat ekartzen dio zain dagoenari, eta pixkanaka estresa desagertuko da, apika, baina estres horrek eragindako nekea pilatuz doa eta ez da hain erraz desagertzen. Gure kasuan nahikoa ondo eraman genuen prozesua, gehiegi nekatu gabe, baina ez da erraza, ez...

Egokitasun agiriaz

Lehenengo sei hilabeteetan ez zen ezer gertatu. Eta ez zen ezer gertatu gure administratzaileak lanez lepo omen zeudelako, ezin iritsirik. Lege batek zioen Gipuzkoako Foru aldundiak sei hilabeteko epea zeukala gure adopzio eskaerari erantzuteko eta egokitasun agiria lortzeari begiratutako azterketak zein elkarrizketak martxan jartzeko –oker ez banago, egun epea hiru hilabetekoa da-, eta gure kasuan Foru Aldundiak sei hilabeteak agortu egin zituen. Gure lehenengo estres puntutxo izan zen. Egia da ez geundela urduri, baina egia da halaber, guztiz lasai ere ez geundela. Bagenekien, AFAC elkarteko web orrialdetik ateratako informazioa baikenuen, nolakoa izango zen egin beharreko azterketa. Lehenik eta behin, gizarte laguntzaile batekin bildu behar genuen elkarrizketa bat izateko. Bigarren pausoa psikologoari egin beharreko bisita, non bakarkako bilera batzuen ostean hainbat test psikologiko bete beharko

genituen. Azkenik, gizarte laguntzaileak gure etxera etorri beharko zuen non bizi ginen eta haur adoptatuaren etxea nolakoa izango zen ikustearren. Bagenekien, beraz, zertan zetzan azterketa, eta bagenekien familia arrunt bat osatzen genuela, gu ginela, hain justu, adopzio prozesu batean dagoen haurrak behar zuena, eta jakiteak beti laguntzen badu ere, kezka txikitxo batekin edo, zehatzagoak izate aldera, ezinegon txikitxo batekin joan ginen lehenengo bilerara. Azterketa bat zen, gainditu beharrekoa, eta ez zaude lasai geratzen harik eta atzean uzten duzun arte.

Jende askok ez du begi onez ikusten egokitasun agiria. Batzuek zorrotzegiak direla deritzote, gizarte laguntzaileak zein psikologoak gehiegi sartzan direla zure bizitzan. Jende asko biluzik sentitzen da, ezezagun aurrean larrugorritan, eta ez da erraza izaten. Behin baino gehiagotan entzun behar izan dugu honako galdera hau: Zergatik ikertu behar dituzte gure harremana, gure ekonomia, gure iragana eta gure familia? Aita eta ama biologikoak izateko ez badute egokitasun agiririk eskatzen, zergatik eskatzen digute guri haur bat adoptatu ahal izateko? Eta egia da, egia denez, edozein txoriburuk izan dezakeela haur biologiko bat, erantzuna adoptatu nahi dugun haur horrengan aurkituko dugu, gehiegi bilatu gabe aurkitu ere.

Gogora dezagun ezen, adopzioaz ari garelarik, ez dugula bilatzen haur eder bat bikote batentzat, ezpada gurasoak haur batentzat. Bere gurasoek abandonatu duten eta oso denbora laburrean majo sufritu duen haur batentzat. Haur horren onura zein etorkizuna da jokoan dagoena. Hemengo nahiz jatorriko herrialdearen administrazioek ezin diete huts egin haur horiei, kosta ahala kosta bigarren abandonu bat ekidin beharra dago, eta, nire ustez, ziurtasun minimo bat bermatzea munduko gauzarik logikoena da. Sekula ez dago jakiterik, hala ere, etorkizunak zer ekarriko digun eta azterketa gainditzeak ere ez du berez erabateko bermea ekarriko, baina administrazioen lana da haur horiei ahalik eta bermerik handiena ematea.

Sentimenduak azalera

Sei hilabete joan ziren, eta azkenik iritsi zen gizarte laguntzailearen deia. 2004ko uztailaren bukaera zen eta Garazi amonarekin utzita Txarara joan ginen. Ez geunden urduri, baina behin baino gehiagotan aipatu dudana ezinegon puntu bat bagenuen barnean.

Elkarrizketa Larraitz eta bioi batera egin zigun gizarte laguntzaileak eta oso galdera orokorrak egin zizkigun. Alde batetik gure motibazioaren ingurukoak izan ziren: ea zergatik adoptatu nahi genuen, ea zergatik Txinan, ea zer espero genuen, zailtasunen berri ba ote genuen, eta antzeko galderak izan ziren. Bestetik gure harremanaz, bizimoduaz eta gure familiez. Ea noiztik geunden ezkontuta, ea zertan egiten genuen lan, ea nolakoak ziren gure gurasoak, nolakoak anai-arrebak, ea non bizi ginen, nolakoa zen gure etxea, eta abar. Ordubete pasatxo egongo ginen gizarte laguntzailearen bulegoan eta handik ateratzean lasaiago geunden. Ez zen batere zaila izan eta gure kezka bakarra etxeari buruzko galderen ingurukoa izanik –aurrerago hitz egingo dizuet zergatik- gaiaz ez zuela gehiegi galdetu ikustean lasaitu ederra hartu genuen. Gainera, etxera egin beharreko bisita bertan behera utziko zutela jakinarazi zigun –lanez lepo omen zeuden, iritsi ezinik- eta horrek ere lagundu zuen. Esan bezala, ez zen oso zaila izan eta psikologoaren deia zain geratu ginen.

Aste pare bat geroxeago deitu zigun psikologoak eta, aurrekoan ez bezala, ez ginen Txarara joan behar izan psikologoaren kontsulta Amara auzoan baitzegoen. Eta gizarte laguntzailearekiko bilera ez bezala, psikologoarekin gauzak ez ziren hain samurrak izan.

Ez dut esango gaizki pasa genuenik, ez bailitzateke guztiz egia izango, baina bai lehenengo bilera baino gogorragoa izan zela eta hor bai sentitu ginela interneteko foroetan irakurria genuen bezala. Hiru bilera izan ziren guztira. Lehenengoan Larraitz eta biok batera artatu gintuen psikologoak eta galderak orokorrak izan ziren, gizarte laguntzaileak Txaran egindakoen oso antzerakoak. Bigarren hitz orduan banakako elkarrizketak iritsi ziren. Larraitz lehenago sartu zen psikologoaren bulegora eta nik bitartean bizpahiru test psikologiko egin nituen. Ordu erdi beranduago ni sartu nintzen eta Larraitz atera zen test psikologikoak egitera. Eta gogorragoa izan zen ezen bat-batean sentimenduez eta oroitzapenez hitz egiten hasi baikin, bikotearekiko sentimenduez, bikotearen akatsez zein dohainez, harremanez, bai bikotearekikoaz bai eta familiarekikoaz ere, txikitako oroitzapenez, zure aitaren izaeraz, zure amarenaz, eta etorkizunaz, ametsez zein asmoez. Eta nago ez gaudela ohituta gure buruaz hitz egiten, aipatu gai guztiez zer kontaturik izan badugula baina oso gutxitan azaleratzen ditugula, normalean isilpean izaten ditugun kontuak direla. Asko kostatzen zaigu gure buruaz hitz egitea, bai, eta gaizki pasa ez banuen ere, argi daukat banakako elkarrizketa hura izan zela, egokitasun agiriari dagokionez behinik behin, unerik gogorrena.

Hirugarren bilera bat ere izan genuen, eta bilera hartara Garazi eraman genezan eskatu zigun psikologoak. Hogei bat minutuko saio txiki bat izan zen, nahikoa eta sobera ikusteko Garazi bi urteko ume arrunta zela frogatzeko.

Eta kitto. Psikologoarekiko bilerak hortxe amaitu ziren eta berriro ere itxoitea zen gure zeregin bakarra. Psikologoaren txostenaren zain egotearen alderik txarrena zera izan zen, galdera makurrak egiten dizkiozula zure buruari: normalak al ginen? zer pentsatuko zuen psikologoak? Izango al genuen ezusterik? Galdera makurrak ziren zeren guk jakin baikenekien oso familia arrunta ginela, zentzu handirik gabeko zalantzak zirela gureak baina zain zaudenez eta beste egitekorik ez duzunez... hamabost bat egun joan ziren harik eta psikologoak bere txostena bidali zigun arte, eta bai, bagenekiena irakurri ahal izan genuen.

Erantzunaren zain

Ez ginen hasi Txinara bidali beharreko txostena prestatzen harik eta egokitasun agiria eskuetan izan genuen arte. Ez genuen presarik eta urratsez urrats joatea erabaki genuen. Egokitasun agiria urriaren 21ean iritsi zitzaigun, eta orduantxe hasi ginen prestatzen. Gauza asko ziren prestatu beharrekoak: jaiotza zein ezkontza ziurtagiriak, diru-sarreraren zein jabetzen aitortpenak, lanbide ziurtagiria, osasun txostena, zigor-aurrekarien ziurtagiriak, egokitasun agiria eta psikologoaren txostena. Burokrazia honi guztiari zerorrek prestatu beharreko batzuk ere gehitu behar zitzaizkion, hala nola, eskaera gutun bat China Center of Adoption Affairs erakundeari zuzendua, nazioarteko txeke batzuk itzulpenak ordaintzeko eta familia argazki album txikitxo bat. Ikus dezakezueneguz egitekoen zerrenda luzea da baina ez dauka zailtasun berezirik. Paperak prestatzeko garaian zalantza bat edo beste izan genuen -burukominik handiena nire lanbide ziurtagiriari zor diogu, egun haietan lana utzita baineukan idazteari begirako eszedentzia batean- baina AFACeko web orrialdeko foroari zein artean ezagutzen ez nuen Itsaso izeneko donostiar bati esker dena konpondu ahal izan genuen eta bi hilabeteren bueltan Txinara bidali beharreko txostena Txaran aurkezteko moduan geunden. Bigarren itxaronaldi luzearen txanda iritsia zen.

Behin txostena prestatu eta bidali ostean, hurrengo pausoa sarrera data jakitea zen, alegia, Txinako gobernuak gure txostena zein egunetan jaso zuen jakitea. Horixe genuen hurrengo mugarria, garrantzitsua erabat, data horrek zure seme-alabaren asignazioa noiz iritsiko den adierazten baitu. Garai batean, sarrera data eta asignazioaren arteko tartea guri egokitu zitzaiguna baino askoz ere handiagoa zen. Hamabost, hemezortzi, edota hogeit hamar hilabete ingurukoa izaten zen. Garai urrun haietan –edo ez hain urrunak mende honen hasierako txostenez ari baikara- Txinako gobernuak hilabeteak bidaltzen zituen asignazioak Madrilera, eta era horretan jakin zenezakeen noiz iritsiko zen zure txanda. Denbora gehixeago edo gutxixeago beharko zuen iristeko. Baina esana dut adopzioak errusiar mendi baten antza daukela eta aldaketak edozein unetan gerta daitezke. Gure txostena tramitatzen ari ginela bi aldaketa izan ziren, bata ona eta bestea txarra. Antza denez, Txinako gobernuak astindua eman nahi izan zion gaiari eta asignazioak gero eta azkarrago iristen hasi ziren. Hamabi, hamar, bederatzi, zortzi hilabete... zurrumurruek zioten sei hilabetera ere jaitsiko zela asignatzeko epea eta horrek esan nahi zuen gure seme-alabak gertuago zeudela. Aldaketak, baina, alde txar bat zekarren gordeta. Izan ere, Txinatik jada ez ziren hilabeteak osorik bidaltzen eta horrek kirioak dantzan jartzen zizkigun. Antza, txosten kopuru bat pilatzen zitzaienean, horixe bidaltzen zuten. Zeren arabera? Ezin jakin, asignazio kopuruak ezberdinak baitziren baliza diplomatiko bakoitzeko. Aldaketa horren ondorioz gerta zitekeen, esaterako, hilaren hogeiko sarrera data zuen asignazioa iristea eta hilaren hogeita batekoa hurrengo txandaren zain geratu behar izatea.

Egun, ordea, bagoia aldapan gora doa errusiar mendian eta, mende hasierako egoerara itzuli da. Egun, 2008ko uda honetan, hogeita lau hilabete inguru joaten dira sarrera data eta asignazioaren artean. Zergatik? bada, berriro ere, ezin jakingo dugu zein den erantzuna. Baliteke Beijingo olinpiadek zer ikusirik izatea honetan, baina auskalo!

Dena den, sei, hamabi edota hogeita lau hilabete, berriro diot, denbora oso mantso doa seme-alabaren aurpegia noiz ikusiko zain dagoenarentzat.

¡Febrerines!

Azkenean, 2005eko martxoan edo, jakin genuen zein zen gure txostenaren sarrera data: 2005eko otsailaren 5koa zen. Otsailekoak ginen edo AFACeko web orrialdetako foroetan esaten zuten bezala, “Febrerines”. Hari gorria tenkatuta zegoen berriro eta hariaren bukaeran Enara zegoen, ordurako izena aukeratua baikenuen. Kalkuluak egin genituen berriro eta asignazioen erritmoa nolakoa zen ikusita abuztuan iritsiko zela pentsatu genuen. Eta gure poza sekulakoa zen. Ez genekien non baina bagenekien han, Txina urrun eta erraldoiaren tokiren batean, Enara zegoela gure zain. Ez genekien zehazki zein datetan baina bagenekien ordurako jaioa zela, bai eta, ziurrenik, abandonatua izan zela ere. Ez genekien nork utziko zuen umezurtzetxean, baina bagenekien ama bat sufritzen egongo zela, ezin imajina dezakegun era batean sufritzen. Eta bagenekien zain egotea beste aukerarik ez genuela eta ahalik eta ondoen eraman behar genuela. Baina orduan “iritsiko da” esaldia bilakatu zen “iristear dago” eta handik aurrera eromena izan zen.

Haurdunaldiaren azkenetan geundela jakiteak sortzen zigun urduritasuna gutxi balitz, eta gauzak apur bat zailago jartze aldera, etxearen arazoa izan genuen 2005eko lehenengo hilabete haietan. Arestian aipatu legez, egokitasun agiria lortzeko garaian etxea izan genuen burukominik handiena. Izan ere, etxez aldatzekotan baikenuden. Ez dakit zenbat hilabete aukera ezberdinak aztertzen ibili ostean, berrogei bat etxe bisitatu eta horietako bat aukeratu ostean, aukeratutako horri baiezkua ematera gindoazela, azken bisita bat proposatu ziguten higiezin agentziakoek. Eta bizitza zer den, azken hura izan zen guk nahi genituen baldintza guztiak betetzen zituena!. Azkenean, hilabete askoko sufrimendua di-da batean desagertu zen eta hiruzpalau egunetan gure etxea saldu eta bisitatu genuen azken hura erosi genuen. Balirudike horrekin arazoa konponduko genuela baina ez, hortxe sortu zitzaigun buruhauste berri bat, erosi genuen etxean obra handia egin behar baitzen eta abuztura arte ez zutela bukatuko esan zigun obrako arduradunak. Gure etxea, alegia, saldu behar genuena, ekainaren 30ean utzi beharko genuela esan ziguten erosleek. Non sartuko ginen uztailearen lehen egunetik etxe berriko lanak bukatu arte? Garaiz bukatuko al zuten obra? Eta Txinarako bidaiatik itzultzen ginenerako oraindik bukatu gabe bazegoen, zer egingo genuen orduan? Trintxerpeko aitona-amonen etxera joango ginela erabaki genuen. Nola edo hala moldatuko ginela esaten genion elkarri. Bai, nola edo hala moldatu beharko genuen.

Arestian esan bezala, hilabete haiek erotzeko modukoak izan ziren. Alde batetik mudantza bat izan genuen, bestetik etxe berriko obraren lanak, eta azkenik adopzioaren asignazioa non ezin genuen ezertxo ere egin, zain egon besterik. Zain egon gurea ez zen etxe batean. Gustura geunden, jakina, ondo moldatzen baikara gurasoekin, baina zazpi urte zure gurasoen etxetik at egon ostean itzultzea ez da samurra. Ohitura batzuk bagenituen, gauzak egiteko modu batzuk, ez onak ezta txarrak ere, gureak baizik eta gurasoen etxera atzera bueltatzean ohitura haiek guztiak moldatu behar izan genituen. Gogoan dut egun haietan guztietan interneten hutsunea nabaritu nuela gehien. Internet genuen arnasbide eta amets biltegi. Internetetik izaten genituen asignazioen berri eta internet bidez jasotzen genituen gu bezala zain zeuden beste guraso batzuen poztasunak zein malkoak. Internet genuen topaleku, eta nire gurasoen etxean internetik ez! Ez dut gogoratzen baina esango nuke uztaile eta abuztu haietan ez nintzela behin ere hondartzara joan. Izan ere, uda hartako oroitzapen guztiek liburutegietako KZ guneetara eta etxe berriko lanetara bainaramate. Hura bai, estres eroa, hura!

Baina tira, bizitza honetan gauza guztiek dute bukaerarik eta gure sufrikarioari ere iritsi zitzaion berea. Ez zen izan guk kalkulatu genuen bezala, abuztuan alegia, baizik eta irailean. Eta jakina, etxeko lanak artean amaitu gabe zeuden. Baina ez zuen axola. Asignazioa iritsia zen.

Baina ze txikia den!

2005eko irailaren 10ean deitu ziguten Txararik. Larunbata zen eta egun batzuk ziren bagenekielara gure asignazioa iritsia zela Madrilerara. Madrildik Donostiara bidali behar zuten eta ostiralean deirik gabe jaso gabe geundenez, astelehena arte itxaron beharko genuela pentsatu genuen. Donostiako erdiguneko kafetegi batean geunden esku telefonoak jo zuenean. Txararik deitzen zigutela entzun nuen eta bihotz taupadak azkartu egin zitzaizkidan. Zarata handia zegoen eta kalera atera behar izan genuen ondo entzuteko. Itxoiteko agindu nion neskari, ez nuela ondo entzuten, baina kanpoan ere trafikoaren zarata zegoen. Eta hatz bat belarri batean eta burua denda bateko erakusleiho baten kontra jarrita jakin genuen Enara neskato txiki bat zela, 7 hilabete besterik ez zituela eta Chongqing izeneko hiri batean zegoela gure zain. Gure alabak Feng Fu Han zuen izena baina gogoan dut izena ezin izan nuela ondo entzun. Astearterako jarri ziguten hitz ordua eta orduan izango genuen bere aurpegia ikusteko aukera.

Eta gizarte laguntzaileak zoriondu egin gintuen.

Telefonoa eskegi eta elkar besarkatu ondoren, Larraitz eta biok pentsamendu bera ahoratu genuen. “Ai ene! Baina ze txikia den!”. Ezuste galanta gurea, ez baikenuen hain txikia izatea espero. Beno, egia esatera, ez genekien zer espero genuen zehazki, ezta, adinari zegokienez behinik behin, zer nahiago genuen ere. Aukeran neskato bat nahiago genuen, ezin uka, baina sexuak ere ez zuen garrantzi handirik. Kontua da imajinazioaren abiadura errealitatearena baino askoz ere handiagoa dela eta aukera guztiak aurreikusita ez baizik eta aurreimajinatuta genituela. Neska izatea, mutila izatea, txiki-txikia izatea, urte eta erdi inguru edukitzea... aukera guztiak aldeztatik imajinatuta genituen. Gainera astebete lehenagotik, asignazioak Madrila iritsi zirenetik alegia, jakin bagenekien haurrak zein probintziatakoak ziren –haur guztiak erdialde zein hegoaldekoak ziren-, batzuk Beijingetik mila kilometrora zeudela eta beste batzuk bi mila kilometrora, probintzia batzuetara hogeita familia joango zirela eta beste batzuetara bi familia baizik ez zirela joango... Esan bezala, aste hartan bereziki baina baita aurreko hilabeteetan ere, gure irudimenak Txinara jotzen zuen behin eta berriro. Nolako izango ote zen gure alaba? Osasuntsu egongo al zen? Non egongo ote zen? Guangdong-en? Guanxi-n? Chongqing-en? Nolakoak ziren hainbestetan irakurritako toki haiek guztiak? Hainbestetan aztertutako Txinako maparen zein tokitara eramango gintuen patuak?... Adopzioa galderez jositako ibilbidea da eta dei zoragarri haren ostean erantzun batzuk bagenituen ere, artean pauso garrantzitsuak genituen emateko.

Argazkiko umea

Enara Fuhan 2005eko irailaren 13an ezagutu genuen, Larraitz eta bion zortzigarren ezkontza-urteurrenaren egunean hain justu. Txaran genuen hitz ordua, goizeko bederatzietan. Garazi ikastolan utzi behar izan genuenez gero, beranduxeago iritsi ginen hitz ordura eta iritsi bezain pronto gela batera eraman gintuzten. Berehala ohartu ginen gu ginela azkenak. Zazpi familia ginen guztira eta euren zoriontasun irribarre zabalek jakinarazi ziguten ordurako denek ezagutzen zituztela euren alabak. Une hartantxe ezagutu genituen Maxe eta Mikel, Puru eta Marisa, Erre eta Itsaso, interneten bidez “ezagutzen” genituenak eta gerora gure bidelagunak izango zirenak. Urduri geunden, zer egin jakin gabe, eta gure kartazalaren zain geunden

bitartean, gure asignazio kideen alaben argazkiak ikusten egon ginen. Minutu pare bat geroago gizarte laguntzailea agertu zen gure txostena esku artean zekarrela. Eta kartazala eman aurretik zera jakinarazi zigun, denbora gutxi genuela, bilera gela askorik ez zutela eta handik gutxira hustu beharko genuela gela hura. Eta ez ahazteko onarpena sinatzea –alegia, haurren asignazioa onartzen duzula dioen papertxo bat sinatzea-. Handik gutxira Yun izeneko itzultzaile txinatar bat zen etortzekoa, osasun txostena txineraz soilik edota txineraz zein ingeleraz idaztitakoa baitzegoen. Egun batzuk lehenago, asignazioaren zain geundenon artean zera erabaki genuen, garrantzitsua zela itzultzaile baten lana kontratatzea, eta ahal izanez gero asignazioaren egunean bertan gurekin egon zedin nahi genuela, osasun txostena garrantzitsua baitzen oso eta nola sinatuko genuen onarpena itzulpen hura izan gabe. Denboraren poderioz ohartu gara itzulpen hura, Yunek korrika eta presaka egin zigun itzulpen hura, lasaigarri baten antzekoa zela eta era horretan hartu behar zela, garrantzitsua izanagatik ez zela inolaz ere garrantzitsuena. Izan ere, onarpena sinatzeko unean kontutan hartu behar duzun gauza bakarra argazkia baita. Zalantzarik izanez gero, hobe duzu kartazala ireki gabe uztea. Horixe da atzera egiteko azken aukera ezen, behin kartazala ireki eta argazkia ikusi ostean, ez baitago atzera bueltarik. Argazkia ikusi eta bat-batean sentitzen duzu bi begi txiki horiek zure alabarenak direla, zure alabarenak eta ez beste inorenak. Eta sentitzen duzu horrela izan behar zuela, begi horiek baino ezin zirela izan, eta ondorioz, horiek direla. Une horretan ez dago galderentzako tokirik, aurrerago etorriko dira etorri behar badute, baina ez une horretan. Ez duzu pentsatzen zenbat jende egon ote den zure alabaren ondoan hilabete haietan guztietan. Eta ez duzu pentsatzen, aurrerago bai baina ez kartazala ireki eta argazkia ikusi ondorengo minutuetan, ama batek presa baten ondoan utzi zuela bere alaba, zure alaba, eta pertsona batek, kontu handiz eta apur bat beldurtuta ziurrenik, lurretik hartu zuela eta poliziar horien hots egin ziola, eta polizia batek bere magalean hartu zuela eta ospitale batera eraman haur negarti hura, zure alaba, eta ospitalean artatu zutela eta handik hiriko umezurtz-etxeko arduradunei abisua pasa zitetela, han bazutela presa baten ondoan utzitako ume bat eta joan zitezela bila, ahalik eta azkarren, eta zaindari bat ospitalera hurbildu zela eta handik eraman zuela neskato hura, zure alaba, umezurtz-etxera. Eta ez duzu pentsatzen, pragmatikoak izaten badugu eskarmentu nahikorik, pertsona batzuek zaindu egin zutela haur hura, bere osasunaz arduratu zirela, eta arduradun batek erabaki zuela ume hura egokia izan zitekeela adopzioan emateko eta zerrrenda batean sartu zuela. Eta ez duzu pentsatzen, jakina, argazkilari bat hiriko umezurtz-etxera joan zela bertako haurrei argazkiak ateratzera eta zure alabari argazki bat atera ziola, ederki kostata

ziurrenik, ume hauek ez baitira geldirik egotekoak, eta argazki hura paper batean inprimatu zuela eta administrari batek paper hura beste batzuekin batera bildu zuela eta bidali zuela hegazkinez Beijingera, han baitago horrelako gaiez arduratzen den jendea. Eta han, "Maching Room" izeneko gela bateko ordenagailu batean, funtzionario batek zure argazkia eta haur horren argazkia, zure alabaren argazkia, jarri zituela bata bestearen ondoan, eta funtzionario hura, pertsona maitagarri hura, berehala konturatu zela ume hura zure alaba zela, horrela izan behar zuela eta zu zinela, ezinbestez, haur haren aita.

Ez, jakina, ez duzu horrelakorik pentsatzen eta ez dago aipatu pertsona horiekin gogoratzeko denborarik.

Pentsatzen duzuna zera da, badela garaia zure alabaren bila joateko.

Txara ondoko tabernan

Hurrengo mugarrirainoko denbora tarte nahikoa motza izan zen, berrogei egun eskas izan ziren baina denetan gorabeheratsuenak. Errusiar mendiko gorako zein beheko aldapak inoizko luzeenak izan ziren, batik bat, bidaiaren xehetasun guztiak ondo bideratuta egon ziren arte. Irailaren 13ko asignazioak jarraipena izan zuen Txara ondoko taberna batean, bilera gelatik atera behar genuela esan zigutenean. Yunek itzulpenak ahoz egiteari ekin zion eta txosten bakoitzeko 20-30 minutu behar zuenez luze jo zuen goizak. Bitartean, gure alaba berrien argazkiak ikusteari lotu gintzaizkion, eta lerdea zerigula, beste bikoteei erakusten genizkien argazki haiek, eskuartean genuen informazioa elkarri ematen genion eta Txinara egin beharko genuen bidaiaz mintzatzen ginen. Bi bikote hegoaldeko probintzia batera ziren joatekoak, Guandong-era hain zuzen, guretzat probintzia hura zen ezagunena, bertakoa baita Cantongo sukaldaritza ospetsua. Beste bi familia Hunan-era joango ziren, eta gu Chongqingera. Erre eta Itsasoren alabaren txostenak, ordea, umezurtz etxearen izena bai, baina probintziaren izena ez zuen zehazten. Non ote zegoen Aintzira? Internetik ez genuenez, Itsaso tabernako telefonotik ibili zen deika umezurtz etxe hura non ote zegoen jakite aldera, eta kostata izan bazen ere azkenean jakin genuen. Erre eta Itsasoren alaba ere Chongqingen zegoen, gure Enara bezalaxe! Bitxia da oso ezen Itsaso irailaren 13 hartan ezagutu bagenuen ere, gure harremana askoz ere

lehenagokoa baitzen, urtebete inguru baikeneraman posta elektronikoak elkarri bidaltzen. Interneteko foroetan jende asko ezagutzen duzu baina oso jende gutxirekin lortzen duzu harreman bat izatea. Mezu haietan elkarri kontatzen genizkion gure prozesuen gorabeherak, gure zalantzak eta gure pozak, gure aurrerapausoak eta etenaldiak. Eta bizitza zer den, egun berean ezagutu genituen gure alabak eta, are gehiago, egun berean jakin genuen toki berean egongo zirela gure zain!

Yunen ahozko itzulpenak entzun ostean denok sinatu genituen onarpenak eta mezulari baten bidez onarpen haiek Beijingerako bidean jarri genituen. Lehenbailehen egin beharreko tramitea zen hura, Txinara bidaiatzeko Txinako gobernuaren gonbidapen gutun bat jaso behar baitzen eta zenbat eta lehenago bidali onarpena, orduan eta lehenago bidaliko zuten gonbidapena. Eta lehen urrats hura egin ostean, aurkezpenen txanda iritsi zen.

Telefonoaren faktura puztu zuena

Suposatzekoa denez, pozez gainezka geunden eta berehala hasi ginen gure alabaren argazkia erakusten. Enararen argazkia ikusten lehenengoa Garazi izan zen, zeinak apur bat beldurtuta begiratzen zion haur horren irudiari, zer gertatzen ari zen ulertu gabe. Garazik bazekien ahizpa bat ekartzekotan ginela baina hiru urte besterik ez zituen eta, jakina, artean ez zekien zer nolako aldaketa ekarriko zuen txikiak. Gero aitona-amonen eta osaba-izeben txanda iritsi zen eta argazkiaren kopiak egin behar izan genituen denei emateko. Enararen argazkia posta elektronikoaren bidez helarazi genien lagunei –laguntza eskatu behar izan genuen, artean aitona-amonaren etxean baikeunden, inkomunikaturik- eta horrela joan zitzaizkigun egun batzuk, gure poza lau haizeetara zabaltzen eta mundu guztiari gure txikitxoaren argazkia erakusten. Hala ere, azkar mugitu beharko genuen Enararen bila joango baginen eta gauza asko genituen zehazteke. Aurreko hilabeteetan irakurria genuen guk bezala otsaileko sarrera data zuen jendea hasia zela bidaia prestatzen. Familiek mezuak uzten zituzten euren asmoak azaltzen, batzuek bere kasa joateko asmoa zuten, beste batzuk NAEL baten zerbitzuak kontratatzeakoak ziren, eta bagenekien AFACek berak bidaia bat antolatzeako asmoa zuela. Guk, ordea, gure kasa joango ginela erabaki genuen, NAEL baten zerbitzua kontratatu gabe, baina horretarako sei bat familiak osatutako taldetxo bat sortu behar genuen, gastuak ikaragarri

handiak izan ez zitezen. Asignazioko egunean ezagututako familien artean lau prest geunden gure kasa joateko. Haatik, gure helmugek ez zuten bat egiten: bi familia Chongqing-era eta beste bi Hunan-era. Interneteko foroetan iragarkiak jarri genituen baina egunek aurrera egin ahala ohartu ginen ordurako familia gehienek bidaiaria antolatua zutela eta gutxi zirela bidaiaria itxi gabe zutenak. Noiz bidaiatu ere izan genuen burukomin. Izan ere, AFAC eta beste NAEL bat urriaren 28an edota azaroaren lehenengo astean ateratzeko asmotan bazeuden ere, gurekin taldea sortzeko prest agertu ziren guztiek bi aste lehenago atera nahi zuten, urriaren 14an, hain zuzen. Horrek suposatzen zuen Txinako gobernuak bidali beharreko eta bidaiaria egiteko derrigorrezkoa zen gonbidapen gutunak denbora gutxiago izango zuela gure eskuetara iristeko, eta ez genekien arrisku hura onartzeko prest ote geunden. Mezu eta dei asko jaso genituen egun haietan eta behin baino gehiagotan egon ginen bai Chongqing-erako bai Hunan-erako taldeak osatzekotan, baina gauza bat zela eta bestea zela, beti geratzen ginen taldea osatu gabe. Baina arazo hark, gure telefonoaren faktura horrenbeste puztu zuen arazo hark, izan zuen azkenik konponbiderik. Galiziako familia bat, gure egoera berean zegoena, gurekin etortzeko prest azaldu zen eta Emakumearen Agentzia izeneko erakunde txinatarrarekin harremanetan jarri ginen ea posible ote zen bi probintzia ezberdinetara joanagatik gurea talde bakartzat jotzea. Erantzuna baiezkoa izan zen eta dena prest bidali ziguten, egutegia eta guzti. Urriaren 22an hartuko genuen Beijingerako hegazkina. Beijingetik bi familia Hunan-era joango ziren eta hiru Chongqing-era. Urriaren 25ean hartuko genituen haurrak eta astebete geroago, probintzian egin beharreko guztiak amaitu ondoren, Beijingen elkartuko zen berriro taldea, hiriburuan egin beharreko tramiteak burutzeko.

Kostata izan bazen ere, azkenik dena genuen erabakita. Hegazkinerako txartelak erostea baizik ez zitzaigun falta.

Hari gorriaren bukaeran ginen eta Enara gero eta gertuago zegoen.

Zirimiria

Tentatuta nago, behin puntu honetara iritsita, gezur txiki bat esateko. Garrantzirik gabeko gezurtxo bat litzateke, narrazio honi egiazkotasunik batere lapurtuko ez liokeena baina testuari kohesioa emanez aurrera egiten lagunduko liokeena. Arestian esana dut asignazioaren unean, Enararen argazkia ikusi ondorengo minutuetan, ez ginela oroitu bidaia luze honetan garrantzi handia izan zuten hainbat lagunekin. Eta hori egia da, egia denez, asignazioaren unean gure arreta guztia Enararen argazkiari eskaini baikenion. Eta aitorten hau egin ostean, zera esan nezake, egun haietako estresa amaitu zenean, bidaiatzeko plana zehaztu eta hegazkinerako txartelak erosi genituenean, soilik une hura iritsi zenean, orduantxe izan genuela hausnarketarako betarik eta orduantxe oroitu ginela arestian aipatutako lagun haiekin guztiekin. Tentatuta nago hori idazteko, bai, testuari lotura emango bailioke, baina gezurra litzateke. Garrantzirik gabeko gezur txiki bat, baina gezurra azken batean. Izan ere, lagun horietako bat presente egon baita gure bizitzetan prozesuaren hasiera-hasieratik: Enara Fuhanen ama biologikoa, hain zuzen ere. Presente egon zen, presente dago eta presente egongo da baita etorkizunean ere. Eta presente dagoenez gero, bada garaia ama biologikoaz eta berarekiko sentitzen dugunaz hitz batzuk egiteko.

Munduan milaka haur abandonatzen dira urtero. Ezin jakingo dugu zenbat diren zehazki, baina ziur naiz Unescok, NBEk edo horrelako erakunderen batek izango duela datua hor nonbait. Iaz X ume abandonatu ziren munduan. Aurten Y. Datorren urtean Z izango dira. Abandonatutako haurrak kopuru bat dira, matematika hutsa. Badakigu horrela gertatu dela eta badakigu, halaber, etorkizunean ere horrela izango dela. Ez naiz gehiegi luzatuko arrazoien inguruan. Ez naiz mintzatuko goseteez ezta lehorteez. Ez dut txintik ere esango gerrez. Gizakiok garen bezalakoak gara, eta historian zehar hamaika aldiz frogatu dugu ez garela gai gure mundu hau kudeatzeko; gure ezintasuna oso nabarmena da eta iritsiko da eguna non eskuartean darabilgun altxor preziatu hau pikutara bidaliko dugun. Sentitzen dut baina nago honek ez daukala konponbiderik. Hitz egin genezake, esaterako, Bogotako estoldetan bizi diren hurrez. Edota Moskun kola esnifatu ondoren turistek lapurtzen saiatzen diren mukizuez. Edota gure esku-telefonoek funtziona dezaten Kongoko kobalto meategietan hiltzen diren hurrez. Hitz egin genezake, bai, eta zerrenda ikaragarri handi bat egin, munduaren luze-zabalean asko

baitira adibideak. Ez nuke, baina, ezer berririk esango, ezaguna baita haurra dela heriotzaren kate amaigabe honetan kate-begirik ahulena, beti erdiz erdi puskatzen dena.

Sobera ezaguna da, hain ezaguna non nahiago baitugu ezer gehiago ez jakin. Zirimiria bezalakoxea da: busti egiten gaitu baina fin-fina den bitartean ez zaigu inporta.

Hiru zutabe

Txinan abandonatutako haurrei dagokienez, arazo ekonomiko, politikoak eta kulturalak elkartzen dira koktel handi batean. Ekonomiari dagokionez, ezberdintasuna ez da iparra eta hegoaren artekoa, ezpada kostaldea eta barrualdearen artekoa, hiria eta nekazal munduaren artekoa. Aberastasunak kostaldera egin du eta bertako hirien hazkundea kontrolik gabekoa izan da. Bi mundu sortu dira eta bi mundu horien arteko aldea gero eta handiagoa da eta, telebistatik ikusten dituzten argi distiratsuek erakarrita, milaka nekazari iristen dira egunero-egunero hiri handietara, ezer gehiago ematen ez duen mundu batetik ihesi. Zoritxarrez ezagutzen dugu zein den horren emaitza: Txinako kostaldean gutxi batzuk ikaragarri aberasten ari dira ezer gabe iristen diren gizajoen lepotik.

Koktelaren bigarren osagaia politika da, ume bakarraren politika ospetsua hain zuzen ere. Eta egun arazo potolo samarra bada ere, are potoloagoa izango da etorkizunean. Txinatarrek ume bakarra izan dezakete. Badira zonalde batzuk lege hau betetzetik salbuetsita daudenak eta landa eremuetan txinatarrek bi seme-alaba mundura ditzakete baldin eta lehenengo haurra neska bada. Nekazariak, ordea, nahiago dituzte mutilak neskak baino, lurra lantzeko egokiagoak direlakoan. Baina ez horregatik bakarrik, eta hemen kontutan hartu behar dugu hirugarren osagaia, osagai kulturala alegia. Izan ere, semea edo alaba jaiotzeak zerikusi handia baitauka zahartzaroarekin. Alaba ezkontzen zaizunean, senarraren etxera joango da eta senarraren gurasoak zainduko ditu zahartzaroan. Txinan mutilek ziurtatzen dute gurasoen zahartzaroa. Egunen batean neskak alde egingo du etxetik eta gurasoak bakarrik utziko ditu. Beraz, aukeran mutila nahiago dute neska baino, eta nahi horrek politikaren mundura eramango gaitu berriro ere. Txinako gobernuak neurri zorrotzak hartzen ditu ume bakarraren legea bete dadin. Deskuiduan bigarren umea munduratzen baduzu, isun ikaragarri handia jasoko duzu opari. Eta

umea abandonatzea delitua denez, bigarren haurdunaldi batek bizitza demas zailduko dizu non eta ekografiak debekatuta dauden gizarte batean. Baina ez dira hor amaitzen arazoak. Aipatu arazoak, nolabait esatearren, pertsonalak dira, baina ume bakarraren politikak gizarte mailako arazoak ekarriko ditu etorkizunean. Izan ere, urte batzuen buruan milioika gizonezko bikoterik aurkitu ezinik egongo baita eta hori ez da, ez, ahuntzaren gauerdiko eztula, Txinako populazio ofiziala 1300 milioitik gorakoa dela kontutan hartzen badugu –hala ere, datu ez-ofizialek diote askoz gehiago direla txinatarrak, landa eremuetan jaiotako ume asko sekula ez baitira ofizialki jaio.

Eskerrik asko eta zorte on

Gauzak horrela, guk ez dakigu zergatik abandonatu zuen Enara bere ama biologikoak, ezta neba-ahizpa biologikorik ba ote duen. Ez dakigu pobrezia bultzatuta utzi zuen kale gorrian ala isun ikaragarri handi bati zion beldurrak eraman ote zuen Enara abandonatzera. Ez dakigu deus ere. Dakigun gauza bakarra “abandonu” hitzak ez duela esanahi bera gure gizartean edo hirugarren munduan. Gurean daukan kutsu negatiboa izugarria da. Gure gizartean txakur zaharrak abandonatzen ditugu, maite ez duguna, ezertarako balio ez duena. Zerbaiterako balio duena ez dugu kalean uzten. Auto zaharrak, trasteak, modaz pasatako altzariak... horrelakoak dira abandonatzen ditugun gauzak, ez haurrak. Eta haurraz arduratzeko gai ez denak badaki gizarte honek bitartekoak jar ditzakeela, gizarte laguntzaileak daudela adingabeez arduratzen direnak. Gurean oso gutxi dira zakarrontzi batean aurkitzen diren haurrak, hain gutxi non gertaera berehala bihurtzen baita notizia, eta orduan telebista kateak zein egunkarietako argazkilariak zakarrontziaren ondora hurbiltzen dira ziztu bizian, eta ziztu bizian jakinarazten digute haurra zilbor-hestea oraindik ebaki gabe aurkitu dutela hipotermiak hilik, eta orduan denok bat gatoz haur horren ama epaitzeko garaian. Zorionez, gurean oso gutxitan gertatzen da horrelakorik lehen munduan bizi garelako. Hirugarren munduan, ordea, abandonu hitzak esanahi ezberdina dauka. Nago, edo hala dela sinetsi nahi dut behintzat, haurra abandonatzea maitasun froga ikaragarri latz bat izan daitekeela, arrazoi simple batengatik: han, gurean ez bezala, abandonatzen dituzte aurkituak izan daitezten. Ez dituzte zakarrontzietan uzten, ezta sasi artean ere, baizik eta leku publiko eta jendetsuetan, udaletxe baten aurrean –Itsaso eta

Erreren alaba Aintziraren kasuan bezalaxe- edota umezurtz-etxearen atean bertan –Jesus eta Estherren alaba Gararen kasuan bezalaxe.

Arestian esan bezala, ez dakigu deus ez Enararen ama biologikoaz ezta alaba abandonatzera eramán zuten zioez ere, baina zalantza izugarriak izango zituela pentsatu nahi dugu. Bazituen beste aukera batzuk baina ez dut liburu honetan ume-hilketaz hitz egin nahi. Abortatzeko aukera ere izango zuen ziurrenik, baina ez zuen abortu nahi izan. Beste aukera batzuk izango zituen, bai, eta nago denetan lazgarriena aukeratu zuela, lazgarriena beretzat baina onena haurrarentzat. Izan ere, guk zera pentsatu nahi dugu, Enararen ama biologikoak hainbeste maite zuela non nahiago izan baitzuen alaba gabeko bizitza baten mina alaba sufritzen edota, are latzagoa dena, alaba gosez hiltzen ikusi behar izatearen mina baino. Haurrari etorkizun hobe bat ematea erabaki zuen eta horren prezioa ordaindu zuen.

Eta horrexegatik guk eskerrak eman nahi dizkiogu ama horri. Bere sufrimendua gure poza izan delako, bere zorigaitza gure zoriona, bere negar malkoak gure irribarreak, eta lerro hauek sekula irakurriko ez dituen arren, zera esan nahi diot, bere alaba primeran dagoela eta ume zoriontsua dela, berak nahi zuen bezalaxe.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, eta zauden tokian zaudela, lasai egon zaitez, zure alabak egia jakingo baitu: Fengduko presaren ondoan abandonatu zenuela, hain justu, izugarri maite zenuelako.

Eskerrik asko eta zorte on.

BIDAIA

MADE IN TXINA

Txina modan dago, jaun-andreok. Lehen inork ez zekien ezer Txinaz. Erraldoi bat zela besterik ez genekien. Lo zegoela. Lekutan zegoela. Komunista zela. Harresi batek inguratzen zuela. “Txinatar guztiek batera salto egingo balute sekulako lurrikara eragingo lukete” esaten ziguten txikitan, eta gu beldurak airean, txinatarrak saltoka noiz hasiko zain.

Gaur egun, ordea, informazioaren aroan bizi gara eta egunero dugu hango berri. Orain badakigu erraldoia ez dagoela lo, nagiak ateratzen hasia dela. Lekutan jarraitzen du, bai, baina Beijingerako hegaldiak gero eta merkeagoak dira. Txinatarren komunismoa ez da uste bezain komunista eta euren ekonomia ikaragarri hazten da urtero. “Txinatar guztiak batera prakak egiten hasiko balira sekulako lurrikara ekonomikoa eragingo lukete” esaten digute orain eta, jakina, beldurrez jarraitzen dugu.

Egia esatera, Txinak txundituta nauka, han onena eta txarrena elkarren eskutik baitoaz. Laster, hamar urteren bueltan, astronautak ilargira bidaltzeko moduan izango dira. Laster Shangai eta Beijing bezalako hiritzarrak lanik gabeko nekazariz beteta egongo dira. Laster gure dendetako produktu guztiak “made in Txina” izango dira. Laster munduko nagusiak izango dira. Kontraesanez betarik, bai, baina munduko nagusiak...

Gutziz esnatu baino lehen ezagutu nahi nuke Txina, baina hain dago urruti...

Ze demontre! Oraintxe bertan joango naiz hegazkinerako txartelak eroatera. Bai horixe!

Berrian argitaratua, 2005eko urriaren 13an

Madrilerrantz

2005eko urriaren 21ean, ostiralarekin, atera ginen Donostiatik Madrilerrantz. Goizeko 3'30ak ziren. Puru gidari genuela, alokatutako furgoneta batean hartu genuen Madrilerrako bidea. Hiru familia ginen: Puru eta Marisa Laida Ju-ren bila zihoazen; Erre eta Itsaso Aintziraren bila; eta Larraitz, Garazi eta hirurok Enara Fuhan-en bila. Barajaseko aireportuan hegazkin bat genuen zain, Madrildik zuzenean Beijingera eramango gintuena. Taldea osatzerakoan ez ezik, hegazkin txartelak erosteko garaian ere zortea lagun izan genuen ezen eskalarik gabeko hegaldi bat lortzean hiruzpalau ordu lapurtzen baikenizkion berez oso luzea zen bidaia bati. Amsterdamen, Helsinkin edota Berlinen eskala egin behar izateak neke handiagoa ekarriko zigun eta horixe zen ekidin nahi izan genuena. Gainera, hegaldi hura besteak baino egun bat lehenago aterako zen eta horri ere garrantzia eman genion. Izan ere, bidaia ez baitzen Beijingen amaitzen. Beijingera iritsi bezain pronto bigarren hegaldi bat hartu behar genuen, Chongqing-era eramango gintuena, eta hango aireportuan mikrobus batek hartuko gintuen hotelera iristeko. Aukera izan genuen Beijingen egun batez atsedean hartzen geratzeko baina bidaia osoa segidan egitea erabaki genuen eta nago bete-beteen asmatu genuela. Hogeita bost orduko bidaia, jet-lag ospetsuaren eragina, gure alabengandik hain gertu egoteak sortuko zigun urduritasuna... porru eginda helduko ginen Chongqing-era, bai, baina bidaia kolpe batean eginez gero, berrogeita zortzi ordu izango genituen patxada ederrean egoteko.

Madrilen hegazkin bat genuen zain, bai, baina ez hori bakarrik. Maxe eta Mikel oriotarrak Xiao Marenen bila zihoazen, eta Txinarantz abiatu aurretik Madrilen egun batzuk igaro zituztenez, aireportuan bertan elkartzekotan geratu ginen. Eta zain genituen, halaber, "gailegoak", Jesus eta Esther, Gara izeneko neskato potolo baten bila zihoan Santiagoko bikotea. Posta elektronikoko eta telefono deien bidez baino ez genituen ezagutzen eta han, itxaron gelan, egin genituen aurkezpenak.

Garazi oparitu nahian

Egia esan, beldurra nion bidaiari. Nire bigarren hegaldia zen eta lehenengoak utzitako oroitzapenak ez ziren oso onak. Badakizue, turbulentziak sekula ez dira oso onak izan osasunerako. Zalantzarik gabe, hamabi orduko hegaldi luze hura zen abentura honetako alderdirik desatseginena eta aukeran nahiago nukeen pilula batzuk hartu eta bidaia osoa lotan ematea. Eta egia esan, ez nintzen batere oker ibili, joaneko hegaldi hura zinez izan baitzen gogoratzekoa. Haatik, arrazoiak hegazkinetik at egon beharrean hegazkinaren barruan egon ziren, Larraitz eta bion artean eserita hain zuzen ere... Lehen esan bezala, aukeran pilulak nahiago, bai, baina aukera hura guztiz ezinezkoa zitzaidan, Garazi txikia gurekin zetorrelako. Beraz, liburuak, margoak, jostailuak eta hiru urteko haur bat entretenitzeko baliagarria gerta zekizkigun gauza guztiak eskuko poltsan sartu genituen eta gure eserleketan eseri ginen hegaldiaz gozatzeko prest. Eta jakina, horrelakoetan gertatzen dena gertatu zitzaigun guri ere, Garazi berehala aspertu zen jostailu guztiekin eta astun samarra jarri zen. Hori gutxi balitz, hegazkina leporaino zihoan eta ez zegoen gehiegi mugitzerik. Lo eginarazten saiatu ginen – ekialderantz gindoazenez gau iluna berehala agertu zen- baina lo-kuluxka txikiren bat egin bazuen ere, ez genuen arrakasta handirik izan. Imajina dezakezue, Txinako aireko espazioan sartu ginenerako Garazi edonori oparitzeko moduan ginen, ea zorte pixka batekin hegazkinaren beste puntara eramaten zuen... Joaneko bidaia horrelakoa baldin bazen, nolakoa izango ote zen itzulerakoa?... aukeran hobe genuen horretan ez pentsatzea...

Gainera, bidaiaren unerik larriena iristear zegoen.

Aireportuan galduta

Beijingera goizeko 5'30etan iritsi ginen. Gure erloju biologikoek zioten gaueko hamaika eta erdiak zirela, baina eskumuturrekoak ez. Donostiatik ostiraleko goizeko 3'30etan atereak ginela kontutan hartuta, hogeitau ordu ziren bidaiatzen, hogeitau ordu taxuzko atsedetik hartu gabe. Eta oraindik geratzen ziren bost bat ordu Chongqing-era iristeko. Tira, ba, bagenekien horrela izango zela eta nekaturik baina pozik erakutsi genizkien gure pasaporteak aireportuko poliziaiei. Denok ilara batean gindoazen mailetak hartzera eta ni azkena nintzen Garazi bere gurditxoan

neramala. Eta hara non eskailera mekaniko batzuk jaitsi behar genituela ohartu ginen. Karga-karga eginda noa eta Garaziren gurditxoaren zein eskuko poltsekin eskailera mekanikoetatik jaisten gaizki moldatuko naizelakoan, zer egin hasi naiz pentsatzen eta hara non, hogeit hamar metro edo, igogailu bat ikusi dudanean, eta, di-da, korrika batean sartu naiz igogailu horretan hiruzpalau txinatarrarekin batera. Ateak itxi dira, ateak zabaldu dira eta txinatarrak badoaz igogailutik kanpora, eta Garazi eta biok, jakina, haien atzetik. Metro batzuk aurrera egin dut, ezkerretara begiratu, eskuinera begiratu... eta... nasa ikaragarri hartan ez dut ezagunik topatu. Non dago taldea? Bueltaka hasi nintzen, alde batera zein bestera begiratzen nuen eta han txinatarrak besterik ez. Larraitz? Itsaso? Non sartu zarete?... Primeran, Xabi, primeran, galduta hago!!

Orduan logikoena egitea pentsatu nuen, alegia, etorritako bidetik itzuli eta eskailera mekanikoetatik jaitsi. Sartu gara berriro igogailuan eta gora egin dut. Ateratzean irribarre bat egin diot igogailuaren atearen ondoan mahai batean eserita dagoen neska militarri, irribarre bat zeinak "ni bai txotxolo, nahastu egin naiz!" esan nahi baitu militarra eta bion arteko inkomunikazioaren hizkuntzan, eta aurrera jarraitu dut. Baina pauso batzuk eman eta gero, irribarrea desagertu egin da derrepentean nire ezpaintedatik. Izan ere, igogailua eta eskailera mekanikoen arteko hogeit hamar metro haietan urdinez jantzitako polizia baten ondotik pasa bainaiz eta polizia horri ez omen zaio gustatzen jendeak etorritako bidetik itzultzea. Ingelesez saiatu naiz nire egoera azaltzen -"I want go to eskailera mekanikora..."- baina, harritzekoa! morroiak ez omen du nire ingelesa ulertzen- eta orduan txineraz elkarrizketak mantentzeko gida atera dut poltsa batetik eta hitzen bat hasi naiz bilatzen nire egoera azaltzeko. Zoritxarrez, horrelako gidak orokorregiak dira eta ez dator bila nabilena. Nola esaten da, ba, "Ostia, hi, horra iritsi besterik ez diat nahi"? Ideiarik ez! Eta poliziak ezetz eta ezetz, hortik ez naizela pasako eta alde egiteko.

Berriro sartu naiz igogailuan eta berriro atera naiz igogailutik lehengo lekuan. Baina bigarren aldi hartan izan zen aldaketarik. Minutu batzuk lehenago erdi hutsik zegoen nasa handi hura jendez betetzen hasia zen, eta nire zoritxarrerako, han ez zegoen mendebaldarrik batere, denak txinatarrak ziren. Hemen jende asko dago, gero eta gehiago, pentsatu dut, eta jendetza horrek nire egoera zailtzen duela ulertu dudanean urduri jartzen hasi naiz. Non dago ama? galdetu dit Garazik, eta ni ahalik eta samurren bera ere urduri jar ez dadin, laster iritsiko garela erantzun

dio, nire buruari non ostia ote gauden behin eta berriro galdetzen diodan bitartean. Hala, ba, berriro igogailura...

Neska militarrek berriro ikusi gaitu igogailutik ateratzen eta sumatu ahal izan dut harridura bere aurpegian. Bera, ordea, ez da gai izan nirean larritasuna ikusteko. Ez al didazu lagundu behar ala? Orain, denborak ematen duen talaiatik, Txinan 18 egunez hoteletako zerbitzariak, harrera-egileak, eta jatetxetako langileak apur bat ezagututa, badakit txinatarrak horrelakoak direla, ez dutela ezer egiten agintzen ez bazaie, beti irribarre batez erantzuten dizutela nahiz eta esan duzunaz piperrik ere ez ulertu, eta zerbait argi ikusten ez badute, alde egiten dutela, ezin jakin nora, baina irribarrea ezpainetatik ezabatu gabe. Orain badakit baina une hartan ez, eta militarren jarrerak sutan jarri ninduen, eta gero eta etsituago sentitzen nintzen. Gauzak horrela, bigarren aldiz saiatu naiz poliziarri azaltzen eskailera mekanikoetara iritsiz gero kito zirela nire arazo guztiak, baina lehenengoa bezain alferrikakoa izan da bigarren saiakera. Orduan igogailuaren parean ate bat ikusi dut eta hortik jotzea erabaki dut. Korridore luze bat topatu dut eta bukaeran bi norabide, bata ezkererantz, eskuinerantz bestea. Eskuinekoa hartu dut eta beste korridore luze bat dago. Bukaeran berriro bi norabide eta berriro eskuinekoa hartu dut. Orain nasa alderik alde zeharkatzen duen pasabide batean nago eta handik jende asko ikusten badut ere, ezin nire taldea topatu. Eta aurrera jarraitu eta gehiago galtzeko beldurraren beldurrez atzera egitea erabaki dut. Etorritako bidetik itzuliko naiz eta igogailuaren ondoan geratuko naiz. Eta horixe egin nuen. Hirugarrenez pasa nintzen neska militarren aurretik eta hirugarrenez sartu nintzen igogailuan. Inpotentzia ikaragarria sentitzen nuen, inorekin komunikatu ezinik, nekaturik, urduri, eta Chongqingerako hegaldia galtzeko arriskuan. Inpotentzia ikaragarria, bai, baina batez ere, negargura da sentitzen nuena. Negargura itzela, gero eta jasanezinagoa. Eta Garazik lasai jarrai zezan nahi banuen eutsi beharko nion negarrari. Haatik, arazoa laster konpondu ezean, banekien ez nuela luze iraungo...

Orduantxe, nola jakin gabe, piztu zen argia. Nola ez nintzen lehenago ohartu? Orduan, berriro jo dut igogailura eta gorantz joateko botoia sakatu ordez, beheakoa sakatu dut eta atea irekitzean, bat-batean, txinatar guztiak desagertu dira kea airean nola, eta haien ordez, maletak garraiatzeko zintak agertu dira, eta haien atzetik Larraitz ikusi dut eta bere atzetik neska txinatar gazte bat, artean ezagutzen ez nuen Olivia izeneko gazte bat eta Chongqingen gure gidaria izango zena, biak ala biak larriturik.

Hogei bat minutu izan ziren, nire bizitzako une txarren Topean hasierako postuetan jartzeko modukoak. Nork esango zidan Beijingeko aireportura iritsi bezain pronto erdi-negarrez bukatuko nuela!

Kaixo, Chongqing!

Beijingeko aireportuan Maxe, Mikel, Puru eta Marisari agur esan ostean bigarren hegaldia hartu genuen eta pare bat ordu geroago iritsi ginen Chongqing-era. Larunbat eguerdia zen. Ostegun gauean Donostia bezalako hiri txikitxo batean lo egin genuen, eta 27 ordu geroago metropoli ikaragarri handi batera iritsi berriak ginen. Chongqing Txinako erdialdean dago eta bertan 6 milioi biztanle bizi dira. Haatik, bere eragin-eremuko hiri zein herriak kontutan hartzen baditugu Chongqingeko populazioa askoz ere handiagoa da eta interneten topatutako datu guztiak bat ez datozen arren -batzuek 32 milioi biztanle direla diote, beste batzuek, berriz 40 milioi direla- imajina dezakezue gutxi gorabehera erraldoi honen tamaina. Beijing, Shangai eta Tianjin-en antzera, Chongqingek status berezia dauka Txinako banaketa administratiboaren barruan eta Txinako gobernu bera arduratzen da bere kudeaketaz.

Egun gris eta euritsua zen, eta aireportutik atera ginenean Xaxa ezagutu genuen lehenik eta geroxeago Errek Jacky Chang ezizenez bataiatu zuena. Lehenengo neska gazte argal-argal bat zen eta hirian emango genituen egunetan gure bertako gida izango zen. Bigarrena gure txoferra izan zen eta aurrerago ikusiko duzue, kariño berezia hartu genion. Irtsi ginen azkenean gure hotelera eta Chongqing-eko lehenengo arratsalde hura lasai egoteari eskaini genion. Lo kuluxka txiki bat egin genuen eta gero paseo txiki bat hoteleko inguruetatik, gehiegi urrundu gabe, ez baikinik gidaririk gabe unibertso berri eta estrainio hartan murgiltzera ausartzen. Atentzioa eman zigun lehenengo gauza usaina izan zen. Izan ere, janari usain sarkor bat sumatzen baikenuen toki guztietan. Berehala ohartu ginen arrazoiak: Chongqing-eko jendeak kalean bertan kuzinatu eta kalean bertan egiten zituen otorduak. Edonora begiratuta, janari postuak topatzen genituen. Burruntzi batzuk ikusten genituen eta bertan jartzen zuten haragiak –edo dena delakoak- kolore gorrixka eta usain sarkorra zituen. Chongqing-eko sukaldaritza ospetsua da bere janari minengatik eta kaleko burruntzai haiekiko janaria jaten ausartu ez baginen ere, hoteleko jatetxean frogatu ahal izan genuen ondo merezia zuela ospea. Atentzioa eman zigun

bigarren gauza zera izan zen, Chongqing-eko jendeak ez zuela gauza handirik behar negozio bat jartzeko. Metro koadro bateko txoko bat nahikoa dute baldin eta zulo horri pertsiana bat jar badakioke. Egunean zehar tramankulu guztiak espaloian zehar sakabanatuta eta gauez dena txokoan sartu eta pertsiana jaisten zuten.

Eta gauak Chongqing-eko kaleak hartu zituenean, lotarako pilulak hartu genituen jet-laga ekidite aldera eta denok ohera joan ginen, zirrarez beterik eta neka-neka eginda.

Pagodatik

Igande goizean, bapo gosaldu eta gero, Xaxa eta Oliviarekin elkartu ginen hoteleko harreran. Haurrik gabeko gure lehen eguna zen, baita azkena ere, eta E'ling izeneko parkera eramango gintuztela esan zuten, bertatik hiria ondo ikusteko. Handik gutxira Jacky Chang-en mikrobus marroia azaldu zen hoteleko sarreran eta berehala sartu ginen hiriko trafiko beldurgarriaren barrenean. Hura kaos bat zen. Autoek, taxiak, autobusek, oinezkoek... denek nahi zutena egiten zuten eta gu txunditurik gindoazen leihatilatik begira, barrez lehertzen ikusten ari ginen ikuskizunarengatik, bai, baina apur bat beldurtuta egia osoa esan behar badugu. Zorionez, egunek aurrera egin ahala ohitu egin ginen eta beldurra desagertu zen.

E'Ling parkea hiri erdian dagoen muino batean dago kokatuta. Iritsi bezain pronto ohartu ginen txinatarrentzat eta guretzat parkeak ez direla gauza bera. Txinatarrentzat parkeak bizitzaz beteriko lekuak dira, naturari eskainiak, bai, han ere zuhaitzak eta zelai berde eder askoak baitaude, baina, guk ez bezala, txinatarrek elkargune gisa erabiltzen dituzte. Eta ez haur edo gazteentzat bakarrik, ezpada adinekoentzat. Hala Chongqing-en nola Beijingen, bietan ikusi ahal izan genituen herri abesbatzak parkeetako zuhaitzen azpian kantu kantari, kantatzearen plazer hutsak elkartutako ezezagunez osaturiko abesbatzak. Eta abesteko elkartuta ez bazeuden, Tai-chi egiteko elkartuta zeuden, edota kometak hegan eginarazteko, edo gimnasia egiteko. Guretzat parkeak paseatzeko lekuak edo haurrentzako jolasak dituzten gunek dira. Eta bitxia bada ere, Txinan egon ginen hemezortzi egunetan ez genuen haurren jolastoki bakar bat ere ikusi.

Parkerako bisita haren lehenengo geltokia te etxera iristean heldu zen eta hantxe ohartu ginen gure turista izaeraz. Te etxea itxita zegoen, guretzat zabaldu zituzten ateak eta gure atzetik itxi zituzten. Erakustaldi pribatu bat egin ziguten, tearen bikaintasunak goratzeko helburu argiarekin eta tea erosiz gure sosak bertan uzteko helburu ez oso disimulatuarekin. Mahai txiki batean eserarazi gintuzten eta neska batek estilo handiz tea zerbitzatzten zigun bitartean Oliviak itzulpenak egiten zizkigun. Hala ere, dastatu te guztiak onak zirelako irudipena daukadan arren, ezin esango dut gauza handirik ikasi nuenik tearen munduaz, izan ere, Olivia nahiko urduri zegoenez –gerora jakin genuen estreinakoz aritzen zela gida lanetan- eta gazteleraz oraindik guztiz ondo moldatzen ez zenez –ikastaro bat edo beste falta zituen-, erakustaldia porrot handia izan zen itzulpenari dagokionez. Eta guk behinik behin -antza gure turista izaeraz guztiz jabetu gabe geunden artean- ez genituen gure sosak utzi leku hartan...

Handik atera eta pagoda batera eraman gintuzten Xaxak eta Oliviak. Zortzi solairu zituen pagoda hark eta goraino igotzea neketsua izan bazen ere, behin azken solairura iritsi ondoren hiria oso-osorik ikusi ahal izan genuen. Beno, egia esatera, behe-lainoak uzten ziguna ikusi genuen. Zortzigarren solairu hartatik bi aukera genituen, aurrera begiratzea ala behera begiratzea. Aurrera begiratu gero, hiria inguratzen dituzten mendiak ikusten ziren. Oliviak azaldu zigunez, mendi garai haiek dira laino betiereko eta astun horren arrazoia. Oso garaiak dira eta ez omen diete hodeiei alde egiten uzten. Mendi berberak dira Chongqing-eko tenperatura gogorren arduradunak. Uda partean bero sapa eta itsaskorra sufritzen dute, eta ez alferrik esaten diote hiriari “Txinako labea”. Negu partean, berriz, hotz ikaragarria egiten omen du. Guk zortea izan genuen eta urrian egokitu zitzaigun bidaia egitea, sasoirik onena hiria bisitatzeko, baina egia esan, guk apenas ikusi genuen eguzkia. Begirada beherantz zuzenduz gero, bi detailetxok emango dizute atentzioa. Lehengoa ibaiak dira. Chongqing-en Yantze eta Jiling ibaiak bat egiten dute eta oso bitxia da zeren ibai biek ezberdina baitute kolorea. Yantze ibaiaren ura urdina da eta Jianling ibaiarena, berriz, marroia, ura beharrean lohia ekarriko balu bezala. Bigarren detailea, hiriaren handitasuna alde batera utzita, etxe-orratzak dira. Asko dira eta denak ikaragarri handiak. Xaxak Oliviaren bitartez azaldu zigun ezen japoniarren kontrako gerran hegazkin japoniarrek Chongqing osoa suntsitu zutela. Hiria berreraikitzeke ordua iritsi zenean, gorantz eta inolako ordenarik gabe egin zuten. Emaizta aberrazio arkitektoniko erraldoi bat izan zen eta ez da beharrezkoa arkitektoa izatea horrelako baieztapenik egiteko, astakeria galantak ikusteko aukera izan baikenuen, hala nola egurrezko etxolak etxe-orratz modernoan ondoan,

itsatsita bizkarroien antzera, mendi magaletan, ia-ia airean eskegita, erortzeko zorian ziruditen etxeak, argirik gabeko skalestrix sinesgaitz eta korapilatsuak... sinesgaitzena, dudarik gabe, hotelerako bidean, hiru karrileko errepide batean aurkitu genuen zutabea izan zen... nonbait errepide gaineko oinezkoen pasabide hark ez omen zuen luze iraungo zutaberik gabe eta beste aukerarik ezean, erdiko karrilean jartzea bururatu zitzaien!

Horrelakoa da Chongqing, kontrastez beteriko munstro kaotiko bat. Eta okerrena –edo onena, ezin jakin- zera da, kontraste haiek, berria eta zaharraren arteko kontraste haiek jendearengan ere sumatzen dela edonora begiratuta ere. Kale berean, ondo-ondoan, ikusi ahal izan genituen hala Xaxa bezalako neska fashion-ak nola agure zimurtuak, fruta garraiatzeko makila eta bi saski lepotik zintzilikaturik, orain dela mila urte bezalaxe. Baina horretaz Pagoda hartatik jaitsi ginenean ohartu ginen.

Sugetzarraren biktimak

Parketik atera gabe, Xaxak eta Oliviak Hiru Arroilen presari buruzko erakusketa bat ikustera eraman gintuzten. Erakusketa korridore luze batean zegoen, ezkerreko horman margotuta, eta Yantze ibaiaren ibilbidea irudikatzen zuen. Kontua da Hiru Arroilen presa 2009an bukatzeko asmoa dutela, eta presa horrek ondorio latzak ekarriko dizkiela Yantze ibaiaren ertzeko hiri zein herriei. Herri batzuk, esaterako, oso-osorik geratuko dira betiko uretan murgilduta. Beste batzuk, osorik ez, baina ia-ia. Eta erakusketak datu zehatzak ematen zituen: zenbat metro egingo zituen urak gora herri bakoitzean, zenbat lagunek alde egin beharko zuten, zenbat geratuko ziren. Chongqing hirian esaterako, urak bederatzi metro egingo du gora eta hasieran gutxi zela pentsatu bagenuen ere, egun batzuk geroxeago ibaian zehar egindako txango batean ikusi ahal izan genuen zeharo oker geundela, bederatzi metro horien ondorioz auzo oso bat ur azpian geratzekoa baitzen. Korridorean aurrera egin genuen, paseo lasai eta interesgarri batean, guztiz txundituta ikusten ari ginenarekin. Gehien harritzen gintuena zera zen, sugetzar urdin haren biktimak zenbaki soil eta arruntzat hartzen zituztela ikustea. Pertsona haiek guztiek euren herriak utzi beharko zituzten, euren istorioak, euren iragana... eta han zeuden denak, ezkerreko horman margoturik eta zenbaki bihurturik! Eta halako batean, bihotzak jauzi egin zigun marrazki horietako bat ikustean. Fengdu County. Number of

emigrants: 54.582. Sekulako inpresioa eragin zigun gure alabaren herria han ikusteak. Bagenekien Fengdu Yantzeren ertzean zegoela baina artean ez genuen lotzen Hiru Arroilen presarekin. Presa batekin, bai, baina ez presa horrekin, ezin jakin zergatik. Eta Fengduko zonalde bat uretan murgilduta geratuko zela jakitean tristura ikaragarria sentitu genuen.

Ez dakigu etorkizunak zer ekarriko digun, ezta Enarak bere jaioterriaren izena entzutean zer sentituko duen ere. Baina guk zerbait argi baldin badugu hori egunen batean Chongqingera itzuliko garela da, bai eta Fengdu ezagutzera joango garela ere. Fengdu berria izango da, hiria –edo zati bat behinik behin- beste aldeko ertzera lekualdatzen ari direlako. Eta litekeena da Enara aurkitu zuten lekua, “presaren ondoko obra” kokaleku zeharo zehaztugabe hori, ur azpian betiko desagertzea. Umezurtz-etxearen sarreran edota udaletxearen ondoan utzi izan balute, toki hura erraz asko aurkituko genuke. Enararen lehenengo mugarrria aurkitzea erraza litzateke. Haatik, berez aurkitzen zaila den hori are zailagoa izango da ur azpian geratuz gero. Eta hori jakiteak izugarri penatu gintuen.

Beldurraz, Sichuango operara joan aurretik.

Igande hura bukatu aurretik, bi ohartxo apuntatu nituen nire kaieraren orrietan. Lehenengoa, bazkaldu osteko solasaldiari dagokio, bigarrenari afaldu osteko ikuskizunari.

Igandeko bazkari hartan deskubritu genuen buffet hartako otorduak festa txiki batzuk izango zirela guretzat. Gure digestio-aparatuek onartzeko moduko sukaldaritza mendebaldarra eskura bagenuen ere, guretzat askoz ere interesgarriagoa zen Chongqingeko sukaldaritzaz gozatzea eta dena dastatzeari ekin genion. Gehienak jaki minak zirenez, jangelatik bizirik ateratzea bilakatu zen gure jolas dibertigarriena. Noizean behin, pikantea gure digestio-aparatua baino indartsuagoa izaten zen eta halakoetan komunerako bidea hartu behar izaten genuen harik eta “Fortasec” batek berriro martxan jartzen gintuen arte. Lehenengo bazkariko festa gogoangarri haren ostean, garagardo bat eskatu eta izan genuen solasaldirako beta nahikorik. Eta nire ohartxoetan zera idatzi nuen, lehenengo aldiz hitz egin genuela gure artean adopzioaz. Lehenengo aldiz utzi genion prestakuntzaz mintzatzeari, eta intendentzia lanak alde batera utzirik, sentimenduez hitz egiteari lotu gintzaizkion.

Beldurraz hitz egin genuen gehien bat. Gure beldurrez. Eta hurrek onartzen ez bagintuzten? Eta Garazik ahizpa berria onartuko ez balu? Beldurra sentimendu askea da, kontrolik gabekoa, usu ezkututzen duguna. Baina ez ginen bakarrik beldurrez geundenak. Eta autismoaz hitz egin genuen, gure alaben buru-osasunez, herentziaz jasotzen diren gaixotasunez, garrantzitsua den informazioaz eta sekula jakingo ez ditugun jakin beharreko guztiez. Ez dut sekula paraxutismorik egin, baina nago hegazkin batetik lehenengo aldiz jauzi behar duenak horrelako zerbait sentituko duela. Guk ere jauzi egin behar genuen, hogeita lau ordu baino gutxiago geratzen ziren bizitza osorako jauzi hura egiteko eta beldurrez geunden. Ziurrenik dena ondo aterako zen eta ziurrenik haurrak ondo egongo ziren, baina bada ez bada ere, prestatu behar genuen eta gure beldurrak mahairatuz azken prestaketak egin genituen.

Beldurrez bai, baina arrazoiez, ordea, ez genuen txintik ere esan. Egun, adibidez, ez dakit deus Itsaso eta Erre Aintziraren bila joatera bultzatu zuten zioez, ezta Jesus eta Estherren zioez ere. Sekula ez genuen hitz egin adopzioaren mundura iritsi aurretiko bideez. Bi bikoteek –guk bezalaxe- ibilbide luzea eginga zuten Chongqingeko hotel hartako jangelaraino, baina ez genien galdetu eta ez ziguten kontatu. Ziurrenik bideek garrantzia galtzen dutelako behin helmugara iritsitakoan. Gurasoak izan nahi zuten eta kito. Hurrengo egunean gure alabak ikusiko genituen lehenengo aldiz eta huraxe zen garrantzia zuen bakarra.

Arestian esan bezala, bigarren ohartxo bat ere idatzi nuen gau hartan. Izan ere, artean haurrik gabe geundela aprobeztatuz, gau partean Sichuango opera ikustera eramanez gintuzten Xaxak eta Oliviak. Opera izena izanagatik, guk ikusi genuena barietate ikuskizun bat izan zen: dragoiak, malabararak, antzezlan ulertezinak, maskarak... eta ohartxoaren arrazoia zera da, bigarrenez jabetu ginela gure turista izaeraz eta sentsazioak bidaia osoan zehar iraun zuen. Ikuskizun hura soilik guretzat egin zuten. Eszenatokiaren aurre-aurrean jarri gintuzten dena ondo ikus genezan, eta atentzio guztiak guretzat zirelarik, erregeen pare tratatu gintuzten. Orduan ohartu ginen gu dolarrak baino ez ginela beraientzat. Dolar ibiltariak baino ez. Guk, ordea, ez genuen turista izan nahi. Eta horrexegatik gonbidatu genituen gure bi gidak gurekin batera eser zitezen.

Apur bat eskandalizaturik uko egin zioten gure gonbidapenari.

Mentalitate ezberdinak ditugu, horretan ez dago zalantzarik.

Bera da!

Eta azkenean iritsi zen eguna. 2005eko urriaren hogeita laua. Urduritasuna goiz goizetik hasi ginen sabelean nabaritzen. Irribarre zabal eta lelo bat genuen ezpainetan, nahita ere ezin ezaba daitekeen horietako bat. Gosaldutakoan Xaxa eta Oliviarekiko hitz ordura joan ginen eta haiak azaldu ziguten egin beharreko guztia. Lehenik eta behin, paper batzuk bete behar genituen, kontu handiz eta hanka sartu gabe, izen-abizenak zein datu guztiak etxetik ekarritako dokumentu ofizialetan agertzen ziren bezalaxe. Paperak hoteleko bilera gela dotore batean betetzen genituen bitartean, argazkiak ateratzen hasi ginen, patata-patata esanez urduritasuna urrunduko bagenu bezala. Baina korapiloak hor jarraitzen zuen, estu eta tinko, eta horren adierazgarri eta lekuko, hoteleko banketxean ateratako argazkiak ditugu. Txinan haur bat adoptatzen duzunean, umezurtz-etxeari “dohaintza” bat egin behar diozu derrigorrez, eta derrigorrezko dohaintza guztien antzera gureak ere bazuen kopuru bat: hiru mila dolar billete handi eta berritan. Eta banketxera ailegatu eta bertako langileek banan-banan gure dolarrak zenbatzen zituzten bitartean, gu iji eta aja, irribarreak eta urduritasuna ezkutatu ezinik, Dragon Khan ospetsura igotzeko sarrerak erosten bageunde bezala.

Behin paper guztiak eta banketxean diru-sarrera egin ostean, hitz ordua jarri genuen gure gidekin erregistrora joateko, hantxe jasoko baikenituen gure alabak. Erregistroa hiriaren beste aldean omen zegoen eta gogoan dut barre egin genuela hara iristeko zenbat denbora beharko genuen galdetu genuenean: hogeit hamar minutu. Hain juxtu, igandeko txangoetara irteterakoan jasotako erantzun berbera. Bazirudien Chongqingeko edozein tokitara iristeko hogeit hamar minutu nahikoa zirela. Gerora ohartu ginen Xaxak arrazoia zuela, gehienetan gure txangoak ez zirela ordu erdira iristen. Trafiko kaotiko baten eta semaforoei jaramonik ez egitearen abantailak nonbait!

Erosketa batzuk eginez pasa genuen goiza eta goiz bazkaldu ostean ordu bi eta erdietan jaitsi ginen harrerara. Haurrak arratsaldeko hiru eta erdietan iritsiko ziren erregistrora eta guk ordu erdi lehenago egon behar genuen han, hartara, han

bete beharreko paperak lasaiago –eufemismo bat baino ez da- beteko genituen. Harreran elkartu eta lehenengo galdera: “ze, oso urduri?”. “Beno, pixka bat” izan zen gure erantzuna, jakinda hura ere gezur txiki bat zela, eufemismo berri bat, urduritasuna baretzeko trikimailu bat

bestarik ez, ezpainetan goizetik marraztuta genuen irribarre hark kontrakoa baitzioen. Jacky Changen mikrobusean sartu eta gure alabenganaino eramango gintuen azken bidaia hartatik bi dira oroitzapenen ganbaran gorde ditudanak. Lehenengoa, eguzkia atera zela lehenengo aldiz, eta bat-batean eguna halako argitasun eder batez jantzi zela. Bigarren oroitzapena askoz ere bitxiagoa da eta trafikoarekin du zerikusirik. Izan ere, hiria zeharkatzen ari ginelarik, sei bat karrileko etorbide zabal baten erdi-erdian agure bat ikusi baikenuen leihatiletatik, soka batetik tiraka kutxa ikaragarri pisutsu eta handi bat garraiatzen ari zela, mantso-mantso, barraskilo ñimiño bat bailitzan. Bitxia da oroimenak zer nolako gauzak gordetzen dituen!

Mikrobusetik jaitsi ginenean, Xaxak pasabide batetik joan gintezen agindu zigun. Pasabidea ikustean zeharo txundituta geratu ginen. Ez dakit zer espero genuen erregistroa joango ginela esan zigutenean, baina ez zen hura inola ere espero genuena. Pasabide zatar eta ilun bat zen, zikina eta zaharkitua, eta gogoan dut pasabidearen sarreran litxarrerria postu bat topatu genuela. Hogei bat metro egin genituen eta igogailu bat topatu genuen. Urduritasuna “in crescendo” zihoan, are gehiago igogailuko atea ireki eta neskato txinatar txiki batzuk euren zaindarien besoetan atera zirenean. Ez, ez ziren gure alabak, ezin gureak izan ezen beranduago etortzekoak baitziren. Haatik, gureak ez zirela jakinagatik, gure bihotzak saltoka hasi ziren. Ze gutxi falta zen! Ze gertu geunden! Nola edo hala sartu ginen igogailuan –txikia zenez bi bidai egin genituen- eta gure solairura iritsi eta atea zabaltzean erregistroa ikusi ahal izan genuen. Hura bai, hura erregistro bat zen, areto handi eta ondo argizatua, marmolezko zorua eta horma gorriak zituena. Gure parean erakusmahai batzuen atzean funtzionario txinatar batzuk ikusi genituen lanean, eta gure ezkerrean...

Bera da! -Larraitzek zidan esan.

Larraitzen hitzak galdera eta baieztapena izan ziren aldi berean. Nik ere ezkerretara egin nuen so, eta haur batzuk ikusi nituen. Larraitzek berriro ahoskatu zituen segundo bat lehenago botatako bi hitz haiek, baina bigarren hartan, hitzok ez zuten galdera kutsurik, baieztapen potoloa zen: “bera da!!”. Larraitzek negarrari eman zion, bat-batean abentura luze hartan pilatutako emozio, tentsio-une, eta urduritasunen iturria zabaldu izan balitz bezala. Besarkatu ninduen eta niri ere malkoren batek egin zidan ihes. Bai, berehala ezagutu genuen, bera zen eta ez zegoen dudarik. Haur hura zen 53 egun lehenago Txaran ikusitako argazkian agertzen zena. Gure Enara Fuhan txikia. Bere zaintzailearen magalean zegoen eserita. Ondoan Aintzira

zegoen eta sofa berean etzanda Gara, biberioia zurruputzen. Guregandik zortzi bat metrora egongo ziren eta, egia esatera, ez dakit Errek eta Itsasok zein Jesusek eta Estherrek nola ikusi zituzten euren alabak ezta zer sentitu zuten ere. Dakidana da hiru familiok geldirik geratu ginela une batez, zer egin jakin gabe. Inork ez zigun “aurrera” esan, edota “egon zaitezte apurtxo batean”, ez genekien horrelako egoeretakako protokolorik ba ote zegoen. Segundo batzuk baino ez ziren izan harik eta, sofatik altxatu gabe, hiru zaindari txinatarrek halako keinu bat egin ziguten arte. Orduan, Esther, Itsaso eta Larraitz, pixkanaka-pixkanaka, haurrengana hurbildu ziren, hiruak batera baina nork bere alaba baino ikusten ez zuela.

Eta Larraitzek zaintzailearen besoetatik hartu zuenean, Enarak irribarre egin zion.

Maratoi korrikalaria nola

Hortik aurrerakoak nahastuta dauzkat oroitzapenen kutxan. Nago emozioek eta une hartako urduritasunak dena lausotu zutela. Maratoi korrikalaria helmugara heldutakoan nola, hala sentitzen ginen gu, pozaren pozez amaierara iristeagatik, baina baita erdi zorabiatu ere. Badakit, une hura bideoan ikusteko aukera izan baitut, lehenengo une haietan Enara Larraitzen besoetan egon zela eta lasai zegoela oso. Garazi ere han zegoen, bere amari itsatsita, ahizpa berriari serio-serio begiratu, zer gertatzen ari zen oso ondo ulertu gabe. Jakin bazekien dena, hamaika aldiz kontatu baikenion ahizpa txikiaren istorioa, baina nago lekuz kanpo ibili zela harik eta guretzat bakarrik ez beretzat ere une garrantzitsua zela eta eginbehar garrantzitsu bat zuela ohartu ginen arte. Izan ere, Garazik opari bat zekarkion Enarari, bere panpinetako bat. Aldez aurretik esana genion ikusi bezain pronto eman behar ziola bere oparia baina Garazik espero ez zuena zera zen, Enarak ere opari bat izatea beretzat, Chongqingeko hartz panda bat aurreko egunean parkean erositakoa, eta txundituta begiratu zion opariari lehenik eta Enarari gero. Gure zorionerako, irribarre keinu bat egin zioten elkarri.

Badakit, halaber, handik gutxira, nik ere hartu nuela besotan Enara eta keinuka eta imintzioka saiatu nintzela irribarre bat lortzen. Alferrikako saiakerak izan ziren, ordea. Antza, beldurra ematen nion eta ez da harrizkeoa. Ziurrenik ordura arte oso gizon gutxiren besoetan egona zen gure alaba, bederatzi hilabetez emakumezkoen mundu itxi batean eta bat-batean, han

nengoen ni, nire kokospeko eta nire betaurrekoekin. Ni neu ere beldurtuko nintzen ni bezalako batek besotan hartu izan banindu. Ez, ez ninduen gehiegi harritu. Larraitz edo ni, bietako bat ondo ez hartzea gerta zitekeen zerbaitekin zen eta halaxe gertatu zen. Denbora eman beharko genion elkarri.

Barbaro zoriontsuak

Gogoan dut bururatu zitzaigun lehenengo gauza poteko pure bat ematea izan zela. Potea ireki eta ematen saiatu zen Larraitz, baina oso gutxi jan zuen. Garazik ere animatu egin zuen Enara poteko pure hura jan zezan baina dena alferrik izan zen. Gerora ohartu ginen Enarak ez zekiela koilaratxoak jaten, ez zegoela ohituta koilaratxoa ahoan sartzen. Asignazioaren argazkiarekin batera bidalitako osasun txostenak zioen ondo jaten zuela, baina ez dakigu ze puntutaraino ote zen egiazkoa baieztapen hura. Izan ere, Enara ero moduan jartzen zen hotelean biberioia prestatzen ari ginela ikusten gintuen bakoitzean. Antsia ikaragarria sartzen zitzaion biberioia ikusi orduko, eta egun pentsatzen dugu goseak egon zela umezurtz-etxean. Poteko pure zein frutekin, ordea, ez zitzaion gauza bera gertatzen. Ez zen geldirik geratzen eta ahokoa kanpora botatzen zuen, ahoan zuen horrekin zer egin jakingo ez balu bezala. Beijingeko hotelean, esaterako, meriendaren ordua sufrikario itzela izaten zen. Enararen ezinegona hain handia zen non moketaren gainean etzaten zen eta halaxe jarri behar izaten nuen nik zerbaitekin jango bazuen. Hura bai ikuskizuna, hura!

Zer ordutan atera ginen erregistrotik ezin esango dizuet, arestian aitortu bezala dena lausoturik agertzen baitzait, dena nahastuta, norbait nire oroitzapenen ganbaran sartu eta bildutakoa hankaz gora utzi izan balu bezala. Argazki ofizial bat atera genuen Garazi gabe –funtzionarioek debekatu zioten Txinako familia liburuan agertzeko eskubidea-, jarraian argazki ez-ofiziala atera genuen laurok batera –ederki kostata atera ere, Enara ez baitzen geldirik geratzen-, zaintzaileari opari bat egin genion –adopzioetako protokolo ez idatzi batek hala egin behar dela dio- eta erregistro hartan bete beharrekoak ahal izan genuen moduan bete genituen eta handik aurrera gogoratzen dudana hurrengo zera da, hotelera iritsi eta bainuontzian sartu genituela bai Garazi eta bai Enara ere. Enara seko beldurtuta sartu zen bainuontzian, beretzat berria bailitzan, baina

berehala lasaitu eta plisti-plasta egiten hasi zen bere ahizparekin. Eta gu, jakina, adurra zerigula geunden.

Eta gauean afaltzera jaitsi ginenean, jada ez ginen zazpi, hamar baizik, eta mahaian, plateren ondoan biberoiak, adur-zapiak eta koloretako koilaratxoak agertzen hasi ziren, eta bat-batean jangelako mahai serio hark bere izaera eraldatu zuen eta, nola jakin gabe, bilakatu zen txiki-park, hainbeste ziren-eta hango panpinak...

Logeletara itzuli eta egun zoragarri hura amaitutzat jo aitzin Jesusek, jangelako mahai hura nola utzi genuen ikusirik, zera esan zuen, ziur zegoela txinatarrek barbarotzat joko gintuztela eta nago arrazoia zuela gure lagun galegoak.

Barbaro zoriontsuak ginen.

JACKY CHANG

Beijing-ekoa bezalako aireportu erraldoi batera iritsi bezain pronto galtzen baldin bazara, bidaia ez duzula batere ondo hasi pentsa dezakezu. Hori, edo tonto samarra zarela, talde baten atzetik joatea munduko gauzarik errazena baita. Aukeran nahiago lehenengoa, milaka txinatarren artean galdu zena neu izan bainintzen.

Baina tira, bidaia gaizki hasi bazen ere, hortik aurrera dena ondo joan da. Gainera, aerofobia bat-batean sendatu zait Jacky Chang-i esker. Jacky -ez dugu bere benetako izena ezagutzen-gure txoferra da Chongqing hirira iritsi ginenetik. Gure txoferra edo gure aingeru guardakoa, hemengo trafikoa eta kaos erabatekoaren artean ez baitago ezberdintasun handirik. Madrilgo M-40a haur jolasa da Chongqing-eko errepide aldapatsuen ondoan. Autoek begiratu gabe gurutzatzen dute errepidea alderik alde, errotondetan ere ezkerretara begiratu gabe sartzen dira, datorrena geldituko da... eta datorrena gelditzen denean, arnasa hartzen duzu. Eta ikusi beharreko astakeria guztiak ikusi dituzula pentsatzen hasita zaudenean, zuregana datorren auto batekin egiten duzu topo. Zuregana, gauez, argirik gabe eta kontrako norabidean... Jackyk, irainik bota gabe, iskin egin zion eta aurrera jarraitu zuen. Chongqing-eko trafikoa ezagutu eta gero hegazkin batean hamar mila metrotara egotea gauzarik seguruena iruditzen zait.

Beno, milaka gauza kontatuko nizkizueke baina lekurik gabe geratzen ari naiz eta hurrengo baterako utzi beharko dut. Datorren astean Beijing-etik izango da, aireportuan berriro galtzen ez banaiz...

Berrian argitaratua, 2005eko urriaren 27an

Jacky Chang

Ikusten duzuen bezala Txinan egon nintzen bitartean ez nion hutsik egin ostegunero Berriako irakurleekiko hitz-orduari. Ez zen beharrezkoa, hiru Maratila hozkailutik atera eta argitaratzeko prest utzi baintuen egunkarian. Zer nolako bizitza egingo genuen ez genekienez, dena lotuta uztea nuen onena. Hala ere, Txinan egonda aukera paregabea nuen zerbait berezia egiteko eta hala agindu nien Berriakoei, ahal izanez gero bidaliko nizkiela zutabeak Txinatik. Eta ez pentsa erraza izan zenik, arkatza eta borragomarekin lan egiten duzunean zaila baita mila eta laurehun karakterera noiz iritsi zaren jakitea... ez dakizu testu-prozesadorearen garrantzia zein den harik eta faltan duzun arte!

Zutabeak zein eguneko gorabeherak idazteko tartek izan ziren Chongqingeko egonaldiaren ezaugarrietako bat, baita Beijineko egonaldiarena ere. Bake apur bat behar nuen, haurrak lokuluxka egiten ari zirenean hoteleko tabernara jaisten nintzen idaztera edo bestela ziber-gelara, mezu elektronikoak zein argazkiak bidaltzera. Gauetan ere, neskak lotan utzi ostean, liburu hau idazteko hain beharrezkoak izan diren ohartxoak idazten nituen, Chongqing beer baten laguntzaz.

Baten bati gehiegizkoa irudituko zaio "Jacky Chang" izeneko zutabearen trafikoari buruz idatzi nuena. Nik, ordea, motz geratu nintzelako susmoa daukat, baina mila eta laurehun karakterek ez dute luze jarduteko biderik ematen. Zinez beldurgarria da hango kaosa! Chongqingeko egonaldiari buruz egiten ari naizen narrazio honetan behin baino gehiagotan aipatu dut trafikoaren kaosa. Gu mikrobus batean mugitzen ginenez, beste ibilgailuak baino zertxobait gorago egoten ginen errepidean. Eta gure talaiatik babestuago sentitzen ginenez, dibertigarri baina dibertigarriago generitzen astakeria haiei guztiei. Oinezkoek ez zuten inolako arazorik errepidea nahi zuten tokitik zeharkatzeko eta alderik alde joateko beta nahikorik ez bazuten,

konponbide erraza zegoen: errepide erdiko marren gainean geratzen ziren autoen artetik jarraitzeko zirrikitu bat noiz agertuko zain. Bertakoen beldur ezak txundituta uzten gintuen behin eta berriro. Zeinek esango zigun ezen, hamar egun geroago, guk ere horrela zeharkatuko genituela Bejingeko kaleak!

Beijingen ez bezala, Chongqingean ez genuen apenas bizikletarik ikusi, hiria hain da aldapatsua. Baina bizikletak alde batera utziz gero, munduko garraio mota ia guztiak ikusi ahal izan genituen hango errepideetan: luxuzko autoak, historia-aurreko autoak, taxi horiak, berdeak zein gorriak –bakoitzak bere tarifa zuelarik-, motor arruntak, moto-taxiak, sidekarrak, aterik gabeko kamionetak, kamioi handiak, kamioi txikiak, gurea bezalako mikrobusak, lineako autobusak –den-denak modu ezberdin batez margotuak-, gurdiak... ez zuen inporta nola, kontua zerbait edo norbait garraiatzea zen, eta ibilgailu haiek guztiak hango errepidetan elkartzen ziren, aldapetan gora eta behera, ikaratzeko moduko koktel bat sortuz. Chongqingean bazaude eta arriskua gustuko baduzu, ez galdu taxi bat hartzeko aukera; bi euroren truke adrenalinaz beteriko bidaiak ahaztezin batez gozatuko duzu!

Hiru bisita

Trafikoaz aparte, badira beste kontu batzuk narrazio honetan aipatzeko modukoak. Bisita asko egin genituen, batzuk oso interesgarriak eta beste batzuk ez hain interesgarriak. Multzo honetan, esaterako, zoologikoari egin genion bisita sartuko nuke, azken batean, hango eta hemengo zoologikoak antzekoak baitira. Dena den, zoologikoan ohartu ginen Chongqingeko jendea ez zegoela batere ohituta mendebaldarrak ikusten eta beraientzat askoz ere interesgarriagoak ginela gu -eta batez ere Garazi- karioletako piztiak baino. Dolar ibiltariak ginen gure gidentzat eta ikuskizun ibiltaria bertakoentzat! Eta modu berean, hiriko erdigunera egin genuen bisita ere ez guke gogoan hartu beharrekoen artean sartuko, dendaz beteriko kaleak zein merkatari-gune handiak ezagutzen baititugu.

Bisita interesgarriei dagokienez, hiru dira aipatu beharrekoak. Lehenengoa Chongqingean erdi-edian eta etxe-orratzez inguraturik aurkitu genuen tenplu budista txikira egin genuena da. Gezurra zirudien hango zarata eta kaosaren bihotzean halako oasi bat aurkitzea, leku baketsu

bat non isiltasuna zen nagusi, ate hura zeharkatzean beste mundu batean sartu izan bagina bezala. Budistek intsentsua erretzen zuten Budarekin komunikatze aldera, eta Xaxak azaldu zigunaren arabera, zenbat eta ke handiagoa atera, orduan eta hobea izango zen Budarekiko komunikazioa. Tenplu txikia izan arren, bazituen atean tenplu orok izan ohi dituen eskale profesionalak, eta handik ateratzean, mikrobuserantz gindoazela, Xaxak ohartarazi zigun, kezkatuta ohartarazi ere, ezen ez geniela eskale haiei yuan ziztrin bat bera ere eman behar, ezta bururatu ere. Eta Jesusek arrazoiaren galde egin bazien ere, nago hala Oliviak nola Xaxak, aitzakiak jarri zituztela galderari erantzunik ez emateko.

Zerrenda honetako bigarrena Chongqing zaharrera egindako txangoa da. Chongqing zaharreko kaleak japoniarren bonbardaketaren ostean zutik geratu ziren bakarrak omen dira. Kale estu-estuak dira eta denda txikiz josita dago turistak sosak bertan utz ditzan. Janari postuak ere hamaika, eta behin baino gehiagotan izan ginen eskaintzen zigutena dastatzeko tentatuta, baina komunerako bisitak ugaritzeko arriskuak atzera eragin zigun. Han geundela beste te etxe bat ikustera eramán gintuzten, baina lehenengo egun hartan ez bezala, oraingoan hurrekin joan ginen, eta halako batean tea bihurtu zen, nola jakin gabe, esne. Biberoiaren ordua zenez, teari ez genion jaramon handirik egin. Haur-turismoak horrelakoak ditu nonbait!

Bukaerako Chongqingeko museo nagusira egindako bisita utzi dut, interesgarriena dudarik gabe. Museoak lau solairu ditu eta eraikin moderno batean dago kokatuta. Bertako historiaz, naturaz, arkeologiaz eta horrelako gaiez jakin beharreko guztia aurkituko duzu museoan eta aukeran hobe hurrekin ez joatea... baina tira, gure kasuan ezinezkoa zen... zorionez!

Lonely Planet estiloko gomendio labur-labur hauek eman ostean Chongqing itsusi zein zoragarriari agur esateko ordua iritsi delakoan nago. Ia ohartu gabe, astebete pasa genuen han eta, gure alabak jaso eta egin beharreko burokrasia guztiak egin ostean, bagenuen Beijingera itzultzeko ordua. Beijing bidaiaren bigarren partea zen, turista baten ikuspuntutik interesgarriena Harresi Handia, Udako Jauregia eta ospetsuak diren hainbat leku zein monumentu ikusiko baikenituen, eta hori gutxi balitz, Puru eta Marisaren alaba Laida Ju eta Maxe eta Mikelen alaba Xiao Maren ezagutuko genituen. Bagenuen bai, Chongqing utzi eta Beijingerako hegaldia hartzeko gogorik, baina era berean, hegazkinak abiadura hartu eta zerurantz igotzean, astebete lehenago hartu gintuen hiri kaotiko hura gero eta txikiago ikustean, pena ikaragarria sentitu nuen bihotzean. Pena guregatik, bizitza aldatu zizkiguten

egun zoragarri haiek bukatuak zirelako, perfekziotik oso gertu egon zen egonaldi hura amaitua zelako, eta Beijingen dena ezberdina izango zelako sentsazioa genuelako. Eta pena –gure pozaren tamaina berekoa- Enararengatik. Bere historiaren zati bat han, gure azpian, geratuko zen, bere sustriak eta bere jaioterria atzean utziko zituen, Yantze ibaiaren uretan murgildurik... Eta gure buruari zin egin genion ezen egunen batean itzuliko ginela, gurengatik eta gure alabarengatik.

Ez zen “agur” bat izan, “gero arte” bat baizik.

Kaixo, Beijing!

Urriaren 29ko eguerdian iritsi ginen Beijingeko aireportura. Goizeko 8etan logelako atean bertan maletak jaso zizkiguten eta ehun yuanen truke –hamar euro inguru- hoteleko langileak arduratu ziren gure ekipajea fakturatzeaz. Hoteletik ateratzean ezuste desatsegin bat aurkitu genuen. Izan ere, Chongqingetik alde egin aurretik gure txofer Jacky Chang-ekin argazkia ateratzeko asmoa baikenuen. Ez dakit zer pentsatuko zuen gutaz –ziurrenik hark ere barbarotzat gintuen, hain ziren ozenak gure txangoetako barre algarak- baina kariño berezia hartua genion eta eskupekoa geuk eman nahi genion. Horrelako bidaietan eskupekoaren kultura oso zabalduta dago eta tarifak, nolabait esatearren, araututa daude. Araututa egoteak ez du esan nahi denak aldarte berberarekin ematen direnik eta batzuk gustura ematen diren bezala, beste batzuk ez dira hain gustura ematen. Gure kasuan, gu oso pozik geunden bai Oliviak eta Xaxak bai Jacky Chang-ek egindako lanarekin, hain pozik non tarifek araututakoa baino gehixeago eman baikenien. Zoritxarrez, baina, txoferrari eskura eman ezinik geratu ginen.

Beijingerako hegaldiak bi orduz iraun zuen, eta zinez apoteosikoak izan ziren, bidaiaren unerik okerrenera dudarik gabe. Barne hegaldia zenez, gu ginen mendebaldar bakarrak hegazkin txiki hartan. Bidaiari gehienak enpresa gizonak ziren eta hegazkina lepo zegoen. Estu-estu bidaiatzea latza izanik, are latzagoa da zurekin doazen hurrek gaizki portatzeko unea dela erabakitzen badute eta halaxe erabaki zuten bai Garazik bai eta Enarak ere. Garazirentzat hirugarren hegaldia zen eta ordurako sumatzen genuen zerurantz igotzeak eta -batez ere- zerutik jaisteak ez ziola grazia handirik egiten. Eta Enarari dagokionez zera esango dizuet, orduan ohartu ginela

ez dela toki batean geldirik luze geratzen den horietakoa. Baina tira, nola edo hala iritsi ginen Beijingera eta hurbiltze lanak egiten zituen bitartean hiria zerutik ikusi ahal izan genuen. Chongqing-i ez bezala, Beijingi hiri ordenatu baten itxura hartu nion, karratuagoa eta ordenatuagoa. Eguna eguzkitsua zen, eta urrunera mendi kateak ikusten baziren ere, lau zela ohartu ginen.

Bigarren aldia zen aireportura iristen ginena eta, zorionez, ez genuen inolako arazorik izan maletak hartzeko garaian. Eguerdia zen eta aireportua pil-pilean zegoen, jendez mukuru, eta maleten ondoan geratu ginen gure bidaiia-lagunak noiz iritsiko zain. Urduri geunden denok baina batez ere Itsaso eta Erre, Marisa eta Puru koadrilako lagunak zirelako. Nolakoak izango ote ziren Laida Ju eta Xiao Maren? Zer moduz joango zitzaien abenturaren lehenengo partea gure lagunei? Ate baten ondo-ondoan geunden eta erretzera atera ginenean ohartu ginen kanpoan, itzalean, hotza egiten zuela. Azkenik, hogei bat minutu zain egon eta gero, jendetza hartan ikusi genituen gure lagunak. Mikel eta Puru izan ziren lehenak maleta guztiak zekartzatela gurditxo banatan, gero Maxe, irribarre zabal-zabala ezpainetan, Xiao Maren aulkitxoan zekarrela, eta azkena Marisa Laida Ju-rekin. Eta gogoan dut Marisak Itsaso ikusi zuelarik korrikari eman ziola eta besarkaturik negarrari eman ziotela biek ala biek. Bidaiaren unerik politenetako bat izan zen. Koadrila bereko bi lagun haiek adopzioarako ibilbide osoa eskutik helduta egina zuten, euren zalantzak, euren ametsak eta une latzak elkarren ondoan pasa zituzten eta soilik azken astean banandu ziren, unerik garrantzitsuenean hain justu, euren alabez “erditzeaz” zeudenean, herrialde berean baina elkarrengandik bostehun kilometrora. Zinez izan zen zirraragarria besarkada hura, betiko gogoan geratzen den une horietako bat.

Haatik, ez zen bakarra izan. Izan ere, bizitzak etengabe egiten du aurrera, eta batzuetan “kaixo” esan behar den bezala, bestetan “agur” esan behar da. Beijingeko aireportuan Oliviari esan genion agur eta une hura ere berezia izan zen. Jacky Chang-i bezala, Oliviari ere kariño berezia hartu genion. Olivia gaztetxoa zen, neskatxa urduri eta inuzente bat, gazteleraz hala moduz moldatzen zena, eta pena sentitu genuen agur esatean. Eta esango nuke berak ere pena sentitu zuela guri agur esatean, ez alferrik gurea izan zen bere lehenengo adopzio taldea.

Baina tira, esan bezala agurrek ez dute mundua geldiarazten eta, handik aurrera, Yolanda izeneko neska batek eramango zuen gure taldea.

Irribarrerik ez

Chongqing bezala, Beijingen ere mikrobus bat genuen zain aireportuan. Erdiguneko Wanfujing izeneko hotelean hartu genuen ostatu, eta hara iristean ohartu ginen dena ezberdina izango zela. Harrera ikaragarri handia zen, dotore baino dotoreagoa, erdian eskalinata eder bat eta piano bat zuena. Bai probintziakoa bai hiriburukoa, biak ziren lau izarretako hotelak baina bata eta bestearen artean alde ederra zegoen. Gurea halakoa bazen, ezin imajina dezaket nolakoa izango ote den guri ez baina iparamerikarrei eskaini ohi dieten Hilton ospetsua!! Eta hotela hobea zela ohartu ostean, beste xehetasun bati ere erreparatu genion: bertako langileek, Chongqingekoek ez bezala, ez zigutela irribarre ziztrin bat ere eskaintzen. Tratua askoz ere hotzagoa zen, turistek bisitez kokoteraino baleude bezala. Chongqingeko zerbitzari prestu eta lagunkoiak, haien begirada jatorrak eta konplizitate keinuak bat-batean desagertu ziren, atzean geratu ziren, hango aldapetan galdurik. Chongqingeko hoteleko jangelakoek, barbarotzat jotzen gintuzten haiek, bukaerako keinuak egiten zizkieten gure alabei, laztantxo bat noizean behin, eta izan zen gurekin argazkia ateratzeko ausardia izan zuenik. Beijingen, ordea, hura guztia desagertu zen eta litekeena da hala behar izatea, hiriburuetan ohituta baitaude kanpoko jendea hartzen eta, ohituraren ohituraz, begikotasuna galtzen joan dira pixkana-pixkana.

Xehetasun horrek, berez, ez dauka inolako garrantzirik, tratu hotzak ez baita tratu txarraren sinonimo, baina guretzat esanguratsua zen gure susmoa berresten zuelako. Beijingeko egonaldia ez zen Chongqingekoa bezalakoa izango. Ez genekien nolakoa izango ote zen, baina bai ezberdina izango zela. Eta halaxe gertatu zen. Beijingen ere dena primeran atera zen. Bisitak interesgarriak izan ziren, haurrak primeran egon ziren, Yolanda ere jatorra zen oso. Dena primeran, aizue! Ezin gogora dezaket une txarrik, eta handik ere gauza mordoa sartu genuen oroitzapenen maletan, ordurako nahikoa beteta zegoen horretan. Baina sentazioa daukat ezen bi egonaldiak, biak ala biak primerakoak izanagatik, ezberdinak izan zirela.

TXINA ETA BLOK

Sentitzen dut baina ezin dizuet datu zehatzik eman Beijing-en ikusi ditudan gauza guztien inguruan. Yolanda, gure itzultzaileak, dinastiez eta enperadoreez hitz egiten digu etengabe, bertako jendeaz eta ohiturez, eta horrela ezin da, niri datuok ihes egiten didate. Lehengoan, esaterako, Harresi Handian izan ginen eta zenbat kilometro dituen eta zein urtetan eraiki zuten kontatu baziguten ere, niri dena ahaztu egin zait jada. Ni horrelakoa naiz.

Txinatarrek harro-harro esaten dute Harresi Handia ilargitik ikusten dela, eta nik sinistu egiten diet. Beheko aldetik ikusita ikusgarria da, inguruko mendietan gora egiten baitu suge bat bailitzan, baina igotzen hasten zarenean beldurgarria da oso. Izan ere, eskailerak handi samarrak dira, eta jaistean hasten dira komeriak. Babesteko eraiki omen zuten baina nekez imajina daiteke ejerzito bat harresia erasotzen...

Ejerzitoa aipatu eta Beijing militarrez josita dagoela etorri zait gogora. Gazte-gazteak dira eta edonon topa daitezke. Txinatarrek lanbide absurduetarako duten joera ezagutu ondoren ez nau batere harritzen. Lehengoan supermerkatu txiki batean emakume batek sakatu zigun igogailuaren botoia eta ziber-taberna honetan zortzi langile daude lau bezero hartzeko... Txina eta txinatarrek horrelakoak dira.

Berrian argitaratua, 2005eko azaroaren 3an

Ohiturak

Beijingen egon ginen hamar egunen gaineko narrazioa Harresi Handira egin genuen bisitarekin has liteke inolako arazorik gabe. Edo bestela Udako jauregira egindako txangoarekin, edota hiri debekatuan zehar egindako paseoarekin. Baina lehenengoaren handitasunaz eta bigarrenaren edertasunaz luze mintzatzen dira bidaia liburuak eta nik ez dut Txinako monumentuei buruzko liburu bat idatzi nahi. Gainera, zer nahi duzue nik esatea, ez genien jaramon handirik egiten ematen zizkiguten azalpenei, nahikoa lan bagenuen gure alabei kasu egiten eta. Aukeran nahiago dut gordetako sentsazio zein oroitzapenen hariari tira egitea ezen ez monumentu haietan ateratako argazkiak deskribatzea.

Hasierako egunak gogorrenak izan zirelakoan nago. Halako batean, hirugarren egunean denok pot egin genuen, egun haietako emozioek, bidaiek, eta gurasotasun estreinatu berriek leher eginda utzi izan bagintuzte bezala. Gainera, talde handiagoa izanik zailagoa zitzaigun eguneroko ohiturak finkatzea eta haiek gabe arraro sentitzen ginen. Gogoan dut hirugarren eguneko arratsalde hartan lehendabizikoz egon zela familia bakoitza bere aldetik. Ordura arte, elkarrekin joaten ginen toki guztietara, talde handian txangoetara eta talde txikiagotan arratsaldetako paseotara. Bazkariak txangoen arabera antolatzen genituenez, afariak gure kontura egiten genituen baina hoteleko jatetxea ez genuen oso gustuko –nabarmen garestiagoa zen, gainera- eta artean afaltzeko toki aproposik aurkitu gabe geunden. Gau hartan, ordea, familia bakoitza bere aldetik joan zen afaltzera, edo behintzat gu bakarrik egon ginen afaltzen janari azkarreko jatetxe batean. Kit-Kat moduko egun bat izan zen, geldialdi bat atseden apur bat hartzeko. Haatik, hurrengo egunean hoteletik berrogeita hamar bat metrora-edo, taberna txikitxo bat aurkitu genuen zeinak pasta eta plater konbinatuak ematen zituen eta, halabeharrez, hamar bat lagunentzako gela bereizi bat zuen. Handik aurrera, ia gauero jaitsi ginen taberna hartara afaltzera eta gehienetan familiaren batek huts egiten bazuen ere –haurren ordutegiek agintzen zituzten gure urratsak- guretzako eta solasaldirako tartetxo bat topatzen genuen han. Beijingen finkatu genuen lehenengo ohitura izan zen eta niri neuri, behintzat, garrantzitsua iruditu zitzaidan, hain garrantzitsua ezen, orain Beijing hitza entzuten dudanean, oroimenak tabernako gela bereizi eta txiki hartara eramaten bainau.

Bi Txina

Baina ez toki horretara bakarrik. Izan ere, zutabeen aipatu ziber kafeak eta haraino iristeko zeharkatu behar izaten genuen bidezidorrak ere oroitzapen onak ekartzen baitizkirate. Itsasok azaldu zidan nondik joan behar nuen: etxadiaren beste aldean dago ziber kafea, eta bi aukera dituzu, edo buelta osoa eman, edo hotelaren parean dagoen kale estu batetik etxadia zeharkatu. Aukeran zeharkatzea zen onena, baina behin galdu nintzen aireportuan eta ez nuen esperientzia errepikatu nahi. Ederki damutu nintzen gero! Hiribideak hain ziren luzeak non etxadiaren beste aldera iristeko ordu erdi baino gehiago behar izan nuen! Handik aurrera, etxadia zeharkatuko nuela erabaki nuen eta, denbora asko aurrezteaz gain, kale estu haiek

ezagutu ahal izan nituen. Beijingeko turismo gidetan agertzen ez den Beijing baten isla txikitxo bat alegia.

Kaletxo hartan mikrobusetik ikusten ez genuena ikusi genuen. Harrizko etxe txiki zaharkituak ikusi genituen, txinatarrentzako jatetxe txinatarrak, merke-merkeak zirenak eta argazkidun kartarik ez zutenak –ez ginen, hala ere, sartzen ausartu-, auzoko fruta dendak, mekanikoak kale hura tailertzat zeukatenak... Atentzioa ikaragarri eman zidatenak lokal txiki batzuetatik irribarrez agurtu eta eskuaz beraiengana joateko agintzen zidaten emakumeak izan ziren. Nonbait ez zeuden ohituta turistak handik paseoan ikusten baina nik begirada jaitsi eta lurrera begira jarraitzen nuen aurrera, zer gerta ere. Bidaiaren bukaeran jakin nuen ile-apaindegiak zirela neska haien negozioak... Paseo hura ere eguneroko ohitura bilakatu zen niretzat eta ez dut ukatuko, handik pasa nintzen lehenengo aldian seko beldurtuta nengoen, baina ohituraren ohituraz gustua eta guzti hartu nion bidezidor hari. Kale hark hiribide handi batean zuen bukaera. Eskuinera jo eta handik berrogeita hamar metrora Itsasok gomendatu zidan ziber kafea zegoen. Handik bidali nuen zutabea eta egun haietan ateratako argazkiak gorde nituen ziber-espazioan, memoria txartelak mukurua egon ez zitezten. Zerbitzariak jatorrak ziren eta behin baino gehiagotan saiatu ziren gurekin hitz egiten, nongoak ote ginen jakite aldera. Haatik, nire ingeles kaskarrak –beraiena bezain kaskarra, esan dezadan bide batez- behin eta berriro huts egiten zuen eta komunikazioa zaila izaten zen. Google-ri esker Donostiako irudi batzuk erakutsi ahal izan nizkien baina uste dut ez zutela piperrik ulertu Basque Countryari buruz hitz egiten hasi nintzaienean...

Bai bidezidor horretara, bai tabernara iristeko, errepidea zeharkatu behar izaten genuen. Zebrabidea berrehun metrora zegoen eta txinatarrak gai baziren errepidea alderik alde zeharkatzeko, gu ere gai izango ginen, badakizue, zer ikusi, hura ikasi. Beraz, guk ere ikasi genuen bi norabideak banatzen zituen marra gainean gelditzen. Hasieran beldurrez egiten genuen baina bukaerako inolako arazorik gabe egiten genuen, baita gaez ere. Wanfujiang izeneko kale komertzialera joateko, ordea, ez genuen horrelako balentriarik egin behar izaten, hoteletik atera eta eskuinerantz joz gero, bostehun bat metrora zegoen-eta. Kale komertzial luze eta zabal bat zen, egunez zein gaez, jendez gainezka egon ohi dena. Gu arratsaldean joaten ginen handik paseatzera eta erosketak egitera. Iluntzen hasten zenean, neoizko iragarki erraldoiek argitzen zuten kalea, New Yorken bageunde bezala. Ez zegoen ezer berezirik ikusteko

baina gu gustura joaten ginen, ziurrenik hoteletik gertu zegoelako. Egun, Google Earth programari esker Beijingeko kaleak satelitez ikusten ditudanean, oso-oso gutxi mugitu ginela ohartzen naiz, ez genuela ia-ia ezer paseatu, Paris edota Bartzelona bisitatzean ez bezala, Beijingen ez ginela ibili kalez kale eta auzoz auzo mapa soil baten laguntzaren eskutik. Gure alde esango dugu nahikoa loturik geundela ordutegi aldetik, haurren loak zein otorduek agintzen zigutela uneoro nora joan eta zer ikusi.

Agian horrexegatik ez genuen azken egunera arte ondo-ondoan zegoen txoko txinatar zoragarri hura aurkitu. Wanfujiang kalearen paraleloan zegoen kale txiki eta estu batzuk ziren. Berrogei metroko pasabide bat zeharkatu eta, artxila-mortxila!, bat-batean mundua alderik alde gurutzatzen genuen. Iragarkiz, arropa dendaz, janari azkarreko jatetxez, kapitalismoz beteriko kale komertzial batetik, auzo txinatar peto batera, berrogei metrotan. Gure munduko edozein hiritan topa daitekeen kontsumorako gune zabal batetik, txinatarren mundura salto txiki batean. Chongqing-eko kaleetan bezala, han ere janari postuak zeuden edozein bazterretan, taberna txikiak eta terrazak, txinatarrez beterikoak, eta txoko hartan mendebaldar gutxi bazegoen ere, baziren oroigarriak zein opariak erosteko postuak non derrigorrez tratua egiten saiatu behar genuen zerbait erosiko bagenuen. Jende mordera egon ohi zen txoko hartako kaleetan eta terrazaren batean esertzen ginen giroa ikuste aldera. Gogoan dut ezen halako batean, terraza batean eseririk, balkoi zabal batean egiten ari ziren opera txinatar bat ikusteko aukera izan genuela. Antzeko zerbait ikusia genuen Chongqing-en eta piperrik ulertu ez bagenuen ere, primeran pasa genuen. Hori bai, Garazi ez zen oso konforme geratu balkoiko pertsonaje hura Txinako Porrotx zela esan genionean...

Lolox, Lolox

Ohartuko zinetenez, narrazio honetan behin baino gehiagotan agertu da bidaia hartako kontraesan nagusia, alegia, gure sentazioak txinatarrekiko eta beraiek gurekiko zuten ikuspegiaren arteko talka. Chongqing-en ikusi eta Beijingeko txoko polit hartan ikusitako operak igual-igualak ziren funtsean. Gizonezko batek, aurpegia zuriz margoturik, emakume baten papera egiten zuen eta istorio bat kontatzen zuen –ez galdetu zertaz, esan bezala, hitz bat bera ere ez genuen ulertzen eta-. Chongqing-en bezala, han ere bazezilen burusoil bat emakume

hura zirikatu nahian. Bai, funtsean istorio bera zen. Nik, ordea, bi emanaldi haiek ezberdinak izan zirelako sentazioa daukat eta bigarren hartan gusturago egon ginelakoan nago. Lehenengora turista moduan joan ginen eta propio egin zuten emanaldi hura guretzat. Bigarrena, ordea, kasualitatez topatu genuen eta txinatarrentzako emanaldi publiko bat zen. Ez dut ezer bidaiatzeko era horren kontra, baina argi genuen gu ez ginela turistak, ez geundela han turismo egiteko, eta turismo egin bagenuen ere –argazki albumak ikusi besterik ez dago- gure gogoia eta asmoa ez ziren haiek. Egun gutxi genituen gure alaben kulturaz zein jaioterriaz ongi jabetzeko, etorkizuna prestatzeko, egunen batean egingo dizkiguten galderen erantzunak jasotzeko. Eta erantzun haiek Harresi Handian eta Udako Jauregian zeuden bai, baina baita gidatan agertzen ez diren kale haietan ere, usainetan eta janari postuetan, ile-apaindegietan eta ziber-kafeetan. Txinatarrei, ordea, ez zitzairen gure ikuspegia gehiegi interesatzen. Beraientzat turistak gauza zehatz batzuk ikusi behar ditu eta besteak, aukeran, hobe ez ikustea. Honen adibidea Hutong-era egindako txangoa izan zen. Hutong Beijingeko alde zaharra da. Gure alde zaharren antzera, kale estu-estuak dira eta bertan harrizko etxetxo txikiak topatu genituen. Hara iristeko, bizi-taxi batzuetan jarri gintuzten eta paseo ederra eman ziguten Hutong-etik. Paseoaren erdia-edo egina izango genuen Yolanda karabana geldiarazi zuenean. Antza, etxe txinatar arrunt bat ikusi behar genuen. Eta halaxe izan zen, etxe tipiko bat ikusi genuen, etxe karratu bat, erdian patio txiki bat zuena. Lorategi baten antzeko zerbait eta kaiolatutako txori batzuk zituen patio hark eta handik etxeko gela guztietara sartzen ginen. Hirurogei urte inguruko emakume jubilatu bat zen jabea, eta Yolanda itzuli zizkigun haren hitzak. Etxe hartan ez zegoen luxuzko ezer, baina, era berean ez zitzaion ezer falta. Ordu bete inguru egongo ginen emakumearekin hizketan eta handik ateratzean, leku turistiko orok izan ohi duen saltzaile andana oldartu zitzaigun zer edo zer eros geniezaien. Eta saltzaileak han egoteak –guk “Lolex” ezizenaz bataiatu genituen saltzaile haiek, Rolex erloju faltsua baitzen haien produkturik “onena”- zera esan nahi zuen, turista guztiak etxe horretara eramaten gintuztela. Ez zen, beraz, hain arrunta etxe hura. Etxe hura zen guk ikusi behar genuena, eta emakume haren azalpenak ziren guk entzun behar genituenak. Hutong-eko beste edozein etxetan sartu izan bagina gauza bera ikusiko ote genuen? Ezin jakin. Dakidana da egoera hura bidai osoan zehar errepikatu zela eta ziurrenik halaxe behar zuela, haien munduan zein gurean dolarrek agintzen baitute.

Haatik, guk, aukeran, nahiago genuen horrela izan ez balitz.

Mongolia gainerik

Tira, ba, horrela joan zitzaizkigun egunak Beijingen. Bukaeran etxera itzultzeko gogoz geunden denok. Izugarri ondo geunden baina nekea sumatzen genuen, eta etxean bezala inon ez. Gainera, Garazi nahiko gaizki pasatzen ari zen, txinatar guztiek ukitu eta laztandu nahi izaten baitzuten, hain zen handia neskato errubia txiki batek sortzen zuen ikusmina. Izan genuen, hala ere, denbora nahikorik berriro hanka sartze eder bat egiteko –Beijing osoa zeharkatu behar izan nuen taxi batean, Espainiako enbaxadara iritsi eta hara eraman beharreko paper guztiak hotelean ahaztuta utzi nituela konturatu ostean-, bai eta hainbat bitxikeria ikusteko ere –McDonalderen propaganda zuen aterki baten azpian gau eta egunez mugitu gabe zeuden militarrena ez zait sekula ahaztuko-. Eta ohartu ginenerako mikrobusean geunden maleta eta guzti. Hemezortzi egun generamatzen etxetik kanpo, bagenuen etxera itzultzeko garaia.

Goizeko 7etan genuen hegaldia eta 3'30etan elkartu ginen hoteleko harreran aireportuan goizeko bostetan egon ahal izateko. Azken ordainketak egin genituen hotelean eta aireporturantz abiatu ginen. Zain geunden bitartean kafetegi batean gosaldia genuen eta handik itxaron gelara joan ginen. Artean ez genekien itxaronaldia izugarri luzatuko zela...

Ez dakit zehazki zer gertatu zen baina zain geundela zera jakinarazi ziguten, gure hegazkina ez zela prest egongo gutxienez goizeko hamarrak arte. Geroxeago hamaikak arte esan ziguten, eta azkenean, ordu batean hartu zuen zerurako bidea. Horrek zera esan nahi zuen, Madrila eguerdian iritsi beharrean, arratsaldeko seiak pasatxo iritsiko ginela –mendebalderantz joan behar genuenez, sei ordu irabaziko genituen-. Gainera, hegaldia zuzena bazen ere, Berlinen gelditu behar genuela esan ziguten, depositua betetzeko, nonbait. Okerrera ez zen itxaron behar izatea, baizik eta arratsalde hartan bertan, Jesusek, Estherrek eta Garak beste hegaldi bat hartu behar zutela Madrilen Santiagora iristeko eta denbora aldetik larri ibiliko ziren. Besteontzat ere ez zen ona atzerapena zeren mikrobus bat gure bila joatekoa baitzen Donostiatik Barajasera eta han itxaron beharko zuen sei ordu luze...

Baina tira, dena ez zen txarra izango eta atzerapenaren ostean iritsi zen itzuliko bidaiaren berririk onena. Gure sorpresarako, berrogei bat lagun baino ez ginen hegaldi hartan eta berrehun bat eserleku hutsik joango ziren. Ia-ia dena guretzat zen eta joandakoan ez bezala, itzulerakoan lasai arraio joango ginen. Gogoan dut, denbora luzean ez genuela Garaziren

berririk izan, gurekin haserre omen zegoen eta Maxeren eskutik joan zen hegazkinaren aurreko aldera. Bitartean, Enara, Aintzira eta adoptatutako haur guztiak lo ez zeudenean, katuka zebiltzan handik eta hemendik eta azafatek besotan hartzen zituzten gurekin solasean zeuden bitartean. Esan bezala oso bidaia lasaia izan zen itzulerakoa. Hegaldi hartatik bost irudi gorde nituen nire oroimenen kutxan: lehenengoa Harresi Handiari dagokio. Hegazkina artean garaiera egokia hartzen ari zelarik, Harresi Handiak zeharkatzen duen mendikate osoa ikusi ahal izan genuen, eta zinez da ikusgarria. Bigarren irudia Mongoliari dagokio. Pilotuak jakinarazi zigunean Ulán Bator-en gainean geundela denok hurbildu ginen korrika leihatiletara. Mongoliako hiriburua atzean utzi genuenean, basamortu menditsu bat baino ez genuen ikusten, ez zen ezta herri bakar bat ere ikusten hamar mila metrora egonik ere! Hirugarrena hegazkinaren depositua betetze aldera Berlinera jaisten ari gineneko unea da. Izan ere, hegazkina hurbiltze lanak egiten ari zelarik, hango basoak eta lakuak ikusteko aukera izan genuen, zoragarria benetan.

Bukaerarik gabeko bukaera.

Barkatuko didazue behin puntu honetara iritsi ondoren pause botoia berriro sakatu izana. Badakit liburu honen azken orrialdetan gaudela eta badakit, halaber, ez dudala bete azken paragrafoan agindutakoa, alegia, ez dudala itzulerako hegaldi hartatik atera eta oroimenaren kutxan gorde nituen bost irudien zerrenda amaitu. Haatik, baditut bi arrazoi azken eten txikitxo bat egiteko. Lehenengo arrazoa gertakizunen kronologiari buruzko azalpen bati dagokio. Izan ere, hasierako irudiak ez bezala –Harresi handia, Mongolia eta Berlineko aireporturako hurbiltze lanak- azken biak ez dira liburu honetan kronologikoki ordenaturik azalduko eta, gauzak horrela, bosgarrenaren narrazioa laugarrena baino lehenago iritsiko da. Bigarren arrazoa pragmatikoagoa da. Izan ere, bada hausnarketa txiki bat egin nahi dudana eta hauxe dut unerik egokiena. Horrela egin ezean, epilogo bat idatzi beharko nioke liburu honi eta horixe bera da ekidin nahi dudana. Zergatik? Bada, erraza da erantzuna: istorio honek epilogorik ez duelako.

Kontua da erabil nezakeela Enara Fuhan etxera iritsi zeneko irudia liburu honi bukaera emateko. Bukaera polita litzateke, inondik ere, Madrildik Donostiarako bidaia kontatzea. Esan nezake,

esaterako, bidaia gogorra izan zela eta gogoan dudala lo egin nahi eta ezinean egon nintzela denbora luzean baina haurren negarrek ez zidatela lo egiten utzi. Etxegarate jaisten ari ginela lehenengo aldiz ohartu nintzela gure bidaia amaitua zela, lehenengo aldiz esan niola nire buruari: “kitto, iritsi gara etxera”. Donostiara iritsi eta etxera joan aurretik mikrobusa Egiatik pasa zela, Aintzira eta Laida euren etxe berrietan uzte aldera. Gero Alde Zaharrera joan ginela.

Eta esan nezake Enara Fuhan lo goxoan sartu zela bere etxean.

Eta Chongqingera iritsi ginenean bezala, euria ari zuela gogotik.

Baina arestian esan bezala, ez ditut irudiok erabiliko liburu hau bukatzeko liburu honek bukaerarik ez duelako. Ezin du epilogorik izan osorik baita sarrera. Liburu hau Enara Fuhan-en istorioaren sarrera da. Liburu hau falta diren bi kapituluetakoko bat da, hutsuneak betetzera eta galderak erantzutera datorrena. Ez ditu, jakina, zulo guztiak estaliko ezta erantzun guztiak emango, baina saiatu behar nuelakoan nengoen eta saiatu naiz.

Hemendik aurrerakoak, baina, ez ditut nik idatziko, ezpada Enara Fuhanek berak. Bere istorioa baita.

Ez nuke, baina, bukaerarik gabeko bukaera honetan zuekin zorretan geratu nahi, eta azken hausnarketa egin ostean, badut garaia berriro atzera egiteko eta arestian agindutakoa betetzeko. Alegia, badut garaia bidaia hartatik gorde nuen azken irudia zein den kontatzeko.

Azken irudia ikusteko etxera ekarri gintuen hegazkinera itzuli behar dugu, ia hutsik zihoan hegazkin hartara. Azken irudi hura ikusteko ez dugu hegazkineko leihatilatik kanpora begiratu behar, ezpada barrura, eta aurrekoak ez bezala, ez dagokio paisaia bati, ezpada nire buruari. Hegazkinaren azken eserlekuetan eseri nintzen eta pare bat ordu eskaini nion Txinara egindako bidaiari buruzko azken zutabea idazteari, etxetik bertatik bidaliko nuen azken kronika hura. Ohartuko zaretenez, lehenengo pertsonan kontatuta badago ere, apur bat urruntzea aukeratu nuen. Aurreko zutabeetan ere ez nuen txintik esan gure bidaiaren arrazoiaz eta horrela uztea ideia ona zela deliberatu nuen.

Egunen batean Enarak irakurriko du eta espero dut bere gustukoa izatea.

FENG FU HAN

Txinarako bidaia zoragarri hau bukatzear dago –hegazkinetik ari natzaizue- eta bihotzean sentimendu nahasketa handia daramadala banoa Euskal Herrirantz. Alde batetik, gogoia daukat etxera iristeko. Egunerokotasunak ere alde onak ditu eta nekatuta nago nirea ez den ohe batean lo egiteaz. Beste aldetik, pena handia daukat, atzean uzten ari garen herria benetan baita ederra. Hemezortzi egun izan dira eta betiko geratuko dira oroimenaren kutxan.

Hegazkin honetan adoptatutako zortzi bat neskato datoz euren familia berriekin. Nire ondoko eserlekuan Feng Fu Han txikia dago, leihatilatik begira. “Fu” hitzak “zortea” esan nahi du. “Han” hitzak, berriz, “barneko edertasuna duena”. “Eta Feng?” galdetu diot bere amari. “Fengdu hiriko umezurtz-etxeko haur guztiek “Feng” abizena daramate”

Fengdu hiria Yantze ibaiaren ertzean dago eta 2009an Hiru Arroilen presa ikaragarria bukatutakoan Yantzeren uretan murgilduta geratuko da. Ia 60.000 lagunek utzi beharko dute Fengdu eta presa amaitzen dutenerako guztira 2 miloi lagunek utzi beharko dituzte euren etxeak.

Feng Fu Han-ek leihotik begira jarraitzen du, irribarretsu. Begirada tristeia dauka, baina, eta hain txikia ez balitz, berak ere bihotza erdibiturik daukala pentsatuko nuke, badakiela hegazkin honek etorkizun ezberdin baterantz daramala eta, era berean, badakiela laster bere sorterrria – bere iragana- Yantze ibaian desagertuko dela.

Baina hain da txikia...

Berrian argitaratua, 2005eko azaroaren 10an